Zu hemen zaude.

# goiena

2024-02-02 EGUBAKOITZA / 1.022. ZENBAKIA / 24. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




+ Emakumeak nagusi Debagoieneko eskubaloian

Susana Manganari elkarrizketa, Gazari buruz



Udal ordezkariak eta Aramaixo Bizirik plataformakoak martitzenean. L. UGARTEBURU

## Udal Gobernua eta Aramaixo Bizirik herri plataforma, eolikoen kontra

600 sinadura batu dituzte Aramaion, 16 urtetik gorakoengandik, Itsaraz proiektuaren aurka / 15

## "Seulgo Joko Olinpiarren ostean, boxeoa uztea erabaki nuen"

1988an boxeoa utzi eta Sevillara bizi izatera joandako arrasatearra omendu zuten zapatuan jaioterrian / 32



Antonio Caballero. XABIER URZELAI



## ARATUSTEAK ETA KOKO-BATZEA IKASGAI ELGETAN

Kokoak prest dituzte Elgetan bihar Hartzari harrera egiteko; eskolako umeek herri tradizioan oinarritutako Aratusteen gaineko erakusketa bisitatu dute / 27

Elgetako eskolako neska-mutikoak koko-batzearen gaineko erakusketan, atzo, eguena. XABIER URZELAI

### Zaintza ekosistema diseinatzen hasi da Aretxabaletako Udala: "Gizarte erronka nagusietako bat da" / 16

### SINADURAK

JON ETXEBERRIA / 8
ITSASO ERRETOLATZA / 11
JULEN ABASOLO / 16
ITSASO ERRARTE / 18
ALEX ARTEAGA / 21
MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40






Goiena telebista HDn ikusiko da otsailaren 8tik aurrera. GOIENA

## Ohiko galderak

Hemen daude jasota aldaketak ekar ditzakeen galderen erantzunak:

- **Noiz aldatuko da Goiena telebista SDtik HDra?** LDT bidezko seinalea jasotzen dutenen kasuan, 2024ko otsailaren 8an. Kable bidez jasotzen dutenek 2023aren amaieratik jasotzen dute seinalea HDn.
- **Noiz emitituko dira LDTko kate guztiak HDn?** 2024ko otsailaren 14rako aldaketa egin beharko dute. Epe horren ostean, SDn dauden kateak desagertu egingo dira.
- **Zer behar dut Goiena telebista eta beste kateak HDn ikusteko?** HDrekin bateragarria den telebista. Telebisten %98 dira bateragarriak.
- **Zer egin behar dut Goiena telebista eta beste kateak HDn ikusteko? Aldaketa bakarrik egingo da.** Zenbait kate desagertuko direnez, hutsik gera litezke telebistan kanal batzuk. Litekeena da berriro sintonizatu behar izatea telebista edo kateen hurrenkera berrantolatzea.
- **Zertan nabarituko dut telebista HDn ikustea?** Irudiaren eta soinuaren kalitatea hobea da.

# Telebista eskaintza guztia HDn, baita Goiena telebista ere

Hilaren 14a baino lehen telebista kateek emisioa bereizmen handira aldatu beharko dute, eta horietako bat da Goiena telebista. Gehienek ezer egin barik ikusiko dute bereizmen handian; aparailu zaharrenak birsintonizatu edotа aldatu egin beharko dira

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Otsailaren 8an, Goiena telebistak bereizmen handirako (HD) jauzia egingo du. 2023ko urtarrilaren 17an Espainiako Gobernuak onartu zuen errege dekretuak jasotzen du telebista-kate guztiek, estaldura eremua edozein dela ere, emisioak bereizmen handira aldatu beharko dituztela 2024ko otsailaren 14a baino lehen. Lurreko Telebista Digitalaren bidez (LDT) –gaztelaniaz, TDT– emisioa jasotzen duten herritarren etxeetan izango du eragina eta bereizmen estandarrean (SD) emisioan dauden kate guztiak desagertu egingo dira. Seinalea kable bidez jasotzen dutenek, aldiz, 2023. urtearen amaieratik ikusten dituzte Goiena telebistako edukiak bereizmen handian.

Goiena telebistako zuzendari Oihane Agirrek eman ditu aldaketari buruzko xehetasunak: "Aldaketa egiteko azken eguna otsailaren 14a da, eta guk otsailaren 8an egitea erabaki dugu. Orain arte zenbait katek SDn eta HDn eskaintzen zituzten emankizunak, eta SDko kate hori desagertu eta hutsik geratuko da. Gure kasuan, SDn emititzen genuen, eta orain, HD bilakatuko da. HDk ekarriko du irudiaren eta soinuaren kalitate hobea; punta-puntako telebista esperientzia".

### Kalitate oneko esperientzia

Goiena telebistak aspaldi hasi zuen digitalizaziorako bidea, eta produkzio katean ere duela zenbait urte hasi zen HDn ekoizten: "Gure eguneroko jardunean HDn ekoizten ditugu edukiak, baina gero, emisiorako jaurtiketa SDn egiten da eta ekoiztutakoari kalitatea jaisten zaio". Orain, ekoiztutako kalitatean iritsiko dira ikus-entzunezkoak etxeetara eta kalitate hobeagoko soinuarekin eta irudiarekin gozatuko du telebistaren beste aldean dagoenak.

**SOINU ETA IRUDI KALITATE HOBEAREKIN IKUSIKO DA GOIENA TELEBISTA AURRERANTZEAN**

### Punta-puntan

Espainiako kate guztiek egin beharreko aldaketa da emisioan jarraitu nahi badute, eta Goiena telebistak emango du jauzia. "Kalitatez gainerako hedabideen mailan gaudelako", zuzendariaren esanetan. "Teknologia eta baliabideak eskura dauzkagu, eta kalitatez beste kateen mailan daude, punta-puntan. Baldintza guztiak betetzen ditugu eta bagara gai bereizmen handian lan egiteko", dio Oihane Agirrek.

Gainera, kontuan izan behar da zenbait telebista katek ez dutela HDrako jauzia emango, eta, hortaz, telebistatik desagertuko direla. LDT bidez ikus daitekeen Elizbarrutiko kanalaren –Betania TV– kasua da hori. Zenbait arrazoi medio ez du baliabiderik edukiak HDn eskaintzeko, eta emititzeari utziko dio. "Bailaran gurea izango da tokiko euskal kanal bakarra".

### Telebista, gakoa

Goiena telebista eta gainerako kateak ikusten jarraitzeko, ordea, HD seinalearekin bateragarria den telebista edo TDT hartzailea behar dira. "Gaur egun, telebisten %98 dira bateragarriak. %2 geratuko lirateke telebista ikusi barik", azaldu du Agirrek.

Gehitu duenez, ikus-entzuleak ez dauka ezer egin beharrik: "Normalena da telebistak berak aldaketa detektatu eta SDtik HDra pasatzea. Goiena eta beste kateak ez badira ikusten, gailua ez da bateragarria izango. Kasuren batean, Goiena telebista izan ezik gainerako kateak ikusten badira, telebista berriro sintonizatzeko eskatzen diegu herritarrei". SDren desagerpenarekin zenbait kanal hutsik geratuko dira, eta egokiena izango litzateke sintonizazioa berriro egitea kateak berrantolatzeko.

**"BALIABIDEAK DITUGU ETA KALITATEZ BESTE TELEBISTA KATEEN MAILAN GAUDE"**

O. AGIRRE, GOIENA TELEBISTAKO ZUZENDARIA

Dena den, Goiena telebista ikusteko arazoak izanez gero, deitu 943-25 05 05 telefono-zenbakira.

### Programazioa

Aste batzuk barru aurkeztuko du Goiena telebistak udaberriko programazioa; baina datozen egunetan zenbait saio itzuliko dira pantailara. Gaur bertan abiatuko da, esaterako, *Harira* saioa. Debagoieneko alkateei 2023-2027ko agintaldiko lehen elkarrizketak egingo dizkie Goiatz Aranak eta ikusgai izango da egubakoitzetan 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean.

Debagoieneko jai garrantzitsuenetan egongo da aurten ere Goiena telebista, eta zuzeneko lehen saio berezia Aretxabaletatik egingo du, otsailaren 10ean, Aratusteetako giroa jaso eta zuzen-zuzenean ikus-entzuleen etxeetara iristeko. Otsailaren 9an, aldiz, Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua jasoko du eta *goiena.eus*-en eskainiko du zuzenean.

Bestalde, Agirrek aurreratu du otsailaren amaieran bueltan datozela *Kontu kontari* saioaren bigarren aldia eta *Galdegazte*-ren hamargarrena.

# Boluntarioen lana First Lego Leagueren atzean

Martxoaren 2an jokatuko da First Lego Leagueren Euskadiko finaletako bat, Arrasaten; 15 urte beteko ditu aurten txapelketak, eta hasieratik ezagutzen du Maite Coutok ekimena, lehiakide izana baita eta azken urteetan boluntario lanetan dihardueIako

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE
Teknologiarekin eta zientziekin lotutako profesionalak –Steam bokazioak– bultzatzeko lanean dihardute enpresa nagusiek, eta askotariko ekimenak antolatzen dituzte horretarako. Horietako bat da, esaterako, First Lego League. Martxoaren 2an egingo dute Euskadiko finaletako bat Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren Iturripeko Campusean. Urteak dira Euskadiko torneoko finaletako bat Arrasaten egiten dela, eta boluntarioak behar izaten dituzte horrelako ekitaldi bat aurrera eramateko. 15 urte beteko ditu aurten txapelketak, eta bigarren edizioan hartu zuen parte Maite Coutok lehiakide moduan, eta, ondoren, boluntario lanetan hasi zen. Egun, boluntarioen arduraduna da.

"Ospakizun handi" bezala deskribatu du martxoaren 2ko finala: "Hemen jendea animatu egin beharko litzateke. Ikasleak jada ari dira lanean, eta egun hori izango da ondo pasatzeko eguna eta proiektuak ikusteko eguna". Prestakuntza-programa dela azaldu du, eta ikasleek ikasturtean zehar zenbait eduki landu dituztela: "Berrikuntzarekin lotutakoak; robotikaren esparrua, robotak programatzen egoten baitira. Baina balioak ere landu dituzte. Konbo polita da. Lanak epaimahaiaren aurrean aurkeztu behar izaten dituzte".



Maite Couto, astelehenean, Goiena telebistako platoan. LARRAITZ ZEBERIO

### Steam bokazioei bultzada

Mondragon Unibertsitatea eta Innobasque dira, besteak beste, finalaren babesleak. Coutok uste du halako enpresak badaudela etorkizunera begira eta badutela teknologiari eta zientziei lotutako profesionalen beharra: "Nik uste dut horrelako lehiaketak direla bidea eta benetan emaitzak lortzen direla. Horregatik, Innobasqueri gogoeta egitea proposatuko nioke: 15 urte hauetan zenbat gaztek ikasi dute gradu zientifiko-teknologikoa? Nik uste dut zenbakiak deigarriak direla".

**FINALAREN EGUNEAN BOLUNTARIO IZAN GURA DUENAK ORAINDIK BADU IZENA EMATEKO AUKERA**

### Boluntario beharra

Iraila ezkero dabiltza lanean, eta halako ekimen bat aurrera ateratzeko boluntarioak beharrezkoak direla nabarmendu du Coutok. Argi utzi du denendako postuak daudela: "Pertsona guztiak eroso sentituko diren rola egon daiteke. Izan daiteke taldeak gidatzea leku batetik bestera joateko, epaimahaia... Zaila da lehen aldiz apuntatzea, baina behin probatzen duzunean jende guztiak errepikatzen du; beraz, hor badago zerbait". Azaldu du denen eskura dauden lanak direla eta formakuntza jasotzen dutela boluntarioek. Oraindik boluntario izateko epea irekita dago eta *innobasque.eus* atarian eman daiteke izena. Dio jende guztia dela ongietorria, baina, hala ere, boluntario izateak "lotsa" ematen dienei ikustera joateko dei egin die: "Etor daitezela ikustera. Gune irekia da; umeekin etortzeko ere polita da. Datorren urtean ere boluntarioak beharko ditugunez, agian, animatuko dira".

### Eskualde talentuduna

110 herrialdetan 650.000 gazte inguru batzen ditu First Lego Leaguek gaur egun. Azaldu du talentuari geroz eta garrantzi handiagoa ematen zaiola eta Debagoienean ere "talentu ona" dagoenez eskualdea mapan jartzeko aukera ematen duela. Euskadiko finaletako irabazleek Espainiako Txapelketako txartela lortzen dute; handik, Europarako eta Munduko txapelketetarako sailkatzen dira garaileak, hurrenez hurren.

Couto bera izana da Alemanian bere lana defendatzen: "Egia esan, Euskadiko taldeak oso onak dira, eta, urtero ez bada, ia-ia urtero lortzen dute sailkapena Espainiako Txapelketatik Europakora edo mundu mailakora joateko. Imajinatu ze ohorea den guretzako".

## Otsailaren 7an abiatuko da aurrematrikulazio prozesua

Onarpen-prozesuari berrikuntzak gehitu dizkie Hezkuntza sailak "ikasleen eskolaratze orekatuagoa sustatzeko"

**I.A.A.** ARRASATE
2024-2025eko ikasturterako aurrematrikula-prozesua otsailaren 7an hasiko da eta eskaerak aurkeztu ahal izango dira otsailaren 23ra arte. Hezkuntza Sailak adierazi duenez, hurrengo ikasturterako onarpen-prozesuak iazko neurriekin jarraituko du eta, gainera, berritasunak izango ditu, "ikasleek eskolatze orekatuagoa sustatzeko helburuarekin".

### Berritasunak

Iazko onarpen-prozesuari bi berritasun nagusi gehitu dizkie: alde batetik, plaza eskuratuko dute neba-arrebaren bat matrikulatuta daukaten ikastetxean hasierako maila eskatzen dutenek –2 urteko gelan; edo halakorik ezean, 3 urtekoan–; ikastetxe bakarra duten udalerri edo eragin-eremuetan bizi diren eskatzaileek ere eskuratuko dute plaza, ikastetxe bakar horretarako eskabidea aurkeztuz gero.

Beste berritasun bat da ikastetxe bereko sarrera-mailan bi neba-arrebak edo gehiagok egindako aldi bereko eskaera; kasu horietan, baremoak 6,5 puntu emango dizkio neba-arreba horietako bakoitzari. Berritasun horrek neba-arreba bikien kasuei eragiten die, batez ere.

### Beste datak

Aurrematrikulazioaren ostean, martxoaren 12an eskatzaileen zerrendak argitaratuko dituzte; martxoaren 26an, berriz, behin-behineko zerrendak –erreklamazioak apirilaren 10era arte egin ahal izango dira–; eta, azkenik, apirilaren 26an behin betiko zerrendak –errekurtsoak aurkezteko azken eguna maiatzaren 30a da–.

ARANZADI IKASTOLA

**T. ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA**

Gure kooperatibaren baltzuaren Estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.ren Ohiko Batzar Orokorrera dei egiten du. Batzarra **2024ko otsailaren 21ean** egingo da, arratsaldeko bost eta erdietan lehen deialdian, **seietan bigarren deialdian**, eta hala balegokio, sei eta erdietan hirugarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**.

**GAI-ZERRENDA**

1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen-txostena irakurtzea.
3. 2022-23ko ikasturteko memoria aurkeztea. (Informazioa)
4. 2023-24ko ikasturteko egitasmoa aurkeztea. (Informazioa)
5. 2022-23ko ikasturteko kontuen kudeaketa aztertu eta hala balegokio, onestea.
6. Galdu-irabazien banaketa azaltzea eta, hala balegokio, onestea.
7. Ikastolen Elkartetik datozen gaiak aurkeztea. (Informazioa)
8. Ekarpenen inguruko informazioa ematea. (Informazioa)
9. Galde-erantzunak.

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa aurrez Aranzadi Ikastolan aztertzeko aukera dute. Batzarra euskaraz izango da, baina aldi bereko itzulpena egingo dugu horrela behar duenarentzat.

Bergaran, 2024ko otsailaren 1ean

Lehendakaria
*Laureano Askargorta Irizar*



Josu Guridi Astiazaran –Arrasateko Saltokiko ordezkaria– eta Maria Jesus Diaz de Gereñu Eskibel –barne-diseinatzailea–, Arrasateko dendaren *showroom*-ean.

# "Oso harrera ona izan du Saltoki Homek"

**JOSU GURIDI ASTIAZARAN** ARRASATEKO SALTOKIKO ORDEZKARIA
**MARIA JESUS DIAZ DE GEREÑU ESKIBEL** BARNE-DISEINATZAILEA

Saltoki Home gunea inauguratu zuten joan den astean Arrasateko Kataide industrialdean; Saltoki dendaren barruan. Bainugela, sukaldaritza eta zeramika erakusketa handiarekin atondu dute saltokiaren *showroom*-a, eta jendetza elkartu zen han; besteak beste, hainbat sektoretako 90 profesional: iturgintzan, eraikuntzan, interiorismoan eta arkitekturan dihardutenak.

Iaz ezkero, Debagoienean ere badago Saltoki, Debagoieneko eta inguruko eskualdeetako instalatzaile eta zaharberritzaile guztiei zerbitzu profesional, gertuko eta berritzailea eskaintzeko. Dendari eta erakusketa-guneari buruz berba egin dute arduradunak eta barne-diseinatzaileak.

**Zer da Saltoki eta nola sortu zen?**

Saltoki 1978an jaio zen, Iruñean, hornidura eta iturgintzako materialen denda bat irekitzearekin. Aholkatutako autozerbitzuaren kontzeptu berritzailea duen denda bat, non espazio berean profesionalak edozein instalazio edo proiektutarako behar den guztia aurki zezakeen.

Gaur egun, Saltokik iturgintza, berokuntza eta klimatizazioa, elektrizitatea eta argiztapena, eraikuntzako materialak eta etxebizitzetarako eta *hospitality*-rako ekipamendua hartzen ditu.

40 urte geroago eta 80 saltoki baino gehiagorekin –Saltoki, Sanigrif eta Massanella– eta Saltoki Homeren 23 erakusketarekin, oinarri eta filosofia bera mantentzen jarraitzen dugu. Gure bezeroei hornidura eta material aukera zabala eskaintzen diegu mota guztietako instalazio eta proiektuetarako.

**"GURE IKUSPEGI PROFESIONALAK ETA GERTUTASUNAK BEREIZTEN GAITU BESTEENGANDIK"**

**Saltokik denda bat dauka Debagoienean ere.**

Hala da, bai. Iaz zabaldu genuen. Gipuzkoako instalatzaile eta zaharberritzaile guztiei eskaintzen diegun zerbitzua indartzen jarraitzeko, Arrasateko saltoki berria inauguratu zen. Kataide industrialdean dago. Dendaren eta biltegiaren artean 3.000 metro koadroko azalera du. Profesionalari hurbileko eta zuzeneko arreta eskaintzeko. Inguruko instalatzaileen beharrak asetzera bideratuta dago; bereziki, Debagoiena, Debabarrena, Urola eta Goierri eskualdeetakoak.

**Orain, gainera, Arrasateko Saltoki dendan Saltoki Home ere baduzue; zer da?**

Dena leku bakarrean edukitzea erosoagoa da. Horregatik, gure iturgintza eta elektrizitate zentroen barruan, bezeroak Saltoki Homeren erakusketak ere aurkituko ditu. Dekorazioari eta barne-diseinuari eskainitako espazio espezifikoak: sukaldeak, bainuak, logelak, argiztapena, zeramika... Saltoki Home inspirazio-*showroom* bat da profesionalentzat eta azken bezeroentzat. Gure barne-diseinatzaile eta arkitektoetako taldeek diziplina anitzeko lana egiten dute, teknikoki aholkularitza emateko, sustapen-proiektu batetik bainua eraberritu arte.

Gure *showroom*-ean proiektuentzako material sorta zabala dugu: sukalde eta bainugelako altzariak, etxetresna elektrikoak, dutxarako platerak, txorrotak, manparak, osagarriak, armairuak, zoru ijeztuak eta zur naturalezkoak, eta lur eta hormetarako zeramika bilduma zabala.

**"SUSTAPEN PROIEKTU BAT BEZAIN GARRANTZITSUA DA ZAHARBERRITZEA EDO EKIPAMENDUA"**

Guretzat, sustapen proiektu bat bezain garrantzitsua eta zirraragarria da etxebizitza baten zaharberritzea edo bainugela edo sukalde baten ekipamendua.

Bereziki, bainugela eta sukaldeko altzarietarako Hönnun marka eta marmol-tailer bat ditugu, 4.500 metro koadroko instalazio zabalekin, teknologia aurreratuena duten hainbat ekoizpen-areto hartzen dituztenak. Gure lantegiak, Marmolatekek, 4.000 taula baino gehiagorentzako biltegiratze-ahalmen automatizatu handia du, gure bezeroen eskaerei azkar aurre egiteko aukera ematen diguna. Harri naturaleko edo portzelanazko dutxa-platerak, konketak, gainaldeak, profesionalek beren bezeroen proiektua ezin hobea izan dadin behar dutena aurkitzeko behar duten guztia.

**Zergatik aukeratu Saltoki Home?**

Gure ikuspegi profesionalak eta gertutasunak bereizten gaitu besteengandik. Bezeroaren proiektuan parte hartzen dugu, prozesu osoan, aholkularitza eta laguntza emanez: produktuak, espazioen banaketa, logistika eta aholkularitza teknikoa.

Bezeroaren beharrak ulertzen ditugu eta haren eskura jartzen ditugu gure espazioak eta profesionalak, ideiak arrakastaz gauzatzeko. Diseinua eta abangoardia bainugelan, sukaldean, zeramikan, altzari garaikideetan eta argiztapenean. Proiektu bakoitza bakarra da, eta Saltoki Homen behar duten guztia daukagu errealitate bihurtzeko.

**Duela astebete inauguratu zenuten Arrasateko Saltoki Home; nolakoa izan zen ekitaldia?**

Oso eskertuta gaude Saltoki Homeren inaugurazioak izan duen harreragatik. Kataideko denda barruan dagoen espazioa ezagutzera emateko gogo handia genuen. Ia 100 lagunek hartu zuten parte, giro profesional eta lasaian. Arkitektoak, zaharberritzaileak, iturginak, argiketariak, eraikuntzako profesionalak... Erakusketa erakutsi genien, eta Marije, Alba eta Jaione gure barne-diseinatzaileak aurkeztu, haietaz oso harro baikaude. Espero dugu berriz ere bisitatuko gaituztela, euren proiektuen berri eman diezaguten.









# ESKERRIK ASKO

Kataide industrialdean zain
izango gaituzue, **Arrasaten**

SALTOKI
HOME
Sukaldea | Zeramika
Altzariak | Komuna
Argiztapena

# Sokari tiraka ibili dira, eta ez dute akordiorik oraindik

Hainbat hilabetez aritu dira negoziaketa prozesuan Ahal Dugu, Sumar Mugimendua, Ezker Anitza eta Equo Berdeak alderdia, baina oraindik ez dira akordiorik lortu; eta hauteskundeetara bananduta aurkeztea indarra hartzen ari den aukera bat da

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA

Dagoeneko alderdi politiko ia guztiek aurkeztu dituzte Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako euren lehendakarigaia zein izango den, Ahal Duguk eta Sumarrek izan ezik. Bi alderdi horiek hauteskundeetara aurkeztuko diren modua ere kolokan dago; hainbat hilabetez negoziazioetan aritu ostean, ez baitute zehaztu batera edo bananduta aurkeztuko diren. Alderdi moreak barne-hauteskundeak egitea defendatu du, eta Miren Gorrotxategi proposatzen du lehendakarigai gisa. Sumar Mugimenduak, berriz, Alba Garcia aurkeztu du alderdiaren ordezkari gisa. Lehendakarigaiaren aukeraketak desadostasuna sortu du bi alderdien artean, eta, era berean, barne-hauteskundeetan jarraitzea eta oraindik lehendakarigaia zein izango den ez jakitea ere eragin du. Egun, beraz, guztiak erabaki gabe jarraitzen du eta ez dago erabakita Ahal Dugu, Sumar Mugimendua, Ezker Anitza eta Equo Berdeak alderdiak batera edo bananduta aurkeztuko diren.



Iazko udal eta foru hauteskundeetan, Elkarrekin koalizioko kideak. GOIENA

**"AZKEN MOMENTURA ARTE BILATUKO DUGU ALDEEN ARTEKO ADOSTASUNA"**

EVA ABUIN, AHAL DUGU ARRASATEKO ORDEZKARIA

**"SOKA HAUSTEAR DAGOEN ARREN, ORAINDIK LORTU DEZAKEGU AKORDIOA"**

JUAN LUIS MERINO, EZKER ANITZAKO ORDEZKARIA

### Ordezkaritza, kolokan

Ahal Dugu alde batetik eta Sumar Mugimendua, Ezker Anitza eta Equo Berdeak beste aldetik aurkeztea "aukera bat" dela dio Eva Abuinek, Arrasateko Ahal Duguko ordezkariak, eta, era berean, gai horren gaineko iritzi kontrajarriak daudela ere aitortu du: "Alderdian batera joan ezean ordezkaritza lortzea oso zaila izango litzatekeela esaten dutenak daude, baina baita irudia defendatu behar dela defendatzen dutenak ere". Alderdiak bananduta aurkeztea euren Legebiltzarreko ordezkaritza desagerrarazi dezake; horren harira, Abuinek dio "oso tristea" izango litzatekeela "elkar ez ulertzeagatik espazio politiko hori desagertzea".

Juan Luis Merinok, Ezker Anitza-IU Gipuzkoako arduradunak, bestalde, adierazi du alderdien arteko koalizioa lortzea "zaila" dela gaur egun, "Ahal Duguk eta Sumarrek norberaren ideiei eusten jarraitzen dutelako". Hala ere, Merinok aitortu du "egoera zaila izan arren negoziaketak ez daudela hautsita", eta, edonola ere, Ezker Anitzak "batasunaren eta koalizioaren aldeko apustua" egingo duela azaldu du, eta negoziaketa horietatik irten nahi duenak "bere eskubidea" duela ere nabarmendu du. Legebiltzarrean ordezkaritzarik gabe gelditzeak "nagusiki Ahal Duguri" eragingo diola dio Ezker Anitza IUko ordezkariak, eta, ondorioz, erabakia haiena dela azpimarratu du, eta "indar politiko bat Legebiltzarretik kanpo gelditzen denean botoak berreskuratzea oso zaila" dela ohartarazi.

### Soka hausteko zorian

Negoziaketen bitartez ez dute akordiorik lortu, eta "soka haustear" dagoela aitortu du Merinok; eta Abuinek, berriz, akordioa "bidean" dagoela. Kontuak kontu, gaur egungo egoerak dio alderdien arteko akordioa ez dela iritsi, eta Ahal Duguko ordezkariak aitortu du "orain arteko elkarrizketak zailak" izan direla "Sumarrek beste hautagai bat" aurkeztu nahi izan duelako, baina, era berean, adostasuna lortzen "azken momentura arte" saiatuko direla aitortu du. Merino zorrotzago agertu da gai horren harira, eta adierazi du haren ustetan "ego eta kontu pertsonalak" oztopo handia izan direla akordioa lortzeko bidean".

### Bailaran eraginik ez

EAEn eta Espainian gertatzen ari denak, baina, "bailaran eraginik ez" duela izango adierazi dute Abuinek eta Merinok; hala, koalizioko kideen arteko harremana "ona" dela adierazi dute.

# Hainbat debagoiendar EAJren Gipuzkoako zerrendetan

Guztira, zazpi debagoiendar proposatu dituzte jeltzaleek Euskal Legebiltzarrerako Gipuzkoako zerrendetan

**J.M.M.** DEBAGOIENA

EAJk batzarra egin zuen joan den zapatuan, urtarrilaren 27an, Durangon (Bizkaia), eta Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako zerrenden berri eman zuen. Imanol Pradales izango da lehendakarigaia eta Bakartxo Tejeria, berriz, Eusko Legebiltzarreko presidente izateko hautagaia. Horrez gain, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako zerrenda proposamenen berri ere eman zuten, eta aukeratutakoen artean badira hainbat debagoiendar. 30 hautagaik osatzen dute Gipuzkoako zerrenda, eta zazpigarrena da Elena Lete bergararra. 58 urte ditu eta arkitekto teknikoa da ikasketaz. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendua eta Hirigintza Saileko zuzendaria izan zen 2013-2015 urteen artean, eta baita Bergarako alkate ere 2016-2019 aldian; gaur egun, legebiltzarkidea da. Leteren ostean kokatzen da zerrendan Aitor Urrutia eskoriatzarra. 50 urte ditu eta Zuzenbidean lizentziaduna da. Antzuolako Udalean zinegotzia izan zen joan den agintaldian, eta, gaur egun, legebiltzarkidea da. Gipuzkoako zerrenda proposamenaren lehenengo hamarren artean –hamargarren, zehazki– beste debagoiendar bat ere badago: Marijo Etxegoien. Oñatiarra da, 49 urte ditu eta Zuzenbidean lizentziaduna da. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuneko Masterra du egina, eta aholkulari juridikoa da Emakunden. Oñatiko Udalean zinegotzi izandakoa da 2003-2007 eta 2015-2023 aldietan.

**EAJren bailarako hautagaiak**



E. Lete.



A. Urrutia.



M. Etxegoien.



A. Juldain.



J. Ezkurdia.



X. Otxoa.



M. Agirre.

### Gainontzeko debagoiendarrak

Aurretik aipatutako kideez gain, badira zerrenda osatzen duten beste lau debagoiendar. Agurne Juldain, 44 urteko arrasatearra, Arrasateko Udaleko zinegotzia da eta 22. hautagaia da zerrendan. Iosu Ezkurdia, 56 urteko eskoriatzarra, Eskoriatzako Udaleko EAJren bozeramailea da, eta 23. hautagaia da; Xabier Otxoa, 31 urteko aretxabaletarra, Aretxabaletako Udalean zinegotzi izan zen joan den agintaldian eta 24. hautagaia da zerrendan; eta, azkenik, Gipuzkoako zerrendako azken hautagai debagoiendarra Maite Agirre da, 36 urteko bergararra –29. hautagaia–. 2015az geroztik Bergarako Udaleko zinegotzia da eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuneko Masterra du egina.




Lehen planoan, azaroan argitaratu zen *Ikaslearen eskuliburua B baimena*. JULEN MURUA

# Hogei urtez euskarazko eskuliburuekin lanean

Pare bat hamarkadaz gaia jorratzen aritu ostean, otsailean hasiko dira euskarazko materiala bailarako autoeskoletan banatzen. Guztira, hiru eskuliburu –B; A, A1, A2; eta AM eskuliburuak– eta liburu digitalizatu bat egongo dira eskuragarri

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA

Azaroan argitaratu zen, eta, otsailaren iritsierarekin batera, bailarako autoeskoletan banatuko da *Ikaslearen eskuliburua B baimena* liburua. Bertan, autoa gidatzeko baimena ateratzeko beharrezko materiala agertzen da, eta, ia urtebetez liburua sortzeko lanean aritu ostean, gidabaimena ateratzeko prozesuan daudenek eskuragarri izango dute euskarazko material eguneratua. B baimenaren liburua eskura izateaz gain, modu digitalean ere jasoa egongo da edukia. Horrez gain, *A, A1, A2 eskuliburua* eta *AM gidabaimenaren eskuliburua* ere eskuragarri egongo dira.

Eskuliburuek bereizgarri bat izango dute, gaztelerazko liburuetan ere ez dena jasotzen; izan ere, gai bakoitzaren hasieran azalpen-bideo bat izango dute gaian zehar ikasiko dutena ezagutzeko eta, era berean, zailenak izan daitezkeen gaiak beste era batera azaltzeko.

### Material faltari erantzuten

"Udalek eta Euskara teknikariek urte askoan zehar eskatu duten zerbait" dela dio Amaia Axpek, Gidabaimenak Euskaraz proiektuaren kudeatzaileak. Duela ia hogei urte, Debagoieneko Mankomunitateak B gidabaimenaren eskuliburua argitaratu zuen, baina bospasei urteren ostean "zaharkituta" gelditu zela dio Axpek. Garai hartan autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzen zutenen kopurua gaur egungoa baino handiagoa zela dio, eta ordutik "eguneraketa egiteko eskaera" jasotzen ari direla ere aitortu du.

Gidabaimena euskaraz atera nahi zutenei ere "gazteleraz ateratzeko gomendioa" egiten zieten autoeskolek, euskarazko material duinik ez zegoelako. Gaur egungo ikasleek ere jarraitzen dute izaten azterketa euskaraz egiteko aukera, baina material falta eragozpen handia izan da haientzat.

**DUELA HOGEI URTE HASI ZIREN GAIA LANTZEN; APIRILEAN ABIATU ZUTEN SORTZEKO PROZESUA**

### Jarraipena eman beharra

"Ez dugu nahi eskuliburu hau atera eta guztia amaitzea; jarraipena eman nahi diogu". Hori da Axpek dioena aurrerantzean egin behar dutenaren inguruan. Urteko lehenengo hiruhilekoan material guztia autoeskoletara eramatea da helburua, eta Aste Santutik itzultzean sentsibilizazio-kanpaina orokorra egingo dela aurreratu du Axpek, "ikasleek autoeskoletako materiala euskaraz ikasi dezaten".

Era berean, Eusko Jaurlaritzak urteetan zehar gai horri "lehentasun eta babes handia" eman diola adierazi du, eta euskarazko materiala sortzeko erabakigarria izan dela aitortu.

## Bost euroko deskontua Eusko Label izenpeko behiki-haragietan

Debagoieneko ia herri guztietan egongo da eskuragarri deskontu-bonua; guztira, hamar harategitan

**J.M.M.** DEBAGOIENA

Kalitate ziurtatuko behiki-haragia modu arduratsuan kontsumitzea sustatzeko kanpaina jarri du abian HAZIk, *Bonokela* du izena kanpainak eta bi milioi euroko aurrekontua izango du. Ukrainako gerrak eragin handia izan du lehengaien prezioen igoeran, eta horrek, era berean, baldintzatu egin ditu elikaduraren balio-kateko hainbat jarduera. Elikadura kontsumo arduratsuaren alde egiten du kanpaina horrek, eta, horretarako, herritarrentzat eskuragarri izango dira *Bonokela* izeneko deskontuak.

### Bost euroko deskontua

*Bonokela* deskontu-bonuak kanpainan parte hartzen duten harategi parte-hartzaileetan banatuko dira, eta hango bezeroek Eusko Label bereizgarriarekin identifikatutako behiki-haragia erostean egiten duten hamabost euroko erosketa bakoitzeko bost euroko deskontua izango dute; alegia, hamar euro ordaindu beharko dituzte erosketa horietan. Kanpainak urtarrilean hasi eta ekainera bitartean iraungo du, eta hilabete bakoitzean astebetez egongo da eskuragarri; urtarrilekoa astelehenean hasi zen, hilaren 29an, eta bihar arte arte egongo da deskontuak erabiltzeko aukera –otsailak 3–. Kontsumitzaileek zuzenean euren ohiko harategietan erosketak egitean eskuratu ahal izango dituzte deskontu-bonuak, kanpaina martxan dagoen aste espezifikoetan. Eusko Labeldun behiki-okela erostean automatikoki aplikatuko zaie deskontua. Parte hartzeko, erabiltzaileek formulario erraz bat bete beharko dute bonu fisikoetan euren datu pertsonalekin, edo afiliatuen txartel komertzialak erabili beharko dituzte, horrelako txartelak dituzten establezimendu laguntzaileen kasuan.

Kanpaina ez da soilik harategietan egongo eskuragarri; izan ere, Eroski, Uvesco Taldea, Carrefour, Alcampo, El Corte Ingles eta Supercor etxeetako haragiek ere izango dituzte *Bonokela* deskontuak.

### Bailaran eragina

Deskontu-bonu horiek Euskal Herri osoan zeharreko harategietan egongo dira eskuragarri –guztira, 94–, eta horien artean, hamar Debagoienekoak dira: Aramaion, Bixente L. Azpilikueta harategia; Antzuolan, Gabilondo Arregi harategia; Arrasaten, Agirre-Etxe eta Landaluze harategiak; Bergaran, Leturia harategia; Elgetan, Barrenengua Okelak harategia; Eskoriatzan, Altuna Anaiak harategia; eta Oñatin, Garai, Jesus Odriozola eta Antxon harategiak.

**HAMABOST EUROKO EROSKETA BAKOITZEKO BOST EUROKO BEHERAPENA IZANGO DU EROSLEAK**



Eusko Label bereizgarria, Oñatiko Garai harategian. GOIENA



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

# Alerta gorria

Sare sozialak kontrolez kanpo daude. Guraso gehienok ez ditugu oso ondo menperatzen eta, hala ere, umeen eta gazteen eskuetan utzi ditugu, beraiei bideratutako entretenimendu tresna sinpleak izango balira bezala eta, kasu askotan, behar den moduko kontrol neurririk gabe.

Sare sozialetako edukiak ez dira inozoak eta helburu garbi bat dute: publizitatearen bidez dirua irabaztea. Berez, hori ez litzateke arazo bat izan beharko, betidanik egon baikara publizitateaz inguratuta telebistan, irratian, kalean... Baina sare sozialek badituzte bi ezaugarri kontuan hartzeko modukoak: alde batetik, kasu askotan, arautu gabeko publizitatea da, *influencer-ek* beraien eguneroko kontakizunetan sartzen duten publizitatea bezalakoa. Horren adibide garbi bat azala zaintzeko kremak dira. Azken bolada honetan, adin desberdinetako umeen eta gazteen azala zaintzeko kremen erabilpena pila bat igo da –*skincare*-a–, dirudienez, *influencer*-ek egiten dituzten kanpainen ondorioz. Beste adibide batzuk kirurgia estetikoa eta elikadura-dietak dira, enpresek *influencer*-ak erabiltzen baitituzte beraien produktu eta zerbitzuak promozionatzeko. Eta atzetik, betiko mezua, edertasuna argal egotearekin, granitorik ez izatearekin eta gorputz perfektua izatearekin lotuz.

**SEME-ALABAK SARE SOZIALEN ONDORIO NEGATIBOETATIK BABESTU BEHAR DITUGU**

Bestalde, sare sozialek badute beste ezaugarri nagusi bat ere: adiktiboak izateko diseinatuak daudela. Edukiak aukeratzeko algoritmo adimentsuak erabiltzen dira, erabiltzailearen jokabidean oinarrituta, beretako interesgarrienak diren edukiak aukeratzen dituzte, eta modu pertsonalizatuan eskaintzen dizkiote. Zuzenean bere burmuinera. Horrela, erabiltzaileek orduak eta orduak pasatzea lortzen dute eta horri esker publizitatearen diru sarrerak handitzea lortzen dute.

Beraz, uste dut badugula lana: erakundeek, sare sozialetako publizitatea arautzen; eta gurasook, gure seme-alabak sare sozialen ondorio negatiboetatik babesten, heziketaren eta kontrolaren bidez –nagusienen kasuan, autokontrola–.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA




HANDIK ETA HEMENDIK

## Demasekoa

GOIZALDE LANDABASO

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/RQQNJ

Espainiako irrati pribatu batean kirolari buruzko adierazpenak egin ditu David Trueba idazle eta zinemagileak.

Ez dakit ezagutzen ote duzun, baina kirolzalea dela esan diezazuket, eta, zineman eta literaturan ere, gauza interesgarriak egin dituela. Askoren buruan dagoena, alegia, munduko toki askotan dagoen meloia hartu eta erdi bi egin dituela mahai gainean eztabaidarako gaia utziz: kirolak egun demaseko denbora eta espazioa betetzen du gizarte hauetan. Asko poztu nau kirolzalea den norbaitek esateak, kirolzale ez garenok marra aspaldi gainditutzat ematen baitugu.

"Nik uste dut kirola ari dela hedabideetako orduak eta orduak eta orduak eta orduak betetzen. Demasekoa eta itzela da. Kirola oso osasuntsua da, baina dagoeneko, lar da".

Ez dira nire berbak, kirolzale eta kirolen gainean asko idatzi duen David Truebarenak dira.

Zinemagile eta idazleak uste du neurririk ez duen etekin ekonomiko handiko negozioa dela kirolarena, eta horrek dena irentsi duela, baita gauza garrantzitsuak ere. "Dena oso zoroa da", dio zinemagileak. Entzuten ari nintzaiolarik pentsatzen nuen kirolzale batek hori uste izatea marka dela, gero.

Atera kontuak kirolzale ez den batek zer pentsatuko duen kirola guztiaren gainetik zapaltzaile erraldoi bat bezala pasatzen denean.

Agian unibertsitateko norbaitek azterketa sakonagoa egingo du, noizbait; eta beharbada, gizarteko soziologian izandako eragina azalduko dute.

Are gehiago, baliteke balioetan ere izandako aldaketak aztertzea.

Ez dut uste David Truebak ateratako ondorioetatik oso urrun egongo direnik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

# "Klima aldaketak eragin zuzena du osasun globalean"

## **GORKA ORIVE** FARMAZIAN KATEDRADUNA, IKERTZAILEA ETA DIBULGATZAILEA

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE
Farmazian doktorea eta katedraduna, EHUko irakaslea, ikertzailea eta dibulgatzailea da Gorka Orive (Gasteiz, 1976). Goienagusik antolatuta, Arrasaten izan da astean, klima aldaketak osasunean duen eraginaz hitz egiteko.

**Gaur egun osasun-mehatxuen %75 inguru animalien mundutik datozela diozu; ez dira asko?**
Gaixotasun infekziosoez ari naiz. Gaur egun eragiten diguten eta etorkizunean eragin diezaguketen gaixotasun askok animaliekin dute zerikusia. Oro har, animalien bidez transmititu daitezke, bai zuzenean, bai artropodo baten bidez –eltxo edo kapar–. Gure bizimodu antropogenikoak eta espazio naturalak inbaditzeko dugun gaitasunak hori areagotuko du. Koronabirusa, hegazti gripea, hiesa, tuberkulosia, malaria, dengea... dira horietako batzuk.

**Nola eragiten du klima aldaketak?**
Hainbat modutan. Esaterako, frogatuta dago gehiegizko beroak gehiegizko heriotza-tasa eragiten duela. Estatistiken arabera, gehiegizko bero horren ondorioz 5.000 pertsona hil ziren iaz Espainian. Baina




Gorka Orive, astelehenean, Arrasaten, Goienagusiren berbaldian. IRATI CONCEPCION

tenperaturen igoera horrek patogeno horien presentzia eta hedapena aldatzea ere eragiten du. Adibidez, badira patogeno jakin batzuk –birusak eta bakterioak– beroa atsegin duten artropodo batzuetan bizi direnak. Beraz, bero handiagoa badugu, artropodoak gertuago izango ditugu. Probabilitate kontua da. Gure basoak artropodo gehiagoz betetzen badira, adibidez, kaparrez edo eltxoz, errazagoa izango da gu pikatzea.

**Medikamentuekiko erresistentziak ere badu klima aldaketarekin zerikusirik?**
Klima aldaketa bezala, erresistentziak ere badira planetan. Gure historian beroaldi eta glaziazio zikloak gertatu dira, eta antibiotikoekiko erresistentzien kasua ere milaka urtetako borroka da. Orduan, galdera da: guk ez dugu zerikusirik? Bai, noski. Zientziak esaten duena da klima aldaketa eta medikamentuekiko erresistentzia bizkortzen ari direla, gu sortzen ari garen inpaktuagatik. Oso denbora laburrean aldaketa handiak ikusi dira.

**Egoera honetan, baikor izatea zaila da?**
Nik positiboa eta eraikitzailea izan nahi dut, eta horixe transmititu nahi izan dugu argitaratu dugun *Salud global* izeneko liburuan. Liburu horrek ikuspegi hori eman digu, eta, nahiz eta datuak oso lasaigarriak ez izan, pentsatu nahi dut gizakiak ikerketaren, berrikuntzaren eta aurrerapen teknologikoaren bitartez irtenbideak bilatuko dituela. Egia da ez dela erraza, ekonomiak agintzen duen eta gauzak luzatzen diren mundu batean bizi garelako.

**Zer prebentzio-neurri dira eraginkorrenak gaixotasun zoonotikoak ez hedatzeko?**
Asko izan daitezke. Lehenik eta behin, gutxiago kutsatzen saiatu behar dugu, ez baikara planeta honen jabe. Kutsadura kimikoa, farmazeutikoa, airearen kutsadura, $CO_2$... Hori guztia da planeta kutsatzen dabilena, eta horregatik da garrantzitsua osasun globalaren kontzeptu hori.

**Farmaziak eta ikerketek nola lagun dezakete klima aldaketak animalien eta gizakien osasun publikoan dituen inpaktuak arintzen?**
Arazoa prebenituz eta tratatuz. Adibidez, sendagaiek eragindako kutsadurari dagokionez, zenbat eta bizimodu osasungarriagoa izan, orduan eta sendagai gutxiago beharko ditugu. Jende askok gaizki jaten du, ez du ariketarik egiten, eta, horrela, gaixotzeko aukera guztiak dituzu. Gaizki bazaude eta botikak hartzen badituzu, zentzuz erabili; etxean botikarik baduzu, birziklatu botiketan. Bestetik, hondakin-urak garbitzeko tratamenduak garatzen saiatu behar dugu, ingurumenera iritsi aurretik garbi dadin. Eta medikuntza berdeagoarekin amestu. Biodegradagarriagoak edo ingurumenarekiko sentikorragoak diren sendagaiekin.

**Ez dirudi bide erraza...**
Bidea zaila da, baina Europan dagoeneko hasi dira hondakin-urei eta uraren esparruari berari lotutako zuzentarauak proposatzen, eta, horren ondorioz, ibaietan kimikoen presentzia neurtzen hasiko dira. Horrela, araztegiei eskatuko zaie hemendik 15-20 urtera produktu gehienak garbitzeko. Europa saiatuko

**"DATUAK EZ DIRA LASAIGARRIAK, BAINA POSITIBOA ETA ERAIKITZAILEA IZAN NAHI NUKE"**

**"PATOGENOEN PRESENTZIAN ETA HEDAPENEAN ALDAKETAK EKARRI DITU BEROAK"**

TXOKOTIK ZABALERA

**UNAI GAZTELUMENDI**



# Santa Ageda abesbatzak bermatuta du etorkizuna

Otsailaren 5ean da Santa Ageda eguna, eta, urte luzeetako ohiturari jarraituz, bezperan kantuan egitera aterako da abesbatza; modu horretan, iaz hasitako bidea egonkortu egingo dute gazteek, belaunaldiarteko transmisioaren sustraiak eta oinarriak finkatzeko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Santa Ageda abesbatzak bermatuta du etorkizuna. Hain zuzen, hori irudikatzeko prentsa agerraldia egin dute abesbatzako beteranoek eta taldera batu diren gazteek, udal ordezkarien laguntzarekin. Eider Garro, Amaia Agirre eta Leire Etxezarreta izan dira gazteen ordezkariak, eta azken horrek nabarmendu du pozez hartu dutela erreleboa. "Egia da orain arte, kanpotik, urruneko zerbait moduan ikusi izan dugula Santa Ageda abesbatza. Hala ere, iaz hamar bat gazte animatu ginen tradizio hori barrutik ezagutzera, eta oso ondo joan zen eguna. Hori ikusita, aurten deialdia zabaldu dugu eta 30 gazte izango gara. Urteek aurrera egin ahala, erreleboa hartzea komeni da, eta pozik gaude horren parte izateagatik". Gaineratu du funtsezkoa dela herriko ohitura kulturalen jarraipena bermatzea.

Juan Bautista Agirre abesbatzako kide beteranoa ere hunkituta azaldu da: "Abesbatzako kide gehienok adin nagusikoak gara, eta bada garaia gazteek erreleboa hartzeko. Zortez, hirugarren belaunaldiko gazteak etorri zaizkigu, eta talde moduan, gainera. Beraz, etorkizuna bermatuta dagoela esango nuke".



Atzo egin zuten prentsaurrekoa abesbatzako kideek eta udal ordezkariek. J.M.M.

**Helburu solidarioekin kantuan**

Aspalditik datorren tradizioaren berri eman du Agirrek, eta, era berean, tradizioak berak izandako eboluzioaz ere hitz egin du: "Badirudi, hasiera batean, Santa Ageda egunean bertan, otsailaren 5ean, egiten zela kantu-eskea, eta egunaren amaieran egiten zuten afarirako baliatzen zutela diru kantitate hori. Baina 1955. urte inguruan, parrokiako abesbatzatik abiatutako koruak kantu-eskea egun bat aurreratu, eta bezperan ateratzea erabaki zuen. Gainera, helburu bat jarri zioten kantu-eskeari: egunean bildutako dirua ospitaleak zituen beharrei erantzuteko izango zela".

Gaur egun, oraindik ere, bezperan irteten dira kalera, eta helburu solidarioekin abesten jarraitzen dutela azpimarratu du abesbatzako kideak. "Bildutako diru guztia behartsuenei dohaintzan ematen zaie. Modu horretan, laguntza eta elkartasun ariketa bat izateaz gain, kaleak girotu eta euskal kantuez gozatzeko aukera dugu, eta tradizioa bizirik mantentzen dugu".

**Udaletxeko harrera, 14:00etan**

Maider Morras Arrasateko alkatea eta Andoni Arratibel Kultura zinegotzia ere pozik eta eskertuta azaldu dira "belaunaldiartekotasunaren transmisio kulturala bermatuko duen" ekimenarekin. "Iaz hamar gazte aritu ziren kantuan eta aurten 30 izango dira, emakumeen presentziarekin, gainera, eta hori oso garrantzitsua da guretzat", azaldu du alkateak. "Hazia jarrita dago, eta jarraipena ematea baino ez da falta. Ea urtez urte geroz eta gazte gehiago batzen diren", gehitu du.

Era berean, ohiturari jarraituta, abeslariei harrera egingo die Udalak. 14:00 inguruan helduko dira udaletxera eta sarrerako eskaileretan egingo dute kantuan. "Aurten, gainera, udaletxeko ateak zabal-zabalik izango ditugu, nahi duen herritarrak bertaratzeko aukera izan dezan. Oso hunkigarria izango da ikustea antzinako ohiturak gaur egungo gazteriarekin nola uztartzen diren", dio Morrasek.

**Instagram kontu bat ere badute**

Aurten 30 gazte batuko badira ere, gehiago izatea da helburua, eta Etxezarretak nabarmendu du ate guztiak zabalik dituztela. "Ekimen herrikoia da, askotariko herritarrak elkartzen dituena, eta edozein batu daiteke, noski". Hala, gogorarazi dute Instagramen kontu bat ere badutela: *@mondrageda*.

**IAZ HAMAR GAZTE IRTEN ZIREN BETERANOEKIN BATERA; AURTEN, 30 GAZTE IZANGO DIRA**



1960ko hamarkadan, David Arzamendik zuzendutako abestaldea. J.M.V.M.

## Santa Agedari abesten, elurretan

Arrasate irratiko *Hala dio argazkiak* saioan, Santa Agedako abesbatza izan du berbagai asteon Josemari Velez de Mendizabalek, 1960ko hamarkadako argazki hori ardatz hartuta. Saio osoa, hemen: *goiena.eus/irratia/hala-dio-argazkiak*.

## Bide-segurtasuna hobetzeko premia dagoela dio EAJk

Arrasateko EAJk uste du bide-segurtasuna hobetzeko premia dagoela Arrasaten, "berriki izandako harrapatzeak" ikusita. "Abenduaren 4an, Maiatzaren Bata plazako oinezkoen pasabidean; abenduaren 15ean, Arrasate pasealekuko oinezkoen pasabidean, Arizmendi ikastetxearen ondoan; eta urtarrilaren 24an, Elmako biribilgunean, herriko gazteei kalte larriak eragin dizkietenak". Horiekin lotuta, "kezka sakona" azaldu dute jeltzaleek, eta "udalerriko bide-segurtasunaren aldeko konpromisoa berretsi" dute.

Halaber, Udal Gobernuari eskatu diote "beharrezko ekintzak lehenetsi eta arindu" ditzan egoera hori konpontzeko. "Piboteak berehala berrezartzeko eta radarrak suspertzeko eskatzen diogu Gobernuari, trafikoa antolatzeko eta istripuak prebenitzeko funtsezko neurri gisa".

## 'Habitat' erakusketa herriko ikastetxeetan egongo da ikusgai

Nabarraldek eta Zuztarrak Errotuzek, Udalaren laguntzarekin, *Habitat. Giza habitat ezkutatua* erakusketa antolatu dute ikastetxeei begira. Hala, otsailaren 6tik 9ra Arrasateko Institutuko eta Arizmendiko Gaztelupe guneko areto nagusietan egongo da ikusgai eta Beñi Agirrek azalpenak emango dizkie DBH-ko 4. mailako hamar talderi.

"Erakusketak gure historiaren mugarri garrantzitsuenak aztertzen ditu, Euskal Herriko historiaren gakoak eskainiz: euskaldunen habitata eta lurraldetasuna, mugarri izan diren datak, pertsonaiak eta gertaera garrantzitsuak, modu grafiko argi eta atseginean kontatuak", azaldu dute antolatzaileek.

Bukatzean, iaz bezala, balorazioa eskatuko diete, eta, positiboa bada, ikastetxeekin adostuta jarraipena emango liokete jarduerari datorren urtean ere.

## Gazteluondo kalean trafikoa moztuko dute gaur, 18:00ak arte

Arizmendi Ikastolak Gaztelupe gunean egin behar dituen eraikuntza-lanak direla eta, trafikoa moztuko dute 08:00etatik 18:00ak arte. Era berean, alde zaharreko zuntz optikoa hedatzeko lanak direla eta, Iturriotz kalean ezingo da ibilgailuz mugitu otsailaren 23ra arte. Bi kasuetan, itxitako eremua seinaleztatzeko hesiak jarri dituzte.



Emakume migratuen gunea, Emakume Txokoan, 2022an. EMAKUME TXOKOA

# Emakume Txokoak prest dauka egitarau berria

Jabetze Eskolako plangintzan egongo diren iraupen luzeko hamaika ikastaroez gain, bi ikastaro labur ere eskainiko dituzte, "trinkoagoak" direnak. Otsailaren 5etik 9ra eman ahalko da izena, 'arrasate.eus' webgunean edota Emakume Txokoan bertan

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Hogeigarren urteurrena ospatu ostean, lanean jarraitzen du Emakume Txokoak. Hala, besteak beste, formakuntza eta topagunea ardatz dituen emakumeentzako Jabetze Eskolan konfiantzazko guneak eskaintzen jarraitu nahi dute, "elkar irakurriz, zainduz eta aktibatuz".

Hainbat gai eta lan-ildo izango dira eskolan hiruhileko honetan. "Emakumeon* autonomia eta parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko bitartekoak eskuratuko ditugu; osasunari, zaintzari, sormenari, kulturari… lotutako hainbat gai landuko ditugu gure bizitzetako eta inguruneko esparruetan eragiteko, ikuspegi feministatik; finean, hausnarketa feministetan sakondu, eta ahalduntze pertsonala eta kolektiboa landuko ditugu", nabarmendu dute.

**Askotariko tailerrak**

Besteak beste, aukera egongo da emakume filosofoen ekarpena ezagutzeko, filosofian aditu Marisa Hurtadoren "ikastaro berri interesgarri" batekin. Era berean, gorputz paisaia ere landuko dute, Alba Fernandez dantzariaren "proposamen berritzailearekin".

Emakume Txokotik aipamen berezia egin nahi diote haurren kontrako sexu indarkeriaren inguruan gogoeta proposatzen duen tailerrari. Apirilean egingo duten gune horretan, gaian sakondu ahal izango dute Maitane Urizar Elorzarekin: "Nondik abiatzen da indarkeria mota hau? Zein da gaur egungo egoera Euskal Herrian? Zer egin genezake horrelako egoera batekin topo egiten badugu?".

Bestalde, Mejilon Tigre kolektiboko kide Ane Garciak hitza eta sormena pizteko tailerra eskainiko du maiatzean.

**Gune iraunkorrak ere, martxan**

Otsailarekin batera abiatuko duten beste ekimen bat Jabetze Eskolako gune iraunkorra da. "Parte hartzen duten kideek irakurketa feminista zerrenda interesgarria osatu dute", diote. Era berean, emakume migratuek ere izango dute tailer berri bat, Loratzen izenekoa, Marisol Abreurekin, "haien artean elkartzeko, eta lanketa pertsonala eta kolektiboa egiteko".

**Zinema Berbaldi Feministak**

Egitarau orokorrean, Arantza Santestebanek gidatuko duen zinema ziklo bat jarriko dute martxan: Zinema Berbaldi Feministak. "Zinemaren bitartez hausnarketa feministak egingo ditugu hainbat gairen inguruan. Filmak harribitxiak izango dira, denon eskura, doan, Kulturaten areto nagusiko bi saioetan. Adi, hortaz, ziklo horretan eskainiko diren filmei eta horien inguruan izango ditugun aurkezpenei eta solasaldiei".

**Martxoaren 8ak, bere egitaraua**

Egitarau orokorrean txertatu dute Martxoaren 8ko egitaraua ere. Zerrenda horretako hainbat ekintza, gainera, jakinarazi dituzte. Batetik, emakume baserritarren eta ekoizleen azoka egingo dute martxoaren 9an. "Bestetik, bi liburu aurkezpen ere izango ditugu, eta ekimen horietan aukera izango dugu feminismoaz, literaturaz eta zaintzaren gaiez solas egiteko".

Aurrez, ordea, Bertha Gaztelumendik eta Rosa Zufiak *Arnas betean* filma aurkeztuko dute Amaia antzokian, eta hausnartuko dute emakumeek zinemagintzari egindako ekarpenaren inguruan. Udaleko Kultura Sailaren laguntza duen ekimena da azken hori.

**ZINEMA-ZIKLO BAT JARRIKO DUTE MARTXAN, ARANTZA SANTESTEBANEK GIDATUKO DUENA**

## Zortzi emakumeren testigantzak batzen dituen lana, argitara

'Tortura Arrasaten, genero ikuspegitik' izeneko liburua aurkeztuko dute otsailaren 14an, Kulturaten, 18:30ean

**E.A.B.** ARRASATE

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatuta, Arrasateko zortzi emakumeren testigantzak jasotzen dituen liburua aurkeztuko dute Kulturateko areto nagusian hilaren 14an. Juan Ramon Garaik, Nekane Ayensak eta Iñaki Barrutiak ondu dute liburua. "Haien bizipenak entzun ditugu, eta, adierazpen-paragrafo batzuk aukeratu ostean, gorpu teoriko bat osatu dugu testigantzak kokatzeko", azaldu dute.

Argi dute torturak generoa duela. "Emakumeak torturatu dituzte era fisikoan, psikologikoan eta sexistan. Estatuko botereek agerian uzten dituzten laidoen, beldurraren eta larderiaren deskribapen lotsagabeak ematen dituzte askatasuna kendu dieten emakumeei egindako elkarrizketek", diote, eta zera gaineratu dute: "Tortura-ekintzak hasten dira, askotan, arbitrarioa den atxiloketaren unean bertan, eta denbora asko behar izaten da atzipenetik epailearen esku jarri arte. Atzerapen horrek eraso fisikoak, psikologikoak eta sexualak errazten zituen".

**Testigantzak, idatzita**

Sexu-izaerako tortura gehienak ez dira salatzen, Garaik, Ayensak eta Barrutiak diotenez, "salaketa erregistratzeaz arduratzen diren agintariak tortura berorretan inplikatutako parte" direlako. "Estamentuak, medikua, juridikoa eta poliziala, bat etortzea oztopo bat da salaketa egiteko edo eraginkorra izateko. Izaera sexualeko torturek, batzuetan, ez dute arrasto edo zeinu fisikorik uzten, eta horrek zaildu egiten du tortura horien existentzia agerian uztea; haien kaltea, funtsean, psikologikoa da, eta torturatuaren testigantzan oinarritzen da, eta horrek zaildu egiten du tortura hori aitortzea", azpimarratu dute. "Guk benetako justizia lortuko dugu? Ez dakigu, baina, badaezpada, dena idatzita utziko dugu".



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

## Autobusen abiaduraz

Ze azkar doazen autobidean zein herrian… ikaratzeraino, zebrabidean zain zaudela… presaka, erlojuaren kontra balihoaz ere.

Gero eta bus gehiago dago, mugikortasunaren mesedetan. 50 pertsonako autobusak, gidari bakarreko 50 auto ordezkatzen ditu, eta egin kontu…

Baina badago zer hobetu. Bidaia-txartelak online erosteak lehentasuna du autobusera igotzerakoan, Mugi eskuetan izanda ere… Eta lekurik ez badago, espaloian utziko zaitu txoferrak.

Roneoko geltokian egoten diren 40 lagunentzako goizerokoa da hori, lanerako edo unibertsitaterako funtsezko garraioa izan arren espaloian gelditzen baitira batzuk, leku faltagatik.

Nonbait, ez zaizkio kontuak ateratzen enpresari bi autobus edo handiago bat antolatzeko. Bestalde, Gasteizera autobidetik zutik joateko aukera ematen dute… segurtasun-uhalik barik!

Autobusak ez al lirateke irabazi asmo gabeak izan beharko, publikoak, guztiontzako, funtzioz eta ekonomiaz, eta, bide batez, sarriago-edonora eskaini? Prentsaurrekoak aldiro eman baino gehiago, zer nora begiratu badago!

# Lau eguneko egitaraua Inauteriak ospatzeko

Inauterietako kartela eta egitaraua aurkeztu ditu Arrasateko Udalak, eta askotariko ekintzak izango dira otsailaren 9tik 13ra arte; 21.608 euroko aurrekontua izango dute jaiek, eta Udalak indartu egingo du garbiketa zerbitzua ospakizun egun horietan

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Iaz kuadrilla onenaren saria jaso zuen taldeko ordezkariak, Andoni Arratibel Kultura zinegotzia, Izaro Sanchez kartelaren egilea eta Iñaki Gurrutxaga *Harristi* batzordeko kidea izan dira Inauterien aurkezpenean. Arratibelek azaldu duenez, lau eguneko egitaraua izango da aurten. *Harristi*-k nabarmendu du urtez urte indarra hartzen ari den jaia dela Arrasaten. "Ea eguraldiak laguntzen digun eta herria jaian murgiltzen den. Urtetik urtera geroz eta indar handiagoa ikusten da, eta ea aurten ere hori ikusten dugun".




Eguaztenean aurkeztu zituzten Aratusteetako kartela eta egitaraua, Biterin. E.A.B.

### Zapatuan mozorro lehiaketa

Zapatua, otsailak 10, "egun handietako bat" izango da. Biteriko pregoiak emango dio hasiera desfileari, 12:00etan, eta Herriko Plazan amaituko da; han banatuko dituzte mozorro lehiaketaren sariak; guztira, bost sari: kuadrilla onenari, karroza onenari, kuadrilla gazte onenari, taberna onenari eta bakarkako mozorro onenari. "Mozorro lehiaketan parte hartzeko baldintza bakarra desfilean parte hartzea izango da", azaldu du Kultura zinegotziak. Epaimahaiari dagokionez, aurreko urtean kuadrilla onenaren saria jaso zuen taldea izango da.

Sariei dagokienez, honako hauek izango dira: kuadrilla onena –urdaiazpikoa, plaka eta 1.000 euro–; karroza onena –urdaiazpikoa, plaka eta 500 euro–; kuadrilla gazte onena –urdaiazpikoa, plaka eta 300 euro–; taberna onena –urdaiazpikoa, plaka eta 300 euro– eta bakarkako mozorro onena –garaikurra, gazta eta 150 euro–.

### Kartela, Izaro Sanchezena

Inauterietako kartel lehiaketaren irabazlea, beste urte batez, Izaro Sanchez aretxabaletarra izan da. "Inauterietako saltsa erakusteko, saiatu naiz kolore oso biziak erabiltzen. Halaber, Arrasatek Inauteriak bizi dituela erakusteko, herriko eraikin esanguratsuenei begiak jarri dizkiet. Hala, kartelak islatzen du herri osoak gozatuko duela festaz".

### Sardina-ehorzketa plazan

Egitaraua borobiltzeko, martitzenean hainbat ekintza egongo dira, eta nabarmentzekoa da, urtero moduan, sardina-ehorzketa egingo dutela Herriko Plazan, 21:00etan hasita.

## Aratusteetako egitaraua

**Otsailak 9, egubakoitza**
**18:30** Arrasate Musikalen ikasleen kontzertua, Amaia antzokian.

**Otsailak 10, zapatua**
**12:00** Pregoia. Ondoren, desfilea.
**13:00** Mozorro lehiaketaren sari banaketa, Herriko Plazan.
**18:00** Arrasate Musikaleko txarangaren kale animazioa.
**19:30 eta 22:30** Bide Batez taldearekin dantzaldia, plazan.

**Otsailak 11, domeka**
**19:30** *Esnearen kolorekoa* antzezlana, Amaian (Tanttaka).

**Otsailak 13, martitzena**
**17:00** Disko festa Biteri plazan, Txatxilipurdirekin.
**17:00** *Azken festa* pailazo ikuskizuna, Amaia antzokian (Tomaxen Abenturak).
**17:30** Samasiku txarangaren animazioa, herriko kaleetan.
**18:30** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.
**19:30** Disko festa Nemux taldearekin.
**21:00** Sardina-ehorzketa. 20:30ean Kulturolatik abiatuko dute desfilea, eta plazan bukatu. Gero, disko festa, Nemux taldearekin.

# Musakolako institutuko patioan abiatuko dute ludoteka ibiltaria

Txatxilipurdik, urtero moduan, ludoteka ibiltaria egingo du, otsailetik maiatzera, zapatuetan, 11:30ean hasita

**E.A.B.** ARRASATE

Aurten ere Musakolan hasiko du ibilbidea ludoteka ibiltariak, baina elkargune berria izango du auzo horrek; izan ere, institutuko patioan batuko dira. "Hezitzaileen laguntzarekin eta askotariko material zein baliabideak parte hartzaileen eskura jarriz, bi orduz ludotekaz gozatzeko aukera egongo da", azaldu dute Txatxilipurdiko kideek.

3 eta 12 urte arteko haurrek eta aurrenerabeek parte hartzeko aukera izango dute ekimenean, baita haien arduradun edo gurasoek ere. "Ekintzak parte hartzaileekin batera adostu eta denen gustukoak antolatzen saiatuko gara", nabarmendu dute. "Aisialdi hezitzaile euskaldunaz gozatzeko aukera paregabea da ludoteka ibiltaria. Parte-hartzaileei sormena garatzeko, harremanak egiteko, parte-hartzea sustatzeko, naturarekin harremanak egiteko eta beste hainbat helburu hezitzaileri bide emanez".

Musakolan otsailaren 3an, 17an eta 24an egongo dira; San Andresen, martxoaren 2an, 9an, 16an eta 23an; eta Erguinen, apirilaren 13an, 20an eta 27an eta maiatzaren 4an.

Azkenik, azpimarratu dute parte-hartzea librea izango dela: "Askatasunez jolas egiteko gunea eta laguntza eskainiko da; betiere, euskaraz!".

### Familian Jolasean ere bai

Txatxilipurdik, halaber, martxan du Familian Jolasean ekimena ere, 0-8 urte arteko haurrentzat. Otsailaren 4an, 11n eta 18an, Okendoko ludotekan emango dute zerbitzua, 17:30etik 19:30era; eta otsailaren 25ean, aldiz, Santa Marinako ludotekan.

## Ane del Fresnok errekorra ondu du berriz 60 metrokoan

Atletismoko Gipuzkoako txapelketa absolutua jokatu zuten joan den asteburuan Anoetako belodromoan, eta Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak ere han izan ziren. Esan behar da, gainera, emaitza txukunak erdietsi zituztela arrasatearrek. Esaterako, Ane del Fresnok lortutako marka nabarmentzekoa da; izan ere, Arrasateko errekorra ondu du berriz 60 metroko proban: zortzi segundo eta hamarren bat (8,01). Horrez gain, taldeko beste hainbat atletak marka pertsonalak hobetu zituzten: Danel Ruizek, 60 metrokoan (7,39); Aitor Gallegok, 400 metrokoan (53,91); Maia Etxebarriak eta Oihan Zuluetak, 200 metrokoan (26,86 eta 23,00, hurrenez hurren); eta June Kortazarrek, 800 metrokoan (2.35,70).

Asteburu honetan Gipuzkoako 16 eta 18 urtez azpiko txapelketak jokatuko dituzte, Anoetan.

## Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeak 150 gimnasta ditu aurten

Bihar, zapatua, ekingo diete gimnasta arrasatearrek 2024ko txapelketei eta erakustaldiei, Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Gipuzkoa osoko gimnastak elkartuko diren amateur mailako txapelketaren lehen fasean ariko dira Dragoikoak (Ikus 22.orria). Azpimarratzekoa da 150 gimnasta ariko direla aurten taldean.

## OHARRAK

### Hitzaldia Kulturaten

Jessica Rodriguezek *Substantzien kontsumoa. Zer egin dezake familiak?* hitzaldia egingo du hilaren 6an, 18:00etan, areto nagusian.

### Asanblada irekia

Denon Bizitzak Erdigunean plataformak deituta, asanblada irekia egingo dute otsailaren 7an, Etxaluzeko Solozar aretoan, 18:30ean.

# ELKARLANEAN ERAIKITAKO ESKOLA ANITZA




**ARRASATE HERRI ESKOLA**

**ATEAK ZABALIK:**
Otsailaren 6an, 16:25etik 18:25era bitartean
Musakolan, Bedoñaben eta Erguinen.

**HITZORDUA HIRU ERAIKINETARAKO HARTZEKO:**
zuzendaria@arrasatehe.eus

**ARRASATE INSTITUTUA**

**ATEAK ZABALIK:**
Otsailaren 7an, 18:00etan
Institutuan

Otsailaren 8an, 17:00etan
Aramaion

**ARRASATE**

Bideoa ikusgai:

# Isilpean gogor egindako lanak argia ikusi du

Trumans taldeak taldearen izen bera daraman eta, aldi berean, bere estudioko lehen lana dena kaleratu berri du. Arrasateko Shot! estudioan grabatuta, "gustura" eta "pozik" daude egindako lanarekin; estreinua Antzuolan izango da, hilaren 17an

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE

Sei urte egin zituzten "lozorroan" Trumans taldeko kideek. Lokalean murgilduta musika estilo berriak probatzen eta abesti berriak sortzen aritu ziren, berriz eszenatokietara itzuli baino lehen. Itzuleratik, kontzertuez gain, lanean jarraitu dute, eta orain, lan horren fruituak batu dituzte kaleratu berri duten estudioko lehen lanean. "Abestiak sortuta zeuden, ez dira egun batetik bestera etorri. Berriak egiten ere bagabiltza, baina ez dakigu noiz iritsiko diren; beraz, erabaki genuen orain arte egindakoa disko batean ondo irudikatzea", dio Cristian Coellok, taldeko kideak. Nola ez, emaitzarekin "oso gustura" gelditu direla ere aitortu du. Diskoaz gain, ikus-entzunezko txiki bat ere kaleratzekoak dira, estudioko prozesua nola izan den erakusteko.



Trumans taldekoak, estudioan, grabaketa lanetan. TRUMANS

### Shot! estudioan grabatuta

Etxean grabatzeko erabakia hartu zuten; hain zuzen, itxi berri duten edo jabez aldatuko duen Shot! estudioan. "Ni San Andresen jaioa naiz, eta toki historikoa da Shot! Orain, agur esan duela ikusita, oso berezia izan da gure lehen lana han grabatu izana", aitortu du taldeko gitarra-joleak.

Era berean, lehen aldia izan da harentzat eta taldeko Gorka Aranbarrirentzat estudio batean lanean aritu direna: "Orain arte lokalean ibili gara, guztiok batera. Hasieran, estudiora sartzeak bertigo apur bat ere ematen zigun. Zu bakarrik zaude bertan, eta, nahiz eta errepikatu daitekeen, grabatutakoa diskora doa, eta hori ere ikaragarria da".

### Kalitateari garrantzia

Lan berria lau abestik osatzen dute, baina Trumans taldekoek entsegu lokalean dihardute etengabe abesti berriak sortzen. Oraingoan, ordea, kalitatea bermatu gura izan dute. "Nik kalitatea nahiago dut kantitatea baino. Ondo elaboratutakoak dira, eta horiek ondo islatu gura genituen", adierazi du Coellok.

Diskoari dagokionez, lehengo punk doinuetatik rock eta blues doinuetara igaro ziren euren itzuleran, baina Coellok ez dio jarri gura izan "etiketa" bat lanari: "Egia da rock doinuak dituela diskoak, blues zertzeladekin, eta baita punk ukituekin. Horregatik, nahiago dut jendeak entzun dezala eta erabaki dezala zer den". Estiloak estilo, diskoak, gainera, Antton Carreteroren kolaborazioa ere badauka, *El Camino* abestian.

**LAN BERRIAREN ESTREINALDIA ANTZUOLAKO GAZTETXEAN EGINGO DUTE, HILAREN 17AN**

### Estreinaldia, Antzuolan

Labetik atera berri dute euren lehen lana, eta plataforma digitaletan entzungai dago jada, baita diskoa fisikoan eskuratzeko aukera ere, taberna hauetan: Equs, Dublin, Iluntz, Osorik, Taupa eta Irati; edo, bestela, Instagram kontura idatzita, 5 euroren truke. Baina zuzenekoen parekorik ez dago, eta data batzuk ere argitu dituzte. Diskoa kaleratu berritan emango duten lehen kontzertua Antzuolako gaztetxean izango da, hilaren 17an, Hankaz Gora taldearekin batera. Horrez gain, maiatzaren 1ean San Andresko jaietan ere Trumansekin gozatzeko aukera izango dute musika-zaleek.

Euren estudioko lehen lanaren aurkezpen ofiziala, berriz, Arrasaten eta Oñatin egin gura dute, bi herrietako kideek osatzen baitute taldea. Oñatikoak badu data, maiatzaren 3a, Antixena gaztetxean. Arrasatekoak, ordea, ez du oraindik egunik, baina Coellok aurreratu du zerbait berezia egin gura dutela: "Arrasateko kontzerturako, taldeko kideen ibilbide musikalean eragina izan duten pertsonak gonbidatu nahi ditugu; berezi egin nahi dugu egun hori. Oraindik, ordea, ez dakigu non eta noiz egingo dugun".

## 'Shine' ikuskizuna domeka arratsaldean Amaia antzokian

10 urteko ibilbidea duen Lasala dantza garaikideko konpainiaren emanaldia da; 19:30ean hasiko da

**I.B.K.** ARRASATE

Dantzaren eta artearen zaleek hitzordua dute domekan (19:30) Amaia Udal Antzokian. Hamar urteko ibilbidea duen Lasala konpainiak iazko azaroaren 5ean estreinatu zuen Victoria Eguenia Antzokian *Shine* ikuskizuna, eta orain, Arrasatera iritsi da. Sarrerak jada salgai daude Amaia Udal Antzokiaren webgunean eta leihatilan, 10 euroren truke.

### Hainbat helburu

*Shine* lana 50 minutuko ikuskizun fisikoa da, eta, estasia eta gorputzaren martirioa ikertzen ditu. Martirio hori zaharkitutako elementutzat du bizi garen gizarte turbokapitalista honetan. Tekno musikaren zalaparta burrunbatsuak eta zertan sinetsi bilatzen dutenen saetek zoratuta, zortzi gorputz estasiaren arrakastapera erortzen dira –estasia funtsezko droga baita enpatiarik gabeko munduan ibiltzeko–, eta gure orainak zuzendutako koreografia lantzen dute: erritual berriak, zenbait kultu grinatsu eta asmatutako erlijioak hartu beharra.

Era berean, ikuskizuna askotariko harremanen esplorazio bat da, askatasuna dei daitekeenaren mugen gainekoa. Gorputzaren objektualizazioan, diskurtso espiritualean, epe laburreko ibilbidean eta inperfekzioaren edertasun naturalean zehar egiten den eguneroko bidaia sutsua eta ziklikoa. Aldaketa eta eraldaketan *spoken worde*-an. Esperientzia hori dantzaren kodeetan, *spoken-word*-ean, soinuan eta eszenaratze baten distiran oinarritzen da. Eszenaratze horretan, zazpi interpreteren gorputzek gizarte/linbo horren distirak eta irudipenak islatzen dituzte, eta gure nortasuna definitzen saiatzen dira.

### Hamarkada bat

Lasalak, Judith Argomanizek zuzendutako dantza garaikideko konpainiak, 10 urte bete ditu. Sortu zenetik hizkuntza propioa sortu du, oso fisikoa, non zehaztasunak eta teknikak distira egiten duten, dinamikoa, indartsua, egungo garaietara egueratua, eta modako, zinemako, argazkigintzako eta diseinuko azken joerek eragina duten sorkuntzetan. Ibilbide bizi eta aberasgarria, hizkuntza koreografiko sendoa lortzeko aukera eman diona, haren lana nazioartean aintzatetsi duen konpainiaren zigilu eztabaidaezina.

Ibilbide horretan guztian, hamabost emanaldi sortu ditu konpainiak, eta iaz, Arrasaten taularatuko duten *Shine* ikuskizunaz gain, hamargarren urteurrenerako koreografia berezia ere kaleratu zuten. Ibilbide oparo horretan hainbat sari jaso dituzte, eta baita errekonozimenduak ere; besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainian, Europan, Taiwanen, Hego Korean eta Kanadan.

## Muare taldea izango da hurrengoa Kooltur Ostegunetan

Maddi Gerrikok eta Eli Berazak osatzen dute Muare taldea. Musika elektronikoa eta ahotsa nahasten dituzte, pop-folk elektronikoa egite aldera, eta iaz grabatu zuten orain arte kaleratu duten lan bakarra, taldearen izen bera darama hiru kantuz osatutako lana. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrerak 7 euro balio du.

## Artea hizpide duen hitzaldia egingo dute Kulturaten

Arrasateko Doke Antzerki Taldeak antolatuta, hitzaldia egingo dute Kulturaten otsailaren 19an, arratsaldeko sei eta erdietan. Hain zuzen, Dantzerti proiektuko arte dramatiko eta dantza ikasketaburu Vene Herrero eta Miriam Royo izango dira Arrasateko antzerki eskolako kideei euren proiektuari buruz hitz egiten.



Egungo eta aurreko agintaldiko udal gobernuetako eta Aramaixo Bizirik taldeko ordezkariak sinadurekin. LUKEN UGARTEBURU

# 600 sinaduratik gora parke eolikoaren kontra

Egungo eta aurreko agintaldiko udal gobernuek eta Aramaixo Bizirik taldeak martitzenean aurkeztu zituzten abenduan egindako sinadura bilketari buruzko emaitzak; orain, helburu dute Udalaren gainetik dauden estamentuetara bideratzea jasotakoa

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO
16 urtetik gorako 633 herritarren babesa jaso du Aramaioko lurretan egin nahi duten Itsaraz parke eolikoaren aurrean desadostasuna agertzeko Udalak eta Aramaixo Bizirik taldeak abenduan zehar martxan jarritako sinadura bilketak. Martitzenean aurkeztu zituzten sinadura bilketaren emaitzak egungo nahiz aurreko agintaldiko udal gobernuek eta Aramaixo Bizirik plataformak. Gaur egungo alkate Asier Agirrek adierazi zuen herritarren "gehiengo zabal batek" bat egin duela azaroko osoko bilkuran onartutako *Ez gaude ados* mozioarekin: "Prozesua hilabete askotako lanaren ondorioa da; Aztikerrek gidatutako ikerketaren emaitzek erakutsi zuten herritarren artean Statkraftek instalatu nahi duen parke eolikoaren aurrean kontrakotasun handia dagoela, eta haren ondorioa da Udalak aurkeztutako mozio testua eta osteko sinadura bilketa".

Orain, helburua da Aramaioko Udalaren gainetik dauden estamentu guztietara bideratzea jasotako sinadura guztiak: "Gehienbat, tokatzen delako jakinaren gainean jartzea Aramaioko herriak duen izatera, zenbat jendek parte hartu duen, eta gure hitza helaraztea haiei".

**Aramaiotik haragoko arazoa**
Aramaioko zinegotzi ohi eta Aramaixo Bizirik taldeko kide Oihana Ameskuak hitzartzean eskatu zien Statkraft eta Krean enpresei bertan behera uzteko Itsaraz parke eolikoaren proiektuaren egikaritza, ez baitute uste bidezkoa denik Aramaio bezalako herri txiki bati EAEko industria poligono eoliko handiena inposatzea eta ingurumen sentsibilitate altuko eremu bat guztiz txikitzea.

**PARKE EOLIKOA EGITEA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKATU DIETE STATKRAFTI ETA KREANI**

Ameskuak agerraldian gaineratu zuen eraldaketa ekosozialaz aritzeko orduan etengabeko hazkundea, energia kontsumo eredua eta elikadura burujabetza ere eztabaidaren erdigunera ekarri behar direla, eta arazoa ez dela Aramaiokoa bakarrik; baizik eta mendialdeko herri askorena. "Aitzitik, mendialdeko herri asko eta asko zeharkatzen dituen errealitatea da hau. Mendien zaintza eta babesa jendarte guztiari dagokio", azaldu zuen.

Prentsaurrekoa amaitzeko, Agirrek adierazi zuen Aramaiok badituela nahikoa errekurtso eta aukera herriaren proiektu energetiko propioa garatzeko. "Lan handia daukagu egiteko, eta gai honi arduraz heltzeko konpromisoa hartzen dugu; eta, edozein kasutan, gure herriari egokitutako proiektuen alde lan egingo dugu", gehitu zuen.

## Arabako Bertsolari Txapelketako finalerdietan da Peru Abarrategi

Bigarren final laurdena domekan izango da, Oionen, eta han arituko dira Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrak

**I.A.A.** ARAMAIO
Domekan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako lehen final laurdena irabazi zuen Peru Abarrategik, 259 puntu eskuratuta, eta, hain zuzen ere, finalerdietarako zuzenean sailkatu da. Abarrategiren atzetik geratu ziren Aitor Ugarte (250 puntu), Eli Zaldua (250 puntu), Paula Amilburu (249,5 puntu), Ekaitz Samaniego (242,5 puntu) eta Danel Herrarte (238,5 puntu).



Peru Abarrategi, Izarran. A.B.E.

**Domekan, Oionen**
Bigarren final laurdena domekan jokatuko da, Oionen, eta Manex Agirre eta Xabi Igoa lehiatuko dira. Agirrek txapelketa "gogorra" aurreikusten du: "Gogorrak esan gura du interesgarria". Haren ustez, Aroa Arrizubieta da finalerako hautagaietako bat, eta "ilusio berezia" egiten dio Igoarekin abesteak.

Igoaren esanetan, domekako saioa "polita" geratu da, bi gazte, bi heldu eta herriko bi izango baitira: "Manexekin sarri abestu dut, baina ofiziotan sekula ez zaigu tokatu txapelketa batean, arraroa badirudi ere. Ea aurten tokatzen den".

## Euskal dantzak eta lehiaketa, besteak beste, Inauterietan

Otsailaren 9an, arratsaldean, Lagun Artean dantza taldeak herriko trikitilarien eta txistularien laguntzarekin Euskal Herriko hainbat txokotako dantzak egingo ditu herriko kaleetan.

Otsailaren 10ean, berriz, mozorro lehiaketa egingo dute, eta izena emateko azken eguna gaur da. Parte hartu nahi duen orok eskuorria entregatu behar du kultur etxean. Hala ere, Udaletik adierazi dute egunean bertan ere izena emateko aukera egongo dela. Banaka nahiz taldeka parte hartu daiteke, eta taldeen kasuan, gutxienez, lau pertsonakoak izan behar dute. Gaia librea da.

Aurretik kalejira egingo dute, 17:30ean, frontoitik herriko plazara. Han egingo dituzte mozorro lehiaketa eta txokolate-jana. Amaitzeko, disko festa egongo da. Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dira ekintzak.

## OHARRAK

### Argi mozketa martitzenean

Argindar instalazioaren kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko, aldizkako argi mozketak egingo dira herri osoan, Oletan izan ezik, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

### Arbel nekazari-denda zabalik zapatuetan

Aste honetatik aurrera, nekazari-denda zabalik egongo da zapatuetan ere, 09:00etatik 13:00etara.

### Mintzalagunen eta Gurasolagunen topaketa

Domekan Murgian egingo dute Gorbeialdeko mintzalagunek eta gurasolagunek topaketa. 10:00etan elkartuko dira, Zaraten, mendi bueltarako. Ondoren, luntxa egongo da. Izena eman behar da.

# Lehen pausoak zaintza ekosistema diseinatzeko

Prebentzioa oinarri hartuta zahartze prozesuei heltzeko gertu egon gura du Aretxabaletako Udalak, horretarako baliabideak eskainita eta komunitatearen konpromisoarekin eta inplikazioarekin; dagoeneko hasi da lanketa horretan

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Zaintza ekosistema diseinatzen hasi da Udala, iritzita "gizarte erronka nagusien" artean dagoela hori. Beharrak eta baliabideak kontuan hartuta "beste era batera antolatzearen garrantzia" mahai gainean jarri eta zaintza sare bat sortzeari ekin diote. Izan ere, "publiko-komunitario" den eredua behar da Ongizate zinegotzi den Nerea Zubillagak azaldu duenez eta proiektuaren berri oposizioak ere badu. Lan horiek koordinatzen dihardu esparru horretan eskarmentu handia duen Antziñe Mendiak.



**Antziñe Mendia koordinatzailea eta Nerea Zubillaga zinegotzia.** MIRARI ALTUBE

**Prebentzioa oinarri**

"Prebentzioa oinarri izango duen eredu baten alde egin dugu", dio Zubillagak. Hori horrela, "herritarrengana gerturatuta eta horien parte hartzearekin" diagnostiko bat egingo da: "Aretxabaletako egoera zein den jaso gura da, ondoren jendearen beharren araberako estrategia bat diseinatzeko". Ildo horretatik, Mugimendu Feministak eta Atxabalta Lagunkoia taldeek egindako lanak aintzat hartuko dituzte, eta jarraipena eman.

Hiru zutabe nagusi oinarri hartuta egingo dute lan: batetik, prebentzioa lantzeko sare komunitario bat sustatuko da; izan ere, komunitatearen inplikazioa eta konpromisoa ezinbestekoak izango direla uste du: "Gaur egungo eragileez gain norbanakoen arteko elkarrekintzak ere sortu gura ditugu askotariko dinamikekin, zahartze aktiboa bermatzeko".

Bestetik, eguneko arreta zerbitzua indartzea da asmoa: "Zahartze prozesuan, zaurgarri izatetik mendeko izatera pasatzeko prozesu horretan, gertuko akonpainamendua egitea".

Hirugarren zutabea zaintzaileen zaintza da: "Lanbidea duintzeko prozesuan pausoak eman daitezen eragingo dugu". Horretarako, zaintzaileen beharren araberako baliabideak jarri nahiko lituzkete martxan, esaterako, formakuntza eta aholkularitza.

"Eredu berri horretan" herri guztiak hartu beharko duela parte gaineratu du: "Erakundeak izanik ere halako erronka baten aurrean erantzukizuna hartu behar dutenak, herritarrekin batera egin beharreko lana da. Horregatik, taldetxo bat osatuko dugu, eta hori izango da proiektu honen motorra".

**Komentua, elkarrekintzarako**

Ekosistema horren barruan, komentua izandako eraikinak zeresana izango du: "Herritarrentzat orokorrean elkarrekintza espazio bat izan dadin gura dugu, izango dituen baliabideak hori sustatzeko egokiak direlako: aretoa, taberna, arreta zerbitzua, kanpo espazio zabala…", dio Zubillagak, eta gaineratu du: "Zaintzaren bueltan erreferente izan dadin gura dugu; betiere, indarra proiektuan jarrita eta eraikina beste baliabide bat gehiago izanda".

## "Bakardade egoeran daudenekin lan pertsonalizatua egin gura da"

**ANTZIÑE MENDIA BALERDI** KOORDINATZAILEA

Urats Gain zaharren egoitzako koordinazio lanetan jardun zuen hemeretzi urtean, hura itxi arte. Ondoren, gizarte langilea izan da GSR Debagoiena egoitzan hamalau urte eta erdiz, eta orain, zaintza ekosistemaren proiektuaren koordinatzailea da.

**Mendekotasun esparrutik zatoz; aldaketa handia izan da?**

Urte asko eman ditut mendekotasun larria duten pertsonekin lanean. Oso esperientzia aberasgarria izan da, 3.000tik gora erabiltzaile eta familiarekin egoteko aukera izan dut eta zaurgarritasun eta bakardade egoera asko ezagutu ditut. Orain, prebentzioan eta egoera horiek ekiditeko lan komunitario sendoa eraikitzera bideratuta daude nire zereginak, aurreko esperientzia abiapuntu hartuta.



M.A.

**Zein egiteko izango dituzu proiektu horren bueltan?**

Lehenengo, zaintzaren diagnosia egin –hori jasotzen eta ematen dutenak aintzat hartuta–, bakardadean arreta berezia jarrita; horiekin lan pertsonalizatua egiteko gero. Datu kuantitatiboak jasotzen ari naiz, bakarrik bizi diren aretxabaletar kopurua jakin eta profilak ezagutzeko; 70 urtetik gorako 289 herritar daude: 77 gizonak eta 212 emakumeak. Bigarren pausoa izango da adin multzoka profil ezberdinetako pertsonekin harremanetan jarri. Haien ekarpenak jaso gura ditugu, zerbitzuak haien beharrei erantzuteko.

**Sare bat ere osatu gura da, ezta?**

Talde motorra osatuko da. Horretarako, herriko talde eragileekin elkartuko naiz, proiektua aurkeztuko diet eta ekarpenak jaso ditut; horren helburua da konpromiso-itun bat landu eta lortzea. Proiektuaren inguruko sentsibilizazioa eta komunikazioa sustatzeko kanpainak ere egingo ditugu. Adinekoen arteko zein beste herritarren arteko loturak sortzen laguntzea edo dituztenak sendotzea izango da helburua.



NIRE USTEZ

**JULEN ABASOLO**

## Zurrune

Iazko partien arto kontuek diela eta, gure etxeko ganbaran elkartu gitzen batzuk.

Babie eta artue elkarrekin askotan erein izen diela eta Jabierrek kontau euen babie aurretik jasoten bazan be zurrunien jarten zala sikaketan. Atzetik segidan norbaittek: "Bai zurrunien". Eta nik hori zer zanik be ez.

Gero argittu eusten berak egur eta aga motzez osatutako ganbara txiki bat dala guretan zurrune. Aterpe baten babie aidien eukitteko erabiltten zala eta urte batetik besterako be, han geldiketan zala. Nik, Jon Artanon antzera, gozatu egitten dot nausixauek kontetan dauenaz eta kontetako daukien eriaz.

Bestalde, oingoz makinak euskeraz ikesten daue, Españako kongresuen euskeraz dihardue, Cadizen txirigotak berdin. Zer da hau? Aurki bizerra moztuko dot.

Oinarri zurrune (hiztegitik) biher da holako gehigarrixei eusteko eta horretan badaukou zer egine. Bittartien bizerra etxekuekatik eta okotzekuokin estroposatu ez nadin kenduko dot.

OHARRAK

### San Blas eguna

Meza esango dute Apotzagaetxebarri auzoko ermitan otsailaren 3an, 10:30ean, eta ondoren, jakiak bedeinkatuko dituzte.

### Odola emateko deia

Odol Emaileen Elkarteak herritarrak gonbidatu ditu odola ematera; otsailaren 8an eta 15ean izango da autobusa Duranan, 16:45etik 20:00etara.

# Txarapean gasolindegi bat jartzeko eskaerari ezetza

Udalak ukatu egin dio baimena, "kontu tekniko batzuk ez betetzeagatik", eta araudia aldatzeko prozesua abiarazi du

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Txarapea ibilbideko bidegurutzean, bi bizitzako etxeen alboan dagoen lursailean, gasolindegia jartzeko eskaera jaso zuen Udalak 2023ko urrian. Gasolindegiaz gain, autoak garbitzeko tunel bat eta denda txiki bat ere agertzen dira aurkeztutako proiektuan. Baimenari, baina, ezetza eman dio Udalak. "Teknikariek aztertu ostean, hainbat akats tekniko dituela ikusita, ukatu egin diegu baimena; adibidez, gasolindegiaren goiko partean aparkaleku bat agertzen delako", azaldu du Ion Albizuk, Hirigintza teknikariak.

Beste herri batzuetan ere halako gasolindegiak ugaritzen dabiltzala ikusita, Udal Gobernua kezkatuta agertu da eta araudi baten beharra atzeman du: "Halako instalazioetarako eskaerak datozenean zein arau bete beharko duten zehaztuta izan gura dugu. Horretarako, orain dugun araudia aldatu egin behar da". Urtarrilaren 17an egindako osoko bilkuran erabaki zuten aldaketa horri hasiera ematea, eta, bien bitartean, urtebetez ezingo da eskatu Aretxabaletan halako jardueretarako baimenik. "Epe horretan aldaketak eginda izan gurako genituzke. Argi dugu etxebizitzen inguruetan ez dugula nahi halako jarduerarik".

Aldaketa horiek idazten hasi aurretik edozein herritarrek izango du aukera ekarpenak egiteko, "Udalak, gero, kontuan har ditzan". Horretarako epea otsailaren 12an bukatuko da.



Gasolindegia jarri gura den lursaila. M.A.

# Kintoak gertu eskeari ekiteko

2005ean jaiotako neska-mutilak Santa Agedaren bueltako usadioari ekiteko gertu daude. Domekan baserriz baserri jardungo dute kantuan eta eskean, eta astelehenean kalerik kale; orduan egingo dute, gainera, lehenengo dantza saioa plazan, 19:00etan. 80 kinto inguru dira aurten, eta gaur izango dute azken entsegua, txistulariekin batera.



MIRARI ALTUBE

## Txapel Txinek hasiko du Aratusteetarako atzerako kontaketa

Txapel Txin egunak San Blas egunarekin bat egingo du bihar, otsailak 3, eta San Blatxin etorriko da aretxabaletarrei iragartzera Aratusteak ate-joka daudela; horretarako, txapela jantzi eta jai giroa zabalduko du herriko kaleetan.

Eguerdi partean hasiko dituzte ekitaldiak: 12:00etan, ume eta familientzako erraldoiak izango dira, eta 13:00etan, Txapel Txinekin kalejira. Arratsaldean, gazte eta infantil mailetakoen bola-txapelketa jokatuko da bolatokian, 16:00etan; Piratak kale animazioa izango dute umeek 17:00etan; pregoia egingo du Txapel Txinek 18:45ean, Matraka DJak kaleak girotu bitartean; eta bukatzeko, Aretxabaletako Kaparrak taldeak runba doinuak eskainiko ditu Mitarte kalean, 21:00etan. Gainera, helduek bola-txapelketa izango dute bolatokian, 22:30ean hasita.





2006an jaiotako eskoriatzarrek tantaia jaso zutenekoa. IRAIA DIAZ DE GEREÑU

# Jateko lekuari irtenbidea emanda, kintaden festa

2006an jaiotakoak santa eskean arituko dira, dantzak egingo dituzte plazan… Baina aurretik, bihar, Kinttaden Eguna izango dute. Bigarren urtez antolatutako herri bazkarian izangо dira, eta haiekin batera, guztira, hamasei kintada batuko dira han

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Eskoriatzako Kinttaden Egunaren hamabigarren edizioa izango da aurtengoa, eta zapatuan ospatuko dute eskoriatzarrek. Santa Ageda neska-mutilak herriko kaleetan ateratzean giro handiagoa izateko helburuarekin sortutako jaia izanda, kintada bakoitza berearekin elkartu, bazkaldu, eta eskoriatzarren artean harremantzeko egun seinalatua izango da. Beste behin, herriko tabernetan, jatetxeetan eta elkarte gastronomikoetan lekua falta dagoenez eta herritik irten beharrik ez izateko, herri-bazkaria egingo dute zenbait kintadak Manuel Muñoz kiroldegian, iaz moduan. Tartean, aurten, Santa Ageda neska-mutilak izango direnek, hau da, 2006an jaiotako eskoriatzarrek.

### Kiroldegian hamasei kintada

Eingeinke Kultura Ekimenak jarri zuen martxan egitasmoa, eta, eguna zehaztuta –normalean, otsaileko lehenengo zapatua–, ez da ezer antolatu beharrik izan, iazko urtera arte. Izan ere, urtero izan dute kintadek elkarrekin bazkaltzeko tokia aurkitzeko arazoa, eta iaz, Itzartu Gazte Asanbladako kideek hartu zuen eguna antolatzeko ardura; hala, bide batez, arazoari konponbidea eman zioten.

"Eingeinke desagertuta dagoela kontuan hartuta, Kinttaden Eguna antolatzeko erreleboa Itzartu Gazte Asanbladak hartu du. Iaz, herri bazkaria egin zen, zenbait kintada batuta, eta aurten modu berean egingo da. Bazkaria antolatzeko, asanblada irekia egin dugu interesdunen artean, eta kintada bakoitzeko bi ordezkari izan dira bilera horretan. Haiek hartu dute norberaren kintadan izango diren lagun kopuruak zehazteko eta ordainketak egiteko ardura. Hala, aurtengo Kinttaden Egunean, kiroldegian, behintzat, hamasei kintada batuko gara, guztira", adierazi du Garazi Iglesiasek, Itzartu Gazte Asanbladako kideak.

### Errespetuz jokatzeko eskaera

Kiroldegian bazkalduko dutenek 25 euro ordainduko dituzte; menua –21 eurokoa–, BEZa eta garbiketa kostuak kontuan hartuta. Hain zuzen, iberikoak eta entsalada izango dituzte, oilaskoa eta saiheskiak parrillan eta limoi-sorbetea postrerako, ogiarekin, edariekin eta kafearekin batera. Horrekin batera, txotx egiteko kupela jarriko dute, iaz moduan. Horren harira, errespetuz jokatzeko eskatu dute antolatzaileek: "Denon ardura da errespetuz jokatzea; hau da, kiroldegi barruan debekatuta dago erretzea, eta etxafuegoak eta antzerako material arriskutsuak ezin izango dira sartu".

**2006AN JAIOTAKO ESKORIATZARREK HILAREN 5EAN ETA 11N EGINGO DUTE DANTZA, PLAZAN**

### Agian, txarangak girotuta

Iaz, bazkalostean dantza egiteko tartea izan zen, eta aurten, berriz, txaranga izango da. "Musikaz girotu nahi genuen arratsaldea; batez ere, kiroldegitik plazara bidea egiteko eta geroko poteoa girotzeko. Hala, Txorongo Txaranga egongo da 18:00etatik 21:00ak arte". Honekin batera, herri-bazkariko lagun bakoitzak euro bat jarrita, 21:00etatik aurrera, dj-a jartzeko proposamena egin dute.

### Dantzetan, hankak altxatzera

Astelehenean, otsailaren 5ean, 19:00etan, 2006an jaiotako Santa Ageda neska-mutilek egingo dituzte dantzak, Fernando Eskoriatza plazan. "Urte hartan jaiotako 37 lagun ari gara astean birritan entseatzen, eguaztenetan eta eguenetan, Gabonak ezkero. Izan ere, azterketak ere izango genituela jakitun, lehenbailehen hasi nahi genituen entseguak. Ez dakit 37ok egingo dugun dantza herritarren aurrean, baina gehienok animatuko gara…", dio 2006an jaiotako Iraia Diaz de Gereñuk aurtengo Santa Ageda neska-mutilen taldeko ordezkariak.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRARTE

## Adio, ilbeltza… badator otsaila!

Abestiak dioen bezala, heldu da xamurkiro urritz-makilak hartu eta poliki-poliki kantu eta makil-hotsez ama lurra esnatzeko garaia. Oles ole melodiaz, naturari gorazarre egitekoa. Basoari iritsi zaio, loaldiaren ostean, nagiak askatu, bekarrak garbitu eta aharrausi egiteko denbora. Zuhaitzek besoak luzatu, zozo eta birigarroek kantuari txorrotxio. Lurrari makilak kolpatu, aro berria da zabalduko. Heldu da heldu, horratio, azeri eta otsoak dantzari hasteko ordua. Entzungo du berriro, bederen, ama naturaren taupada hotsa mundu osoak. Barrez lehertu, kolorez, musikaz, pasakalleetan, jiran-biran, buelta eta dantzan! Kaleak irriz, festa-giro, gozamen, atsegin, pozkario, burrunban, eztandan! Neska-mutil, zahar-gazte, ume-nerabe primeran, tope disfrutatzeko egunsenti, arratsalde, ilunabar nola ordu txikiak. Torrada, txorizo, sagar, txokolate, iturritxo eta txoritxoak, ura pil-pil, makilak eskuetan haurrak, etxekoandre, gizon zabalak, solte, biribilka, zein gerritik helduta ondo pasaz. Iritsi dira kinttadak, urdelardero, inauteri, desfile, mozorroak... Katea eten barik, pozez txoratzeko momentuak. Bizi-bizirik antzinako usadioak, plaza, erromeria, kale eta landa-auzoak. Irribarrez, umorez auspotuz gure hizkuntza, festa eta herrietako bizitzak! Ieup!

## Zapatu inauteriko herri-bazkarirako txartelak salgai

Otsailaren 10ean izango da Inauterietako herri bazkaria Eskoriatzan, 14:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian, eta urtarrilaren 26a ezkero salgai daude txartelak: udaletxean, Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean erosi daitezke.

Bi menu izango dira: 18 urtetik gorakoentzat –20 eurotan– eta 17 urtera artekoentzat –13 eurotan–. Txartelak erosteaz batera, mahaiak ere erreserbatu beharko dira, eguneko antolaketara begira; izan ere, bazkarian parte hartzen dutenek lekua erreserbatzea komeni dela dio Eskoriatzako Udalak, kuadrillakoak elkarren ondoan esertzea bermatzeko. Horretarako, 650 49 51 66 telefono-zenbakira *whatsapp*-mezua bidali beharko da, izena eta lagun kopurua jarrita. Bazkalostea girotzeko, DJ Motorekin dantzaldia egongo da kiroldegian bertan.



IMANOL BELOKI

## Bizitzaren zuhaitzak, landatuta

Familiak, haurrak, zuhaitzak, oraina eta etorkizuna… Horiek guztiak batu ziren domekan Torrebason egin zuten zuhaitz landaketan. Iaz jaiotako haurrengatik eta 2005ean eta 2008an jaiotakoengatik zenbait zuhaitz landatu zituzten. Baita Pirritx, Porrotx eta Marimototsek herriari oparitutako pagoa ere.



IÑAKI KORTAZAR

## Eraña eta Regaño garaile

Euskal Herriko XV. Mus Txapelketako herriko kanporaketak jokatzen ari dira herriz herri, eta Eskoriatzan joan den domekan jokatu zuten. Guztira, hamar bikote batu ziren Inkernu tabernan musean aritzeko, eta Javi Eraña eta Jose Regaño bikotea izan zen garaile, finalean Aritz Segura eta Aitzol Alava bikoteari gailenduta.

## Marokora bidaia antolatu dute Olazar Erretiratuen Elkartekoek

Maiatzaren 18tik 25era bitartean egingo dute bidaia, eta 45 lagunendako plaza kopurua dagoela esan dute

**I.B.** ESKORIATZA

Arrakasta itzela izaten dute Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek antolatzen dituzten bidaiek. Egun-pasak egiten dituzte, bi edo hiru eguneko bidaiak, eta baita astebetekoak zein egun gehiagokoak ere. Oraingoan, astebeteko iraupeneko bidaiaren aldeko hautua egin dute, gogoz daudela bidaiatzeko adierazita. "Hasiera batean Toscanara joan behar genuen arren, minimoak ez zirenez bete bidaia aldatzea erabaki dugu. Hala ere, gogoa dagoela argi dago; izan ere, 45 lagunendako plaza kopuru muga ezarri dugu, eta egunotan ia guztiak bete dira; bost lagunendako lekua dago soilik", adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.

Eskoriatzatik autobusean joango dira Madrilgo aireportura, hegazkina hartu, eta Marokora iristeko. Behin han egonda, Palacio Bahia eta Rabateko kasbah edo gotorleku militarra ikusteko aukera izango dute. Horrekin batera, egunsentia ikustera joango dira Saharako dunetara…

## OHARRAK

### San Blas opilak gaztelekuan

Zapatuan batuko dira nerabeak, 18:00etan, opilak egiteko; zikindu egingo direnez, arropa egokia eramateko eskatu dute.

### Korrikako arropa-salmentak

Otsailaren 8an, eguena, Huheziko unibertsitatean jarriko dute postua Korrika batzordeko kideek, 13:00etatik 14:00etara bitartean, eta Fernando Eskoriatza plazan 17:30etik 20:00etara.

### Aratusteak: Urdelardero Eguna

Hilaren 8an ospatuko dute. 10:30ean hasita, haurrak kalejiran irtengo dira kantuan; 11:30ean, txistor-jana izango da plazan; 18:00etan, Mikeltxi DJa; eta 18:30ean, txokolate-jana.

# 566.756 euroko aurrekontua onartu dute

Aiora Elkorobarrutia eta Eneka Zankada zinegotziak falta zirela, Dorleta Elkorobarrutiak Leintz Gatzagako alkateak eta Juanito Bengoa eta Idoia Armendariz zinegotziek onartu zuten aurrekontu-proposamena, Gotzon Goikoetxea idazkariaren laguntzarekin

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA

2024ko aurrekontua onartu dute Gatzagako Hautesle Elkarteko ordezkariek. Inbertsio nagusiez gain, bestelakoak ere izan dituzte berbagai.

**Inbertsio nagusiak, zehaztuta**

Inbertsioetarako 70.000 euro inguru bideratuko dituzte. "Gaztainuzketako mendi-etxeetara bideratuko dugu diru partida bat –35.000 euro–; etxebizitza baxu batzuetan isolatzaileak jartzera beste partida bat –25.000 euro–. Izan ere, gaur egun, biltegi gisa soilik erabiltzeko moduan daude, eta etorkizunean beste erabilera bat emateko aukera izango genuke horrela. Azkenik, aparkalekuak antolatu nahi ditugu; ez bakarrik aparkaleku berriak egin. Gatzagan gidabaimena duenak autoa du, eta horiek antolatu behar ditugu. Beharra dagoela ikusten badugu eta orografiak zein ekonomiak baimentzen badigu, egingo dugu", adierazi du Dorleta Elkorobarrutia alkateak.

**Etorkizun hurbilean, gimnasioa**

Inbertsio horiez gain, esku artean dituzten gainontzeko lanak eta herritarren eskaerak ere izan dituzte hizpide. Horien artean dago gimnasio bat egitea. Oraindik zehaztu gabe, ez dute baztertzen eskolako eraikineko lokal batean egitea. "Gimnasioa egitea dirua da, eta, lortutako dirulaguntzen arabera, inbertsioak modu batekoak edo bestekoak izango dira. Orain, proiektuak ondo landu behar ditugu; ea zer lortzen dugun".



Gatzagako udalbatzako kideak 2024ko aurrekontua onartzen. I. BELOKI

**INBERTSIOETARAKO 70.000 EURO INGURU BIDERATUKO DITU LEINTZ GATZAGAKO UDALAK**

Bestetik, herriko harrizko galtzada oso egoera txarrean dagoela azpimarratu du Elkorobarrutiak: "Apurtzen doa, eta, gerora, zailagoa izango da konpontzea. Horri aurre egiterik ez dugu; proiektu bat egin beharra dugu, kostu bat duena, eta ate-joka joan beharko dugu leku guztietara. Lehentasun batzuk herrikoiak dira, beste batzuk beharrak dira, eta, azkenean, gauza berriak egitea ondo dago, baina ditugunak ere zaindu behar ditugu".

## Teilatuak egokitzeko lanak

Gaztainuzketan lau mendi-etxek dute teilatua aldatu beharra, eta horretara 35.000 euroko partida bideratuko du Gatzagako Udalak. Gaizka Perez da apartamentu turistikoen gaur egungo arduraduna, 2022ko uztaila ezkero, eta "pozik" hartu du Udalak hartutako erabakia. "Beharrezkoa da, eta pozik nago egingo duten inbertsioagatik".



Gaztainuzketako mendi-etxeetako bat. GAIZKA PEREZ



Gorka Artola alkatearen hitz-hartzea, agintaldi berriko planaren martitzeneko aurkezpenean. B.U.

# Plan berria zehaztu dute, "ikuspegi berriei begira"

2027ra arteko helburuak eta horiek garatzeko ekintzak jasotzen dituen agintaldirako plana aurkeztu du asteon Udal Gobernuak. Etorkizuneko "erronka potoloei" aurre egiteko "planteamendu berriak eta irudimen komunitarioa" beharko direla azpimarratu dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Urtarrilaren 22ko ezohiko osoko bilkuran agintaldiko lehen aurrekontuak onartu zituen Bergarako udalbatzak, Udal Gobernuaren proposamenari oposizioak kontra bozkatu ostean, eta lehen aurrekontuak onartu berritan aurkeztu du Gobernuak agintaldi osorako plana izango dena. 2023ko ekainean agintaldi berria martxan jarri eta, diotenez, gutxira irten ziren kalera herritarrekin egotera.

Bergararren kezkak, lehentasunak eta zalantzak saiatu ziren biltzen entzute ariketa hartan, herritarrei Bergara nola irudikatzen duten galdetzearekin batera. Informazio bilketa hori uztartu dute udal barruan dauden askotariko planekin eta aurretik ere gauzatzeke zituzten konpromiso batzuekin.

### "Plan bizia", aldaketei zabalik

Martitzenean Seminarixoan egin zuten ekitaldi publikoa plana aurkezteko, eta han azaldu zuten 2023ko ekainetik kalean jasotakoa gero Udal Gobernuko kideek teknikariarekin batera landu dutela. Planak, Gorka Artola alkatearen arabera, egitura zehatz bat dauka: "Misio bat, bost helburu nagusi eta 36 ekintza edo lan-ildo zehaztu ditugu, eta 36 lan-ildo horietarako arduradun politikoa, arduradun teknikoa, kronograma bat eta aurrekontu bat aurreikusi dugu. Hori da, hasiera batean, datozen lau urteetarako aurrekontuetarako garatzen saiatuko garena; betiere, kontuan hartuta agintaldi plan bizia dela eta behar berrietara edo egoera berrietara egokitzen eta moldatzen joan beharko dugula. Gainera, misioak berak definitzen duen moduan, era komunitarioan eta imajinazioa erabilita etorkizuneko Bergara definitu nahi badugu, herritarren ekarpenekin batera joango gara zehazten eta berrikusten plana bera".

### Plaza aurten berritzen hasi nahi

Misiotzat hartu dute etorkizunari imajinazio edo irudimen komunitariotik erantzungo dion Bergara aktiboa lortzea, eta bost helburu nagusiak dira arnasguneak; euskara; zaintza eta bakardadea; etxebizitza; eta komertzioa eta alde zaharra.

Hain zuzen ere, komertzioa eta alde zaharra berreskuratzea da helburu nagusietako bat, eta agintaldi amaierarako asmo horiek errealitate bihurtzeko bidean egoteko lehentasuna eman diote, adibidez, San Martin plaza eta Barrenkalea berritzeari: "Bost helburu nagusietako bat alde zaharra eta herriko komertzioa biziberritzea izanda, ikusten genuen horretarako gure herriko plazak eta Barrenkaleak izan ahal duten eragina nabarmena dela, eta pentsatu dugu proiektua hau gauzatzea lehentasun bat dela ondoren eragin ahal izateko plazan eta kale horretan gauzatu ahal diren hainbat egitasmori begira".

Inbertsioei dagokienez, gainera, agintaldiko inbertsio nagusietako bat izango da, obra osoak gutxi gorabehera hiru milioi euro eta erdiko aurrekontua izatea dago-eta aurreikusita. Gutxienez hiru urtetako aurrekontuetako inbertsio gaitasuna baldintzatuko du: "Aurrekontu onartu berrietan 500.000 euroko partida dago aurreikusita 2024an, eta esan genuen osoko bilkuran 2024an, 2025ean eta 2026ean zehar gauzatuko dela. Asmoa da 2024 bukaeran obrak hasteko moduan egotea; betiere, planteamendu teknikoaren arabera".

### Planteamendu berrien "beharra"

"Erronka potoloak" datozela dio Udal Gobernuak, eta horretarako "planteamendu berriak ezinbesteko" izango direla uste dute: "Esanguratsua da Bergaran sasoi batzuetan garapenaren ikuspegitik izan den erritmo bizia, eta horiek denak planteamendu berriak egitetik etorri dira, eta uste dugu badugula gaitasuna herrian eragileek eta norbanakoek, imajinazioa erabilita, gaur egungo erronkei planteamendu berriak egiteko".

Artolaren arabera, "anbizio handikoa baina egingarria" da asteon aurkeztu duten plana, eta gogora ekarri zuen pandemiak baldintzatutako aurreko agintaldiko planaren betetze maila %85etik gorakoa izan zela.

**ALDE ZAHARRARI BIZITZA EMATEKO EKINTZETAKO BAT DA BARRENKALEA ETA PLAZA BERRITZEA**

## 100 lagun, eta 250 zuhaitz

Kukubaso elkarteak antolatuta, 100 bat lagun elkartu ziren urtarrilaren 28an Sanmartzialaldeko lurretan zuhaitz landaketa egiteko. Azalpenak jaso, eta 250 bat zuhaitz landu zituzten, familia giroan: haritzak, elorriak, arteak eta gaztainondoak, besteak beste. Zuhaitzez gain, habia-kutxak eta saguzar-etxolak ere jarri zituzten, eta intsektuendako etxola bat.


GOIENA

## San Blas jaiak ospatuko dituzte Buruñao auzoan

Bihar, San Blas eguna, jaiak ospatuko dituzte Buruñaon: suziri jaurtiketa (08:00); meza eta opil bedeinkapena (11:00); Moises Azpiazu dantza taldea (12:00); eta umeendako kukainak izango dira. Arratsaldean mus txapelketa izango dute –izen-ematea, 15:30ean–, eta gauean auzo afaria. Hilaren 5ean San Blas ermitako kideen bilkura izango da.

# Ikuskizuna bermatuta, festak goiz etorri arren

Aratusteak bereziki goiz datozen arren, festa eta kolorea izango da nagusi. Sorgin dantzak iragarriko du hasiera, eta, ondoren, hainbat ekintza izango dira: Aratusteetako kontzertua; Pirritx, Porrotx eta Marimotots; erraldoien eta txistularien kalejira...

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Ate joka dira Aratusteak; aurten bereziki goiz datoz urteko egunik koloretsuenak. Egunik indartsuenak datorren asteburuan hasiko dira, otsailaren 9tik aurrera. Hala ere, martitzenean bertan izango da Aratusteekin lotura ukaezina duen eta urteroko klasikoa den torraden eta pellen ikastaroa. Aurten ere Gorka Lobato sukaldariak gidatuko du saioa, San Antonioko Gure Ametsa elkartean.

**Sorgin dantzarekin hasiko da**

Sorgin dantzarekin abiatuko dira Aratusteak, Eguen Gizenean, duela urte batzuk herriko dantzari batzuek aspaldiko ohitura berreskuratu ostean. Hartza ere irtengo da, domadorearekin batera, eta Bergarako Musika Eskolako musikariek eta dantzariek hiru geldialdi egingo dituzte: San Martin plazan, Simon Arrietan eta Iralan ikusi ahalko dira dantzariak, txistulariekin eta trikitilariekin.

**Kontzertua, 'Goiena.eus'-en**

Bergarako Aratusteak ez daude ulertzerik egubakoitzeko kontzerturik barik, eta aurtengoa ere ez da salbuespena izango. Musika Bandarekin eta Orkestra Sinfonikoarekin batera, Aritzeta abesbatzak, Kulunka dantza taldeak eta hainbat antzezle eta aktorek hartuko dute parte. Antolatzaileen arabera, aurten ere "hainbat sorpresa" egongo dira. Goiena telebistak osorik grabatuko du eta *Goiena.eus*-en zuzenean ikusi ahalko da.

**Ikastetxeetan ere hutsik ez**

Ikastetxeetan ere Aratusteak ospatuko dituzte; ohi moduan, Mariaren Lagundikoak eta Aranzadi ikastolakoak egubakoitz arratsaldean irtengo dira kalejiran. San Martin Agirre eskolako ikasleek, berriz, martitzen arratsaldean ospatuko dute.



Iazko Aratusteetako kontzertua, *Izarren gaua* ikuskizuna. IMANOL SORIANO

## Arausteetako egitaraua

**Otsailak 6, martitzena**
- **18:30** Torradak eta pellak egiteko ikastaroa Gure Ametsa elkartean, Gorka Lobato sukaldariaren eskutik.

**Otsailak 8, eguena**
- **19:00** Sorgin dantza, Bergarako Musika eta Dantza Eskolako dantzari, txistulari eta trikitilarien eskutik. Hartza ere aterako da, domadorearekin. Geldialdiak: San Martin plaza, Simon Arrieta plaza eta Irala kalea.

**Otsailak 9, egubakoitza**
- **22:30** Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren *Bixamona Erdi Aroan* kontzertua, udal pilotalekuan. Sarrerak, agortu ez badira, *seminarixoa.eus*-en salgai, zortzi eurotan.

**Otsailak 10, zapatua**
- **17:00-20:00** Kale animazioa Guretzat txarangarekin.
- **18:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Ez gara jaitsiko!* ikuskizuna udal pilotalekuan. Sarrerak, agortu ez badira, *seminarixoa.eus*-en salgai, sei eurotan.
- **20:00-23:00** Erromeria Iratzar taldearekin, San Martin plazan.

**Otsailak 11, domeka**
- **18:30** Bergarako Erraldoien eta Txistulari Bandaren kalejira.

**Otsailak 13, martitzena**
- **16:30** Bergarako Musika Eskolako Gazte Bandaren kalejira, Musika Eskolatik hasita.
- **17:30** Erromeria Gauargi taldearekin, San Martin plazan.



NIRE USTEZ

**ALEX ARTEAGA**

## Sormenik ez

Hasi gabe esan nezake gizarte bezala burua guztiz galdu dugula sormen kontuetan. Orain dela ez asko lagun batek webgune baten berri eman zidan; horren modan dagoen ditxosozko adimen artifizial horietako batena zen. Egia esan, interesa piztu zidan eman zizkidan azalpen guztiekin, eta kuxkuxeatzera animatu ninduen, modu nahiko ezkorrean, baina helburua abestiak sortzea duelako webgune madarikatu honek.

Funtzionamendu oso sinplea dauka; bi datu besterik ez diozu eman behar: zein musika estilo nahi duzun eta hitzen nondik norakoak azaldu labur-labur. Probatu nuen, bai... Folk estiloan itsasoaren inguruko kanta bat, laguntasuna ardatz duen abesti *bluesero* bat, etsipenaren inguruko abesti *punkrockero* bat... Harritu egin ninduen jasotako emaitzak, ez zituelako batere *abesti* txarrak egin musikalki; nahiko entzungarriak ziren. Nahiago dut letren inguruan ezer ez esan, baina goazen azpiak ukitzen dizkidan horretara: zer lortu nahi dute aplikazio hauek? Nahiko leloak ez baginen, orain sormena bera ere ordezkatu nahi digute. Bide onetik goaz, bai...

## Santa Ageda bezpera: Bergara Kantuan eta Alaiberri taldea, prest

Jardunek sustatutako Bergara Kantuan ekimeneko zita garrantzitsuetako bat izango da otsailaren 4koa, Santa Ageda bezperako abestiekin kalejira irtengo dira-eta plazatik (12:30). Herritarrak gonbidatu dituzte parte hartzera. Bestalde, Alaiberri taldea ere irtengo da kantuan egun berean, Mizpirualde egoitzatik, 18:30ean hasita.

## Ndank Ndank: bi saio kulturartekotasuna hezkuntzan lantzeko

*Kulturartekotasuna hezkuntzan* izeneko jardunaldiak antolatu ditu Ndank Ndank elkarteak otsailaren 6rako eta 20rako; Seminarixoan, 17:30etik 19:30era. Lehen saioan Biltzen erakundeko Jeanne Rolande Dacougna eta Huheziko Marta Quintas izango dira; bigarren saioan, berriz, Huheziko Amelia Barquin eta Ndank Ndankeko Eli Dominguez.

OHARRAK

### Korrika: batzordea eta materialaren salmenta

Otsailaren 6an egingo dute hurrengo bilera, Irizarren (19:00). Bestalde, Korrikako materiala saltzeko mahaia jarriko dute gaur, otsailak 2, Irala kalean, 17:30etik 19:30era. Hala ere, gogora ekarri dute online denda ere badagoela: *www.denda.korrika.eus*.

### Berriketan egitasmoan izena emateko aukera

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta euskara praktikatu nahi dutenak elkartzeko ekimenean izena eman daiteke Jardunen: *jardunkultura@topagunea.eus* edo 605 71 24 69.

### Udala: arkitekto bat kontratatzeko lan-poltsa

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 9an amaituko da; oinarriak eta deialdiaren gaineko informazio guztia, *www.bergara.eus* webgunean, *Udal lan eskaintza* atalean.

### Kartzela zaharra: Egubakoitzak Berreskuratzen

Gaur, otsailak 2, Madrilgo Danger eta Legazpiko John Dealer And The Coconuts taldeen kontzertua (22:30); sarrera, zortzi euro.

### Hurrengo odol ateraldian parte hartzeko deia

Otsailaren 7an izango da, Arin zentroan, 16:30etik 20:30era.



Ariznoa klubeko talde bat, Labegaraietan egindako erakustaldian. GOIENA

# Labegaraieta, gimnasia erritmikoaren topagune

Gimnasia erritmikoko amateur mailako Gipuzkoako lehen fasea jokatuko dute bihar Labegaraietako kiroldegian; gutxienez, hamabost klubetako gimnastek hartuko dute parte, eta han lehiatuko dira Bergarako Ariznoa klubeko bi talde eta Noa Lezeta bakarka

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
Zapatuan jokatuko dute gimnasia erritmikoko amateur mailako Gipuzkoako lehen faseko txapelketa, Labegaraieta kiroldegian. Egun osoan arituko dira gimnastak, taldeka zein bakarka, azken asteetan landutakoa epaileen eta ikusleen aurrean erakusteko. Goizeko saioan, 10:00etatik 14:30era bitartean senior eta gazte mailetakoak arituko dira; arratsaldean, berriz, 16:30etik 19:30era, kadeteak. Denera, hamabost klub ingurutako gimnastak izango dira parte hartuko dutenak. Bergarako Ariznoa klubetik senior mailako bi taldek egingo dute koreografia tapiz gainean –bata 12:30 aldera eta bestea 12:50 inguruan–, eta bakarka arituko da Noa Lezeta kadete mailan. Debagoienak izango du beste ordezkaritza bat ere; izan ere, Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldea ere izango da.

Gipuzkoako Txapelketa dute helburu aurrez jokatzen diren bi faseek, baina, Ariznoako entrenatzaile Ainize Lizarraldek aurreratu duenez, taldekakoan denak sailkatuko dira finalerako, eta, horregatik, zapatuko erakustaldiak taldeei balioko die koreografia lantzen joateko, neurriak hartzen joateko eta urduritasunak kudeatzen ikasteko. Banakakoan, baina, Gipuzkoako finalerako 12 gimnasta sailkatzen dira eta kontuan hartzen dira lehen eta bigarren faseetako emaitzak.

Bigarren fasea Azpeitian jokatuko dute, martxoaren 17an; finala, maiatzaren 5ean, Tolosan.

### Hobetzea helburu

Klub barruko erakustaldiak egin dituzte, baina denboraldi honetan lehen aldiz jarriko dira epaileen aurrean. Lizarraldek nabarmendu du ikasturte honetako erronka nagusia dela hasieratik bukaerara bitartean hobetzen joatea. Biharkoaz ere hitz egin du: "Zapatu honetan ikusiko dugu epaileek nola epaitzen duten norberak egindako lana. Horren arabera, zerbait aldatu behar bada, hobetu egingo dugu, kurtsoa ondo bukatzeko".

**AMATEUR MAILAKO GIPUZKOAKO FINALA MAIATZAREN 5EAN JOKATUKO DA, TOLOSAN**

Gainera, nabarmendu du garrantzi handia ematen diotela gimnasia erritmikoa taldean egiteari: "Gerta liteke taldea astean behin etortzea entrenatzera, baina beste norbait egunero etortzea. Gimnasta horrek taldean eta bakarka egiten du. Noa Lezeta, adibidez, kadete mailako bakarra da, eta horregatik egiten du bakarka".

### Eskolartekoa hastear da

Otsailaren 24 eta 25ean, Gipuzkoako eskolarteko lehen fasea jokatuko dute, Donostian; bigarrena, apirilaren 20an eta 21ean; eta finala, maiatzaren 11n.

# Etxanizen txanda da Soraluce Lau eta Erdiko Txapelketan

Etxaniz da txapelketan parte hartuko duen bergarar bakarra; hilaren 6an jokatuko du, Hormaetxeren kontra

**I.A.A.** BERGARA
Urtarrilaren 30ean eman zitzaion hasiera hilabete eta erdi iraungo duen Soraluce Lau eta Erdiko Txapelketari. Julen Aranburu BKEko pilota saileko arduradunaren esanetan, pilotari onak ekarri dituzte, Euskal Herri mailan gustatzen zaizkienak: "Suposatzen dut maila polita egongo dela partiduetan".

Ander Etxaniz da txapelketan parte hartuko duen BKEko pilotari bakarra, eta Aranburuk adierazi du Gabonetan eskuetan lesio txiki bat izan zuela Etxanizek. Hala ere, azken bi asteetan jokatu ditu binakako partidak, eta espero du lan polita egitea. Txapelketako norgehiagoka hilaren 6an jokatuko du, Oier Hormaetxeren aurka: "Aurkari gogorra dauka final laurdenetan. Elite mailako lau eta erdiko txapelketan maila polita eman zuen bizkaitarra da. Ea, gutxienez, finalerdietara pasatzerik daukan eta ahalik eta urrunen heltzen den".

Faboritoez galdetuta, promesetan Oihan Etxeberria eta Beñat Apezetxea aipatu ditu. Nagusietan, ordea, zalantza gehiago ditu: "Aitor Alduntzin, Beñat Zubizarreta, Aitor Karregal... Azken horrek lau eta erdian beti maila ona ematen du. Iaz txapeldunorde izan zen, 22-21 galduta".

### Sanchez eta Alduntzin irabazle

Martitzenean, 22-20 mendean hartu zuen Sanchezek Irribarria. Irribarria aurretik "erraz" joan zen, baina partidari buelta eman zion amaieran Sanchezek. Bigarren partidan, 16-22 irabazi zion Alduntzinek Amianori. Amiano izan zen nagusi, baina Aranburuk esan du nekatu egin zela, eta Alduntzin iritsi zen 22. tantora.



GOIZPER BKE

# Denboraldiari ezin ginga jarri

Eskubaloiko gazte mailako Goizper BKEk ez du lortu Euskal Ligara igotzerik. Joan den astean jokatu zuten lau talderen arteko hiruko ligaxka, eta partida bakarra irabazi zuten bergararrek. MEK Eibarren aurka 14-25 galdu zuten eta 26-22 hartu zituzten mendean elgoibartarrak. Igoera lortzeko partida erabakigarrian 28-21 galdu zuten Zuazo Gorriaren kontra.

# "Jaialdi bat antolatzeko aitzakia da Ikasfest"

Bergarako gaztetxean musika jaialdia egingo dute bihar, zapatua (20:00). Bergarako Laino Beltzak, Arrasateko Hankaz Gora, Urretxuko Zatekeen erromeria taldea eta Goierriko Iltze taldeak izango dira oholtza gainean. Sarrera 5 euro da

**Xabier Urtzelai Atxa** BERGARA

Izenak iragartzen duen moduan, zapatuan 20:00etan Bergarako gaztetxean egingo duten Ikasfest musika jaialdiaren helburua da Aranzadi Ikastolako DBHko ikasleek apirilean egingo duten ikas bidairako dirua lortzea. Hori horrela, eurak dabiltza jaialdia antolatzen. "Tira, egia esan behar badugu, dirua lortzearena aitzakia da", dio, barrez, antolaketa taldean lanean dabilen Markel Egurenek. "Aspaldi genbiltzan gaztetxean musika jaialdi bat antolatzeko gogoz, eta helburu nagusia emanaldia egin eta bertaratzen garenon artean ondo pasatzea da. Hori bai, musika jaialdian ikas bidaiarako diru apur bat ateratzen badugu, ederto, diru faltan gaude-eta", dio Egurenek, umorez.



Laino Beltzak, Bergarako Venti jatetxean emandako kontzertuan. GOIENA

**Kontzertua, lagun artean**

Ikasfest lagunartean antolatzen dabiltza. Eguren bera Bergarako Laino Beltzak taldeko abeslaria da, eta jaialdia antolatzeko gertuko kontaktuetatik egin dute tira. "Arrasateko Hankaz Gora taldekoak gertuko lagunak dira; lehen ere jo dugu elkarrekin, eta oso ondo konpontzen gara. Iltze musika taldekoengana Jon Ormaetxearen bitartez iritsi gara, haren lagunak dira eta. Bestetik, zerbait ezberdina eskaini nahi genuen jaialdian, estilo ezberdin bateko talde bat ekarri, eta pentsatu genuen erromeria bat ekartzea ondo legokeela. Hala, Urretxuko Zatekeen erromeria taldea etorriko da emanaldia borobiltzera".

Hain zuzen, sarrerak dagoeneko salgai daude, Arrano tabernan. Ikasleek 4 euro ordaindu beharko dituzte eta langileek, 5 euro. Egunean bertan, baina, gaztetxeko leihatilan ere egongo dira sarrerak salgai.

## 'Hona bostekoa!' komiki erakusketa ikusgai Aroztegin

Geuretik Sortuak proiektuan literatura, antzerkia eta zinemagintza jorratu dituzte orain arte, eta berritasuna izan da komikigintza. Hori horrela, gaur hasi eta otsailaren 16ra arte Aroztegi aretoan *Hona bostekoa!* komiki bilduma egongo da ikusgai. Hain zuzen, komiki horietako egileak dira Unai Gaztelumendi Arandia, Aritz Ibarra Agirrezabal, Kote Camacho de Miguel, Eñaut Aiartzaguena Bravo eta Iñaki Martiarena Otxotorena *Mattin*. "Erakusketak lan horiek ze testuingurutan egin diren erakusten du. Sortzaileek egonaldiak egin dituzte Euskal Herriko hainbat udaletan, eta interakzio horretatik irten diren emaitzak dira komiki horiek", adierazi dio GOIENAri Udalbiltzako teknikari Maria Oses arrasatearrak.

Hala, sortzaileek egonaldiak egin dituzten herrien artean dago Bergara, eta herri horietako istorioak bildu dituzte bost komiki horietan.



# 3.000 sinadura Trekutz parke eolikoaren aurka

Meaka-Irimo herri plataformak bildu ditu alegazioak, eta, esate baterako, gogoan izan dituzte Irimoko iturburuak; Udalak, berriz, alegazio teknikoak landu ditu, Ingeotyx-ekin batera. Nolanahi ere, biek argi dute energiaren auziaz hausnartu beharra dagoela

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Trekutz parke eolikoari aurre egiteko, herritarren 3.000 sinadura bildu ditu alegazioetan Meaka-Irimo herri plataformak, proiektuak "sekulako txikizioa" egingo duela nabarmenduta. "Kontu bat da bi aerosorgailu jartzea, eta beste bat da euren muntatzeak izango duen eragina", adierazi du Fernando Iturbe Meaka-Irimo herri plataformako kideak.

Haren hitzetan, batetik, inguruetan dauden pistak handitu egin beharko lituzkete parkea egiteko, baina, bestetik, baita berriak egin ere; esate baterako, Trekutzetik Meakarainokoa eta handik Irimorainokoa. Ez hori soilik, ordea. "Hor da ura ere; Irimo ingurua akuifero handi bat da, eta handik hartzen dute ura Basalde auzoko hamazazpi baserrik". Are gehiago, erantsi du ur gehiago dagoela barrunbe haietan, eta hainbat iturburu handik asetzen direla. "Horrelako obra batek sekulako arriskua du, ur haietan eragin baitezake".

Horrez gain, Iturbek azaldu du mendizaletasunean "erreferentziala" dela Irimo, eta alegazioetan jaso dutela; baita proiektuak faunan, floran eta gizakiengan izan dezakeen eragina ere. Era berean, erantsi du Cilda Energy SLU enpresaren helburua ez dela "herritarren behar energetikoak asetzea", baizik eta "negozioa egitea", eta, beraz, "etekin handirik izango ez duen beste proiektu handi bat" dela: "AHTa, autobidea, autobide elektrikoa... Herria txikia izanda, dena igarotzen da hemendik; orain, badirudi eolikoak ere guk tragatu behar ditugula".

### Elkarlanean dabiltza

Plataforma "anitza" da, herritarrez osatua, eta Iturbek zehaztu du egungo xedea Irimon eolikorik ez egitea bada ere, elkartzen jarraitzeko asmoa dutela. "Energiaren inguruko eztabaida sustatu nahi dugu; energia krisia oso indartsua izango da, eta hausnartu egin behar da. Ez da bakarrik proiektu honi ezetz esatea, baita alternatibak lantzea ere".

Egin duten lanean, ordea, ez dira bakarrik aritu, lagun izan baitituzte Urretxuko (Gipuzkoa), Azkoitiko (Gipuzkoa) eta inguruetako herritarrak, eta eskerrak eman dizkie.



Irimo gailur-lerroko Mugarrisakon gainean jarri nahi dute aerosorgailu bat. A.R.K.

**UDALAK GIPUZKOAKO INDUSTRIA DELEGAZIOAN ERREGISTRATUKO DITU ALEGAZIOAK**

### Udalak, alegazio teknikoak

Plataformaren parte da Antzuolako Udala ere, baina, batik bat, alegazio teknikoaz jartzeaz arduratu da, Ingeotyx enpresarekin. "Argi dugu Irimon ez dugula haize-errotarik nahi. Herriak ez du inongo hitzik izan, eta enpresak etekin ekonomikoa besterik ez du buruan, berriztagarriak negoziotzat hartuta", azaldu du Olatz Lezeta Antzuolako alkateak, argi duen arren "energia berriztagarriak behar badira, etorri" beharko dutela.

Hain zuzen, alegazio teknikoen artean da, adibidez, Gipuzkoako araubidearen usteko urraketa bat. "Diputazioak haize-errotaren potentzia maximoa megawatt batekoa izatea onartzen du, eta horrek bost ditu", adierazi du Lezetak, Gipuzkoa Klima 2050 egitasmoa gogoan izanda. Horrez gain, aipatu du Irimo inguruan ez dagoela haize-errota horiek beharko luketen adina haize, "erdia" baizik.

### Datozen urratsak

Udalak erregistratuko ditu alegazioak Gipuzkoako Industria Administrazioko Lurralde Ordezkaritzan egunotan. "Enpresari pasatuko dizkiote, eta, nahi izanez gero, erantzuteko aukera du; hala bada, Udalak hamabost egun izango ditu berriro ere alegatzeko, baina [Eusko Jaurlaritzako] Ingurumen Sailak esango du proiektua onartzen duen edo ez", azpimarratu du Lezetak.

## Bertako zuhaitzak landatuko dituzte domekan Azaldegietan

Baso ekologikoki orekatuak sortu nahi ditu herritar talde batek; batzar irekia egingo dute otsailaren 15ean

**A.R.K.** ANTZUOLA

Zuhaitz Eguna ospatuko dute hilaren 4an, domekan, Azaldegietan, bertako zuhaitzak landatzeko, Arrola Mendi Elkarteak, Antzuola Herri Eskolak eta Antzuolako Udalak antolatuta. 09:00etan izango da irteera, Herriko Plazatik.

Ez da, ordea, egingo duten ekintza bakarra izango, gaiaren inguruan arituko den elkarte bat sortzea baitu helburu herritar talde batek; batez ere, "lurrak eta finantzaketa iturri ezberdinak" eskuratzeko eta "pixkanaka bertako zuhaitz espezieak landatuz kontserbaziorako baso ekologikoki orekatuak" sortzen joateko. Horretarako, ordea, elkarte bat eratu nahi dute; are gehiago, bazkide egiteko aukera ere izango da, eta urtean ekarpen ekonomiko bat egitekoa, ekintzetan parte hartzearekin batera. Ingurumen hezkuntzan ere eragin nahi dute.



**2022ko zuhaitz landaketa.** ARROLA

### Batzar irekia

Hilaren 15ean, eguena, emango dituzte xehetasun gehiago, batzar irekia egingo baitute, 19:00etan, Olaranen.

## San Blas eta Santa Ageda bezpera ospatuko dituzte

San Blas eguna ospatzeko, meza eta hamaiketakoa egingo dute bihar, 12:00etan, San Blas baselizan. Etzi, berriz, Santa Ageda bezpera izango da. Kintoak 06:00etan aterako dira kantuan, eta 12:00etan, berriz, Santa Ageda eskea egingo dute, Anelkarrek antolatuta, abesbatzarekin eta txistulariekin. Dirua Kongora eta Senegalera bideratuko dute.

## Astelehenean batuko da Korrika batzordea, Olaranen, 18:00etan

Martxan da Korrika batzordea Antzuolan, eta otsailaren 5ean izango da hurrengo batzarra, astelehenean, Olaranen. Horrez gain, egubakoitzean, otsailaren 9an, Korrikako materiala erosteko aukera izango da, erakusmahaia jarriko baitute Kalebarrenen, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Petoak eta banderatxoak saltzen arituko dira.

## Salgai daude 'Azken festa' ikuskizuna ikusteko sarrerak

Datorren egubakoitzean, hilaren 9an, Tomaxen Abenturak pailazoen *Azken festa* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan, arratsaldeko bostetan. Hala ere, Antzuolako Udalak jakinarazi du aurrez erosi behar direla sarrerak. *Bibe* plataforman daude salgai, bost eurotan; aretoaren edukiera bete arteko kopurua salduko dute.

## Landatxopek mozorro jaia egingo du, baina izena eman behar da

Landatxope jubilatuen elkarteak, ohiturei hutsik egin gabe, merienda eta mozorro lehiaketa egingo du hilaren 13an, martitzenean, Landatxopen, baina jakinarazi dute aurrez eman behar dela izena. Hain justu, hilaren 6an eta 8an izango da horretarako aukera, 16:30etik 18:00etara bitartean, elkartean; bost euroko kostua du.



Olatz Lezeta, Goiena telebistako platoan, urtarrilaren 30ean. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

# "Inbertsio handiena da, baina %70 aurreztuko dugu LED argiekin"

Antzuolako alkate Olatz Lezeta Goiena telebistako 'Harira' saioan egon da, orain arte egindako bidearen errepasoa egiteko. Martxan dituzten edo ipiniko dituzten proiektuez gain, aurrera begirakoak zeintzuk diren ere kontatu du

**Mireia Bikuña Madrid** ANTZUOLA

Zazpi hilabete pasa dira maiatzeko udal hauteskundeen ostean udalbatza berriak lanean hasi zirenetik. Herriari neurria hartzen hasiak dira udal ordezkariak, eta esku artean dituzte hainbat proiektu. Horiei buruz berba egiten egon zen Goiena telebistako *Harira* saioan Olatz Lezeta alkatea, urtarrilaren 30ean. "Denbora azkar doa, baina gauza mordoa ikasi ditugu zazpi hilabete hauetan. Gogorrak ere izan dira. Errekan bost ordu egiten ditut eta alkate moduan beste hiru; baina ez dira hiru izaten inoiz. Etxean ere rolak aldatu behar izan ditugu, eta horretara ohitu behar izan dugu guztiok. Hala ere, bagoaz aurrera, eta agintaldi emankorra izan dadin lan egingo dugu. Talde polita daukagu eta gogotsu dihardugu", esan zuen.

### Errekalde auzoko lanak

Errekalde auzoko urbanizazio lanak aurreko urtetik datorren proiektua da. Espero baino bi aste lehenago bukatuko dituzte, gainera. Auzoa asfaltatu eta txukundu, espaloia berritu, zuhaitz batzuk kendu eta sarrera-irteera hobetu dituzte han. "Lazaretoa kendu egin da eta haren parean zegoen %10eko aldapa lautu egin da, Gainera, baserrietara ura bideratzeko hodia lurperatu egin dute. Ostean, proiektu horri heltzen diogunean, errepidea berriro apurtzeko beharrik ez izateko. Uste dugu espaloi berriarekin auzoa erdigunera gerturatuko dela, hein handi batean. Gainera, azpimarratu gurako nuke auzotarrek izan duten jarrera positiboa; halako lanek beti sortzen dituzte trabak eta ez dira ezertaz kexatu", azaldu zuen alkateak.

**KONTSUMOA "JAITSI" EGIN BEHAR DELA ESAN DU ALKATEAK, BERRIZTAGARRIEI BURUZ GALDETUTA**

### Eguzki panelak

Aurreko agintaldian ezezkoa eman zion Udalak Trekutz Parke Eolikoari. Orain, Urretxuko Udalarekin batera alegazioak aurkeztu ditu. "Akats mordoa ditu proiektuak. Gipuzkoan kilowatt bat baino gutxiagoko errotak ipini behar dira, eta proiektuak ez du hori betetzen. Gainera, Irimo dentsitate baxuko haizegunea da. Errotek behar dutenaren haize erdia dago han. Kudeaketa ez da ona izan. Gu ez gaude eolikoen kontra; proiektu horren kontra gaude".

Hala, Antzuolako Udalak beste aukera batzuen alde egin du. "Teknaliak egin du proiektu bat herriko teilatuetan eguzki panelak ipintzeko bideragarritasuna ikusteko. Hortik hasita, ikusi beharko dugu zer gehiago egin dezakegun. Argi daukagu kontsumoa jaitsi egin behar dela, eta, horretarako, berriztagarriak beharko ditugu. Herrian eolikoak bideragarriak diren ikusi beharko da, eta, hala bada, non ipini behar diren. Energia sortu behar badugu, herriarendako izan dadila; eta ez beste edonora eramateko".

### Batzorde berriak

Udal antolaketa egiteko orduan bi batzorde berri sortu zituzten agintaldi berrirako: Ingurumen eta Euskara batzordeak, hain justu ere. Lehenengoan, baserritarrekin zerikusi duten gaiei eman gura izan diete presentzia. Energia berriztagarriak, basoen kudeaketa, baserrietara ura eramateko proiektuak eta beste lantzen dituzte.

Euskara batzordearen erronka ez da makala: "Euskararen arnasgune izatetik erdara piloa entzutera pasa gara herrian. Geroz eta gehiago egiten da erdaraz. Lanerako gogoz gaude Euskara batzordean. Badugu zer hobetu, eta, bide horretan, asko eskertzen dugu Uemaren laguntza. Kontzientziazio lana egin nahi dugu, eta Korrika izan daiteke aukera ona. Hiru kilometro egingo ditu gurean, eta daukagun indarra erakutsi beharko dugu". Era berean, batzorde guztiak irekiak direla gogorarazi zuen, eta herritarrak gonbidatu zituen horietan parte hartzera.

### Argiteria aldatu

Inbertsioen artean lehentasuna ez bada ere, zenbateko handiena jaso du dirutan herriko argiteria hobetzeko asmoak. 310.000 euro bideratuko dituzte, eta LED argiak jartzea aurreikusten dute, herriko kontsumoa %70 jaisteko. "Sei urtean amortizatuko genuke. Inbertsio handiena da, baina sei urte ez dira horrenbeste.

**LEZETAK USTE DU "HERRIAK DUEN INDARRA" ERAKUTSI BEHARKO DUELA KORRIKAREKIN**

Gainera, Antzuolak dituen eguzki panelek sortzen dutena baino gutxiago gastatuko genuke LED argiekin". Horretarako, Europako Next Generation dirulaguntzetatik 121.000 euro jasoko dira.

Aurtengo inbertsio handiena Kalebarrengo urak desbideratzera bideratuko dute: 88.000 euro. Urak gainezka egiten duenean hango komertzioek izan ohi dituzten arazoak ekidingo lirateke. "Gabilondo harategiaren parean hodi handitik txikira pasatzen da ura, eta ez dauka edukiera handirik. Proiektuaren xedea da Eztalatik datozen urak Altzarte aldera bideratzea. Autobidea egin aurretik zegoen moduan utziko genuke".

Altzeta eta Loixeta baserrietara ur edangarria eramateko proiektua ere inbertsioen artean dago, gaur-gaurkoz ez dutelako halakorik.

### Bidegorria, noizko?

Gipuzkoako ahaldun nagusi Eider Mendozak Goiena telebistan esan zuen Antzuola eta Bergara lotuko dituen bidegorri zatia aurten egingo dutela. Horren gainean ere eman zuen iritzia Lezeta alkateak: "Hark esaten badu, hala izango da. Guk, oraingoz, ez dakigu ezer epeei buruz, baina ederra litzateke aurten izatea. Dena den, lotsagarria da Antzuola izatea eskualdeko lehen herria kolektorea egiten eta oraindik ere, gaur egun, hondakinak ibaira joatea. Ez da bidezkoa".

### Eskolako patioa

Gauzatzeko data duen proiektua eskolako patioa inklusiboa izateko proiektua da. Martxoaren 31rako amaituta egon behar du. "47.000 euroko dirulaguntza jasoko dugu, eta horrek markatzen du amaiera-data. Eskolako umeek dihardute proiektua lantzen, patioa irisgarriagoa izan dadin", adierazi zuen.

### Erronka handiak

Hiru urte eta erdi geratzen zaizkio agintaldiari, eta hainbat erronka dituzte aurretik udal arduradunek. Alokairu soziala bultzatu, mugikortasuna hobetu, euskararen erabilera hobetzeko ekintzak, energia berriztagarriak... dira horietako batzuk. "Horiez gain, egunerokoan sortzen direnei ere egingo beharko diegu aurre".



Ibon Unzetabarrenetxea, EH Bilduren udal aurrekontu-proposamena azaltzen. L.Z.L.

# Zuzentzea aurreikusten den udal aurrekontua

Aspaldiko udal aurrekontu handiena dela azpimarratu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak, baina oposizioaren abstentzioarekin atera dute aurrera. Kontu "kontinuistak" eta "proiektu estrategikorik gabekoak" direla dio oposizioak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Martitzenean elkartu zen Elgetako udalbatza, eta udal ordezkariek agintaldiko lehen udal aurrekontua onartu zuten.

1.998.919 euroko aurrekontu-proposamena aurkeztu zuen EH Bilduk; iazkoa baino %10,97 handiagoa. Langile gastuak eta gastu arruntak %65 dira; inbertsioen atalak, berriz, %15,4 –iaz baino %21,15–.

Oposizioak bi datu nagusi nabarmendu zituen: sarrera arruntekin ez direla gastu arruntak estaltzen –Udal Gobernuak 100.000 euroko mailegua eskatzea jaso du aurrekontuan– eta beste erakundeekiko menpekotasuna gero eta handiagoa dela; izan ere, aurreikuspena da sarreren %49,33 –986.233 euro– Gipuzkoako Foru Aldundiko Diru Funtsetik etortzea.

### Egoera ekonomiko estua

Balorazioak balorazio, bi alderdi politikoetako udal ordezkariak bat datoz gauza batean: Udalaren egoera ekonomikoa estua dela. "Guri ere kezkagarria iruditzen zaigu gastu arruntek sarrera arruntak gainditzea. Horregatik, sarrera iturri berriak lantzen ari gara", azaldu zuen alkateak. "Baina hori da errealitatea. Kitatzeko dauden zorrak, egiteko dauden mantentze-lanak eta aurreko agintalditik amaitu barik gelditu diren proiektuak –Arantzetara ura eramatea eta pumptrack-gunea– ordaindu egin behar dira. Gustatuko litzaiguke guri ere lau urteko proiektuak jartzea eta horiek gauzatzen joatea, baina muga hori ere existitzen da. Zuen ustez, aurrekontua ez da errealista. Nire ustez, ondo islatzen du Udalaren egoera ekonomikoa zein den".

EAJko ordezkariek aurrekontua lantzeko metodologia ere zalantzan jarri zuten. "Portzentajezko igoerak egiten dira. Aurreko urteko zifrak hartzen dira eta KPIaren araberako igoerak planteatzen dira. Eta eskatzea aurreikusten ez duzuen mailegu bat planteatzen duzue gastu arrunta finantzatzeko. Likidazioak zuzendu dezake hori, baina sarrera arruntekin gastu arruntak ez estaltzea da udal batek eduki dezakeen larritasunik handiena", ohartarazi zuen jeltzaleen bigarren bozeramaile Mikel Larreak.

### Inbertsio nabarmenenak

Udal Gobernu berriaren lehen aurrekontua izanik, ikusteko zegoen diru-partidak banatzerakoan zein apusturen alde egiten zuen. Baserritarren batzordeko inbertsioak alde batera utzita, San Roke kaleko irisgarritasun lanak, eguneko zentroa eraberritzea, jangela proiektua eta kiroldegiko bigarren solairua egiteko proiektuarekin hastea dira lan-lerro nagusiak. "Diozue ez dugula proiektu estrategiko argirik, baina uste dut programan jasotako puntuak islatzen direla argi eta garbi inbertsioetan: kiroldegiko bigarren solairua adibide bat da, eskolako jangela beste bat da, eta, azkenik, eguneko zentroa berritzeko apustua ere azpimarratu nahiko nuke. 26.000 euroko inbertsioa da", azaldu zuen Unzetabarrenetxeak.

"Nik ez dut ikusten proiektu estrategikorik jasotzen denik. Ez dugu apustu garbirik ikusten. Ez dugu argi norantz goazen", esan zuen Larreak.

### Elkarlanerako deia

Jeltzaleak abstenitu egin ziren udal aurrekontuaren bozketan. "Agintaldi hasiera da, zuen lehen aurrekontua da eta uste dugu merezi duzuela konfiantza-marjina bat. Eta hitza hartzen dizut behin likidazioa zein den dakigunean kontuan hartuko dituzuela guk egindako inbertsio proposamenak". Jeltzaleek hainbat proposamen egin zituzten: irisgarritasun plana eguneratzea –5.000 euro–, kalean informazio pantaila jartzea –8.000 euro–, herriko ekonomia jarduerari buruzko azterketa sozioekonomikoa egitea –7.000 euro–, hondakinen bilketarekin lotutako sentsibilizazio kanpaina egitea –1.500 euro–, euskararen erabilera handitzeko plana egitea –2.500 euro–, parkeetan hobekuntzak egitea –2.000 euro– eta anbulatorioko arkupean eserlekua jartzea –500 euro–.

"Zuen proposamenak oso ondo ikusten ditugu. Eskertzen dizuet oraingoa, baina eskertuko nuke halakoak batzordeetan egingo bazenituzte. Agintaldi hasieratik dakizue elkarlanerako prest gaudela", erantzun zuen alkateak.

**UDAL GOBERNUAK KONPROMISOA HARTU DU JELTZALEEN PROPOSAMENAK AZTERTZEKO**

### Inbertsio esanguratsuenak

| | |
|---|---|
| Baserritarren batzordea | 74.991 € |
| Pumptrack gunea | 72.593 € |
| San Roke kaleko irisgarritasun lanak | 40.000 € |
| Eguneko zentroa eraberritzea | 25.994 € |
| Jangela proiektua | 12.000 € |
| Lur sailen digitalizazioa | 10.000 € |
| Frontoi sarreran lurra berritzeko | 10.000 € |
| Kiroldegiko proiektua egiteko | 8.772 € |
| Irisgarritasun lan orokorrak | 7.500 € |
| Frontoiko teilatua | 5.000 € |
| Zumetza proiektua | 2.000 € |
| Medikuaren kontsulta atarian bankua | 500 € |

IBON UNZETABARRENETXEA
ELGETAKO ALKATEA
GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'
OTSAILAREN 9AN, EGUBAKOITZA, 18:30, 20:30 ETA 22:30
BIDALI ZUK ERE GALDERA:
berriak@goiena.eus 688 69 00 07
EPEMUGA: OTSAILAK 5, ASTELEHENA
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.



# Kokoak prest Aratusteei ongietorria egiteko bihar

Goizeko bederatzietan Hartzari harrera eginda abiatuko da koko-batzea, hirugarren urtez. 50 lagun inguruko konpartsak hainbat auzotako baserrietara eramango du festa giroa, eta arratsaldeko sei eta erdietan azken dantza izango da, plazan

**Iñigo Barrena Kortabarria** ELGETA

Aratusteak ate-joka daude, eta koko-batzearen txanda izango da bihar herriko baserrietan zehar. Goizeko bederatzietan plaza barrenean egingo diote harrera protagonista nagusiari: Hartzari, hain zuzen. Ondoren ekingo diote harekin batera koko-batzeari, baserriz baserri. "Goizeko bederatzietan prest egongo gara, eta Hartzari ongietorria egin ostean abiatuko gara koko-batzea egitera", dio Ainara Iribarrek, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko presidenteak.

Koko-batzearen hirugarren aldi honetan, Goimendi, Egoetxeaga Zeharra eta Arantzeta Zeharra auzoetako baserrietan izango dira kokoak goizean. Gainera, Arantzeta Zeharran, mokadutxo batekin gozatzeko aukera izango dute San Blas ermitan. Arratsaldean, berriz, Larragibel Zeharra eta Uriburualdea auzoetako baserrietan egingo dute dantzan eta kantuan.



Iazko koko-batzearen une bat. IMANOL SORIANO

**Baserrietara bisita**

Momorroak helduko dira lehenik baserrira, diosala egin eta proposamena onartzeagatik eskerrak ematera. "Otsail hasieran izan ginen baserritarrekin, jakiteko ea ondo iruditzen zitzaien koko-batzean parte hartzea. Lehenengo aldia zen belaunaldi honentzat, eta hobetsi dugu pertsonalki egotea banan-banan", dio Iribarrek. Behin baserrira iritsita, hasierako kopla abestuko dute, eta, ondoren, dantzaren txanda izango da. Hori eginda, baserritarren eskaintza jasoko dute, eta, ondoren, agur-kopla abestuko dute, kalejiran hurrengo baserrira abiatu aurretik.

**KOKO-BATZEAREN TRANSMISIORAKO, ETXEKO TXIKIENAK ERAKUSKETA IKUSTEN ARITU DIRA**

**Arratsaldean, plazan**

Goizeko koko-batzea amaitu, *aperitif*-ean indarrak hartu eta arratsaldeko saioa egin eta gero, Ustekabe txaranga lagun dutela iritsiko dira herriko plazara kokoak, Hartza eta bestelako pertsonaiak. Azken kopla eta dantzen txanda izango da orduan, eta, amaitu bezain pronto, Ustekabe txarangak girotuko du hirugarren urtez egingo den koko-batzea.

**Etxeko txikienak erakusketan**

Aste barruan herri eskolako hainbat talde zeramika gelan dagoen erakusketa ikusten izan dira. Hartza, sasi-kartia, burbuxiak, masustak, gorrixak... Konpartsako pertsonaien izenak eta koko-batzearen esanahia ezagutzen izan dira. Etorkizuneko kokoak dira, eta Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik garrantzi handia ematen diote transmisioari.

## "Aurten 50 lagun arituko gara, gutxi gorabehera, koko-batzean"

**AINARA IRIBAR** GOIBEKOKO PRESIDENTEA



IÑIGO BARRENA

Ainara Iribar Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko presidentea koko-batzearen gaineko erakusketan azalpenak ematen aritzen da.

**Nola joan dira eskolako umeen bisitak?**

Txikienak batzuetan ate parean gelditzen dira eta ez dira ausartzen sartzen. Nagusiak, berriz, gustura aritzen dira eta interesa jartzen dute.

**Zenbateko taldea irtengo zarete zapatuan?**

50 lagun izango gara, gutxi gorabehera, koko-batzean, eta gazteenak 16 urtekoak izango dira.

**Zein izango da aurtengo ibilbidea?**

Aurten goialdean tokatzen zaigu. Goimendi inguruan hasiko gara, Arraoz eta Asurtza baserrietan; ondoren, Egoetxeagara jaitsiko gara, Eguarbitza baserrira, eta Arantzeta Zeharra, Ojanguren eta Arantzeta baserrietara. Arratsaldean, berriz, Larragibel Zeharrera joan eta Baztarrik baserria bisitatuko dugu, eta Kantoikoan amaitu.

**Eguneko plana zein izango da?**

Ozkarbin gosari ederra egin eta Hartzari harrera eginda, baserrietara abiatuko gara. Eguerdian bazkaria eta arratsaldean azken dantza plazan izango da, arratsaldeko sei eta erdietan.

## Egitarau betea zapaturako

Hemen biharko egitaraua:

- **09:00** Hartza esnatzea.
- **09:30** Eskea baserrietan.
- **14:00** Aperitif-a.
- **16:30** Eskea baserrietan.
- **18:30** Plazan: azken kantu eta dantzak; ondoren, Ustekabe txaranga.

## 'Harira' saioan izango da alkatea datorren egubakoitzean

Debagoieneko alkateak izango dira protagonista datozen egubakoitzetan *Harira* saioan, Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta 2023-2027ko agintaldiko lehen elkarrizketak egingo baitituzte Goiena telebistan. Hala, Ibon Unzetabarrenetxea Elgetako alkatea izango da saioko bigarren ataleko protagonista, datorren egubakoitzean, hilak 9 –18:30, 20:30 eta 22:30–. Herriko kontuen gaineko galderak erantzungo ditu, eta herritarrek ere euren tartea izango dute alkateari dituzten galderak egiteko. Ibon Unzetabarrenetxearentzako galderak bidaltzeko azken eguna otsailaren 5a izango da, eta arratsaldeko hirurak baino lehen bidalita egon beharko dute. Hiru aukera daude: berriak@goiena.eus posta elektroniko helbidera idatzita; edo Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

## Maite Franco liburutegian

Ipuinen Ordua ekimenaren hamar urteak ospatzeko, otsailaren 16ra bitartean askotariko ekintzak antolatu dituzte liburutegian. Adibidez, Maite Franco ipuin kontalaria izango da liburutegian hilaren 7an eta 15ean, 18:00etatik 20:00etara, ipuin kontalaritza tailerra ematen. Izena emateko, liburutegira joan behar da.



ALEA

## Korrikako petoak liburutegian salgai daude dagoeneko

2015a ezkero igaro gabe zegoen Elgetatik Korrika, baina aurten bai: martxoaren 20an lekukoa herritik pasatuko da. Egun horretarako petoak salgai daude jada liburutegian. Ale bat lortzeko, otsailaren 9a baino lehen liburutegira joan, izena eman eta 6 euro ordaindu beharko dira; horren harira, eskatu dute dirua justu eramateko.

# Elurra ikustera eta eskiatzera

Egurrezko eskiak etxean eginda eta kaleko arropak soinean jantzita joaten ziren eskiatzera elur-zaleak XX. mende erdialdean Aloñako magalera eta baita beherago ere. Zaletasunak iraun egin du, eta familian zabaldu dute



Goiko Benta gaineko Olaso zelaiko teleskia XX. mendeko 60ko hamarkadan. J.M.I.

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Jolaserako, mendian ibiltzeko zein eskiatzeko, elurra erakargarria izan da beti askorendako. Lehen eta orain. Gero eta jende gehiago ikusten da eskiatzen Aloñako mendizerran, nahiz eta elurra lehen baino gutxiagotan egin, baina orain bakarrik ez, lehen ere elur-estazio kuttuna zen Oñati askorendako. Bertakoendako zein kanpokoendako.



Ibarrondo, Altube eta Moiua, joan den martitzen goizean, San Martinen. JOKIN SALIDO



Emakumeak eskiatzen, prakak jantzita; ezohiko irudia garai hartan. J.M. IBARRONDO



Eskistako aterpea, 1967an egindakoa. J.M. IBARRONDO



Juanito Ibarrondoren etxekoak elurretara joanda. J.M. IBARRONDO

### Gorbata eta guzti

Luis Moiua (Oñati, 1940) eta Bittor Altube (Oñati, 1940), esaterako, elur zaleak izan dira eta behin baino gehiagotan aprobetxatu dituzte elur egunak eskiatzera joateko.

Oraindik gordeta dituzten etxean egurrarekin egindako eskiekin hasi zen kirol hori praktikatzen Moiua, 16 urte zituela: "Juanito Ibarrondorekin hasi nintzen ni. Elur asko egiten zuen orduan, kaleraino, ez bakarrik mendian. Gu, adibidez, Durura joaten ginen. Eskiak bizikletako koadroari ondo lotu, Arantzazura igo, han bizikleta utzi eta handik Durura. Leher-leher eginda bueltatzen ginen etxera". Ahal zuten guztietan aprobetxatzen zuen Moiuak eskiatzera joateko, ez zuten urrutira joan beharrik, eta meza ostean joanda ere bazuten oraindik elurretan ibiltzeko nahikoa denbora "Durun ez ezik, Altamiran edo Soraluzen behera ere egiten genituen jaitsierak. Goitik behera ibiltzen ginen orduan, erdian kanala zuten eskiekin. Domeketan ere, jaiegunetako arropak jantzi eta, meza ostean, gorbata eta guzti joaten ginen eskiatzera; gorbata eta txapela".

Pandemia etorri arte eskiatu du Moiuak. Ezkaraira ere joan da sarritan, "joan-etorria egiteko gertu dagoelako", eta baita Pirinioetara eta urrutiagora ere. Pirinioetan, sarritan ibili da Bittor Altuberekin batera: "Herri askotakoak batzen ginen han".

### Hendaian arropa erosita

Moiua baino geroago hasi zen eskiatzen Altube, 40 bat urte zituela. "Aurretik egurrez egindako lerekin-eta ibiltzen ginen, baina eskiatzen, Javier Callejak egindako gonbidapena onartuta hasi nintzen. Kirola sustatu gura zuen hark umeen artean, baina gurasoen inplikazioarekin". Adinekoak diren oñatiar biek gogoratzen dute makina bat aldiz joan zirela gero, autobusean, eurak biak eta beste lagun bat gaztetxoekin. Moiuak bere kasa ikasi zuen eskiatzen, eta irakaslearekin Altubek: "Pista beltzak ere jaitsi ditut nik". Hala ere, zortekoak direla diote, ez dutelako inoiz lesio larririk izan.

Artilezko eskularruekin eta eguneroko arropekin joaten ziren hasieran eskiatzera, kalerako erabiltzen zuten arropa berekin, baina, poliki-poliki, ekipamendua erosten hasi ziren Moiua eta Altube. "Hendaian erosi genuen biok trajea, eta gero, Astunen eskiatzen ibili ostean, Jacan; hango dendetan begira egoten ginen beti zer berrikuntza ekartzen zuten, guk ere erosteko", du gogoan Altubek.

**AUTOBUSEAN ETORTZEN ZIREN DONOSTIARREI KOPIATU ZIZKIETEN LEHEN ESKIAK**

### Donostiatik autobusak

Hamalau urte gazteagoa da Juan Mari Ibarrondo (Oñati, 1954), eta hark ere lotura estua izan du beti elurrarekin eta eskiarekin. "Guk etxean beti bizi izan dugu elur giroa. Aitarekin ikasi genuen zazpi anai-arrebok eskiatzen; ez dugu inoiz ikastarorik izan, hura izan dugu irakasle: jaitsierak, inklinazioak, angeluak, mendiko eskia, zeharkakoa... 85 urte arte eskiatu zuen".

Elur-zalea zen oso Juanito Ibarrondo, Juan Mariren aita. Oñatin hasi zen haren lagun Migel Angel Arzuagarekin batera elurraz gozatzen. "Elurra egiten zuenean, Donostiatik autobus bat etortzen zen jendez beteta, eskiatzeko asmotan. Eurendako gauza oso desberdina zen hori, eta euren jakin-mina izaten zen eski horiek nolakoak



Juanito Ibarrondo, Espainiako txapelketan parte hartzen, 1953an. J.M. IBARRONDO



Moiua, Azkoagain parean, 1957an. L.M.



Luis Moiua, etxekoekin eta lagunekin kanpora egindako irteera batean. L. MOIUA

ziren, nola lotzen zituzten hanketara eta zer egin behar zen labain egiteko".

Haiek zituzten ekipoak ikusi eta kopiatzea pentsatu zuten Ibarrondok eta Arzuagak. Hain zuzen ere, San Juan kalean zegoen zerrategi batean egin zituzten lehen eskiak; lizarraren egurrarekin egindako xaflak etxeko sutondoko depositutuan beratzen jarri zituzten egun batzuetan eta forma eman zieten gero. "Kandahar izeneko itxiturak, lotzaileak, zituzten kanpotik zetozenek, eta haien modukoak egin zituzten eurek, botak eskietara lotzeko. Ekipoa eginda, liburu bat erosi zutela kotatzen zigun aitak, eta hura eskuetan zutela joaten zirela eskiatzera". Eskiatzeko oinarrizko elementuak eurek egin zituzten eta arropak eta bestelako osagarriak mugaz bestaldetik ekartzen zituzten: "Aitak kontatzen zuen orduan deklaratu egin behar zela mugan; erositako materiala eta behin eskiatzeko botak jantzita pasa zuela, Citroen 2C ibilgailua gidatzen, Andorratik bueltan, Pas de la Casako muga". Espainiako eski txapelketetan parte hartu zuen Ibarrondok 1953an, 1954an eta 1955ean; lehenengoa, Pedro Maiztegirekin.

## 1965 INGURUTIK 1978RA ARTE IRAUN ZUTEN TELESKIEK OÑATIN; LAU ZEUDEN ORDUAN

### Lau teleskiko estazioa

Eibarko jendea ere etortzen zen orduan eskiatzera Oñatira. Industria tailer mugimendu handia zegoen orduan han, eta erabaki zuten teleski eramangarri bat egitea. Union Cerrajerak Portalekuan zuen lokalean gordetzen zuten, eta elurra egitean eraman Arantzazura. Goiko Benta gaineko Olaso zelaian polea bikoitzeko motor elektrikoa jarri zuten. Zumarragako talde batek, berriz, Durun jarri zuen beste teleski bat. "Ikusi zen Eskista ingurua hobea zela eskiatzeko, eta aterpea ere egin zuten han, lau hilabetean, 1967an. Garai batean, lau teleskiko estazioa zen Oñati", azaldu du Ibarrondok.

Ibarrondok aitarengandik jaso zuen elurrarekiko zaletasuna, Moiuak eta Altubek eurek deskubritu zuten eskia, baina hirurek pasa diete elurrarekiko eta eskiarekiko duten maitasuna euren ondorengoei. Familian zabaldu da zaletasuna.





Jone Arrazola, Itsaso Manias, Izaro Elorza eta Jone Arriolabengoa, asteleheneko aurkezpenean. TXOMIN MADINA

# Mojak ikertu dituzte, ikuspegi feministatik

Herriko hiru komentuetan bizi diren mojekin egon eta euren izaera, bizimodua eta ekarpena ikertu dituzte, ikuspegi feministatik. Selma Huxley Barkham bekarekin egindako hirugarren emaitza da, eta datozen egunetan plazaratuko dute

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egin dioten ekarpena ikertzea da Oñatiko Udalak banatzen duen Selma Huxley Barkham bekaren helburua, eta hirugarren deialdiko emaitza aurkeztu dute astean: herrian dauden hiru mojen komunitateen inguruan egin dute ikerketa Jone Arrazola Maiztegi antropologoak eta Gizarte Komunikazioan doktore Itsaso Muñoz Maniasek.

### Hiru komentuak

Egun, 50 moja baino gehiago daude Santa Anako, Bidaurretako eta Beneditarretako komentuetan, eta ikerketaren xedea izan da aztertzea zein neurritan dauden komunitate horietan ikuspegi zein praktika patriarkal eta feministak. "Hiru komunitateen historia, bizipenak eta urte guztietako ekarpena ikusaraztea. Baita praktika feministarik edo feminismoarekin loturarik duten ere", zehaztu du Izaro Elorza Arregi alkateak lanaren aurkezpenean.

Ikerketa lan hori egiteko, batez ere talde elkarrizketekin, hiru atal nagusi aztertu dituzte egileek, Itsaso Maniasek azaldu duenez: "Mojen jatorriak, testuinguru soziologikoa, bizitzeko duten antolaketa modua eta euren lanbidea eta egitura sozioekonomikoa, herriari egindako ekarpen ekonomikoa". Mojekin izandako solasaldietan gai askoren inguruan galdetu diete ikertzaileek mojei, eta haien erantzuteko zintzotasuna azpimarratu du Jone Arrazolak: "Zintzotasun handiz jardun dute, hala bizi direlako, zintzo eta fidel euren pentsamenduarekin. Eta guk irudikatu arren otzan duta edo gidaritzapean bizi diren emakumeak direla, 80 bat urte duten emakumeak dira, bizibide luzea dutenak eta pentsamendu aberatsa dutenak, eta zintzotasunez esaten dute haiek ere bidean ikasi egin dutela, kalekoek ikasi duten moduan; haien artean aniztasun handia dago".

**HILAREN 12AN LIBURUA AURKEZTUKO DUTE, ETA 14TIK 25ERA ERAKUSKETA EGIN SANTA ANAN**

### Liburua eta erakusketa

Ikerketaren emaitza liburu baten jaso dute, eta laster egongo da eskuragai herriko liburu dendetan eta liburutegian. Otsailaren 14tik 25era, berriz, erakusketa egongo da Santa Anako sarreran, Aitane Landa Goñiren irudiekin. "Morboa erabat kanpo utzita eta eurekin urtebeteko lanaren ostean sortutako konfiantzazko harremanak" egon dira posible erakusketa, egileen esanetan. "Ustez oso urrun, distante, bizi diren emakume haiengandik oso hurbil" egon direla da lanaren ondorio interesanteetako bat, euren esanetan.

# Lanuzteak egiten ari dira Natran, hitzarmen berria lortzeko

Bi ordukoekin hasi dira aste honetan, eta otsailaren 15era bitartean egingo dituzte, gero eta luzeagoak

**O.E.G.** OÑATI

Natrako langileek lanuzteei ekin diete, hitzarmen berria lortzeko negoziazioetan atzerapausorik ez dutela onartuko aldarrikatzeko. Besteak beste, malgutasuna kentzea eta errelebo kontratuak ezartzea eskatzen dute, orain dauden baldintzetan langileen ongizatea kaltetzen dela iritzita.

Martitzenean egin zuten bi orduko lehen lanuztea, eta baita manifestazioa ere, lantegitik plazaraino. Enpresa batzordeko kide diren ELA eta LAB sindikatuek egoera salatu zuten mobilizazio hartan. Atzorako eta gaurko, egubakoitza, beste bi ordukoak zituzten iragarrita, txanda bakoitzean. Hilaren 15era arte iraungo duten lanuzteak gero eta luzeagoak izango dira: 6an eta 9an lau ordukoak eta 13an eta 15ean egun osokoak. Enpresa batzordeak aurkeztutako mobilizazioekin bat egin zuten langileen %88k urtarrileko asanbladan. GOIENA harremanetan jarri da enpresako zuzendaritzarekin, baina, oraingoz, ez du erantzunik jaso.

## Belakok joko du zapatuan gaztetxean, Ernaik gonbidatuta

*Gazteok zuekin* elkartasun eguna antolatu du zapaturako Oñatiko Ernaik. Mural margotzea egingo dute goizean; eta arratsaldean, presoen aferaren gaineko proiekzioak gaztetxean. Kontzertuak ere han izango dira, 21:00etan: Zinez eta Belako. Ostean, DJ Galtzagorri egongo da. Sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru murriztua.

## Bi antzezlan egongo dira domeka iluntzean Oñatin

Ylana antzerki taldeak *Passport* antzezlana egingo du Santa Anara etzi. Egindako bidaietan bizi izandako anekdota dibertigarrien laburpen bat izango da antzezlana. Hainbat herrialdetako aduanetan eta jatetxeetan gertatzen diren egoerak eta ekitaldi baten aurrekoak eta ostekoak kontatuko dituzte barrea eragingo duen komedia horretan. Hamar eurotan daude sarrerak ohiko tokietan. Antixena gaztetxean, berriz, AEDren ekoizpena den *Ni eta nitarrak* antzeztuko du Iholdi Beristain aktoreak. Zortzi euro izango da sarrera arrunta; hiru murriztua.

Antzezlan biak domekan izango dira, 19:00etan.

## Igeri egiteko saio berria antolatu dute astean bitan

Igerian maila ertaina edo altua izan eta astean bitan igeri egin joan gura dutenendako eskaintza berria sortu dute igerilekuan. Martitzenetan eta eguenetan izango dira igeriketa saio horiek, 19:15etik 20:15ak arte. Talde berria osatzeko izen ematea zabalik dago orain. Horretarako bideak dira: 943-78 63 75 eta *zubikoa@onati.eus*.

## OHARRAK

### Ordutegi aldaketa

Zinemako ordutegiak aldaketak ditu: domeka gauetan ez da saiorik egongo eta zapatu iluntzeetan bai. Zinekluba, 19:30ean.

### Santa eskean

2006an jaiotako 120 gazte inguru irtengo dira domekan eskean. Pake Lekuko Aloña abesbatza ere batuko da santa eskera; 10:00etan joango dira San Martin egoitzara, eta kalez kale gero.

### Inauteri Txikia

Datorren eguenean, hilak 8, ospatuko da aurtengo Oñatiko Inauteri Txikia. Hiru ikastetxeen partaidetza, 15:00etan, Olaitturritik.

DEBAGOIENEKO

# OSASUN ZERBITZUAK

**DENTISTAK**

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**DURANA HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

**GARAI HORTZ KLINIKA**
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**VITALDENT**
Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

**DIETETIKA**

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

**ENTZUMEN ZENTROAK**

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

**KIROPRAKTIKA ZENTROA**

**BIZI KIROPRAKTIKA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

**MASAJISTAK**

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**NEUROLOGIA**

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

**OPTIKAK**

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**ORTOPEDIA**

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

**OSASUN-DIAGNOSTIKOAK**

**UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA**
Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

**PODOLOGOAK**

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

**PSIKOLOGOAK**

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

**PSIKIATRIA**

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# "Boxeolariak bi kontrario ditu: pisua eta pareko aurkaria"

**ANTONIO CABALLERO** BOXEOLARI OHIA

1988an Seulgo Joko Olinpiarretan lehiatu zen arrasatearra, eta handik bueltan boxeoa utzi eta Sevillara joan zen lanera. Zapatuan Uarkapeko jaialdian omendu zuten

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

Antonio Caballero (Arrasate, 1967) da debagoiendarren artean Joko Olinpiarretan parte hartu duen kirolari apurretakoa. Arrasatek eman duen boxeolari nabarmenetakoa, 1988an Seulgo Joko Olinpiarretarako sailkatu zen –Bedoñako Rafa Axpe ere Joko haietan lehiatu zen, plater tiroan–, baina Caballerok GOIENAri aitortu dio esperientzia hark ez ziola bereziki zapore gozoa utzi. Gehiago gozatu zuen beste borrokaldi batzuetan. Esaterako, 1986an, Ordizian, Vallecasko *potro* ezizenez ezaguna zen Poli Diaz handiari aurre egin zionean. 90eko hamarkada hasieran, Expoaren aitzakian, Sevillara joan zen lan bila, eta han bizi da ordutik. Gaur egun, boxeo entrenatzailea da.

**Zer iruditu zitzaizun zapatuan Uarkapen egin zuten boxeo jaialdia?**

Ikusgarria izan zen; harrituta geratu nintzen. Ixa Rodriguezek eta Sorabox-eko lagunek lan handia egiten dihardute inguruan ostera ere boxeoa sustatzeko. Ez pentsa erraza denik jaialdi batera 500-600 lagun eramatea. Sevillan ez dugu halakorik lortzen.

**Arrasateko hainbat boxeolari egon ziren bertan.**

Bai, eta txukun ikusi nituen. Egia da amateur mailako boxeolariak direla; Urrutia, esaterako, hasiberria da. Oraindik esperientzia pilatu behar dute, egin gabe daude. Baina ringera igotzeko egin zuten esfortzuari ematen diot balioa; ez da erraza horra igotzea. Yaman, esaterako, badakit MMAko borrokalaria dela, eta, esan didatenez, hor ondo moldatzen da. Gainera, senitarteko urrunak gara, eta harekin berba egiteko tartea ere izan nuen. Gomendioren bat edo beste eman nion. Ikusten da beste borroka arte batetik datorrela, eta akats batzuk egin zituen, normala den moduan. Esan nion benetan gozatzen duen horretan zentratzeko, eta MMA bada, aurrera. Ez naiz kirol jarduera ezberdinak nahastearen aldekoa.

**Zuk zeuk boxeoan murgilduta jarraitzen duzu gaur egun.**

Bai; Sevillako gimnasio batean egiten dut lan, boxeo entrenatzaile. Lagun batek kickboxing eskolak ematen ditu, eta nik boxeoan jarduten dut. Aurten hiru boxeolari atera ditut, Andaluziako txapeldun izan da bat... Dakidana irakasten saiatzen naiz. Uste dut boxeoak gazteei on handia egiten diela, eta saiatzen gara baliabideak ez dituzten gazteei laguntzen, gimnasioko kuota ordaintzeko kapaz ez direnei ere laguntzen. Beti diot gazteak gimnasioan badaude ez direla kalean noraezean ibiliko. Boxeoa ez da ukabilkadak ematea soilik, errespetuan eta esfortzuan oinarritzen den kirol jarduera da, nahiz eta kanpotik kirol gogorra dirudien. Eta bai, bada. Baina bizitzarako ikasgai asko ematen ditu: diziplina, errespetua, ondokoari laguntzeko kultura...

**Gaztetan, zelan hasi zinen boxeoan?**

San Andres auzoan jaio nintzen, eta, ondoren, Erguingo auzora joan ginen bizi izatera, Malvinetako etxeetara. Hala, gaztetan inguruko krosetara joaten nintzen korrika egitera, baina 13-14 urterekin Musakolako gimnasioan hasi nintzen boxeoan. Orduan, Jose Grille zen entrenatzailea; Arrasaten boxeoaren alde lan izugarria egin duen gizona da Grille, berba onak baino ez ditut harendako. Gure entrenatzailea baino gehiago izan zen, eta hark irakatsi zigun jakin beharreko guztia. Orduko hartan ez genuen ezer ordaintzen gimnasiora joatearren, eta, gainera, borrokaldietan dirutxo bat irabazten genuen. Sasoi hartan taldetxo bat elkartu ginen, boxeoan ibilbide oparoa izan zuten Santi eta Amaio Galan anaiak...


Antonio Cabalerro, aste barruan, Arrasaten. X.U.

Oso talde giro polita geneukan Musakolako gimnasioan.

**Eta amateur mailako borrokaldietan hasi zineten...**

Bai; Errenterian egin nuen lehen borrokaldia, 1981ean. Donostian, Ordizian, Arrasaten bertan... Beste lurralde batzuetako jaialdietara ere joaten ginen; oroitzapen onak dauzkat. Gogoan ditut Grillek Arrasaten [Musakolako kiroldegian] antolatu zituen jaialdiak. Guretako plazer hutsa ziren: etxean bertan lehiatzea, etxekoen eta lagunen aurrean... Tira, uste dut gurasoak ez zirela inoiz etorri borrokaldi batera [Barre], baina lagunak bai etortzen ziren.

**Espainiako txapelketetan ere lehiatu zinen.**

Bai, hiru urtez. Tenerifen 1984an diploma irabazi nuen, Almerian 1986an brontzezko domina eta 1987an zilarra. Denbora tarte hartan beste hainbat borrokaldi izan nituen. Esaterako, lehen aipatu dudan Poli Diazen kontra egin nuen borroka ondo gogoan daukat. Ordizian jendetza batu zen jaialdi hartan, eta ikuskizun ona eman genuen biok, ikusleak pozik joan ziren etxera, nahiz eta epaileek baliogabeko borrokatzat eman zuten; alegia, berdindu egin genuen.

**Espainiako selekzioaren deia iritsi zitzaizun arte...**

Soldaduska egiten nenbilen orduan (1987), Loiolako kuartelean, eta hautatzaileak deitu ninduenean baiezkoa eman nuen, bereziki, soldaduskatik alde egiteko. Berez ez zidan grazia handirik egiten selekzioarekin egonaldiak egiteak, baina soldaduskan baino hobeto egongo nintzelakoan esan nuen baietz. Entzunda neukan hautatzailea oso zorrotza zela... Ez pentsa oso konbentzituta joan nintzenik. Baina bi urtez egon nintzen selekzioarekin, Pontevedran, Madrilen... Nazioartean ere borrokak egiten genituen... Urte haietan boxeoan jardun nuen %100. Hala ere, urte gogorrak izan ziren, etxekoengandik urrun...

**1988ko Seulgo Joko Olinpiarrak gainean zeuden, eta serio prestatzen hasteko ordua zen...**

Hori da; urte hartan nazioartean hainbat borrokaldi egin nituen: Parisen, Venezian, Grezian... Haiek Joko Olinpiarretara sailkatzeko aurretorneoak ziren. Grezian, esaterako, zilarra irabazi nuen eta Espainiako beste bi boxeolariren kontra lehiatu

nintzen: Bonifacio Martin Ochaita eta Oscar Vega. Urte hartan Bonifacio eta biok sailkatu ginen Seulerako, eta 1992an Oscar Vega ere Jokoetan izan zen.

**Olinpiar Jokoek ez zizuten zapore onik utzi; zergatik?**

Motibo askorengatik. Berez nirea baino bi kategoria arinagoetan lehiatu behar izan nuen, eta horrekin asko sufritu nuen. Nik denbora askoan 54 kiloz azpiko kategorian egin nuen borroka; alegia, luma-pisuan. Seulgo Joko Olinpiarretarako, berez, 51 kiloz azpikoan lehiatu behar nuen; hau da, euli-pisuan. Kontua da, baina, Bonifacio Martin eta biok pisu berean geundela, eta niri eskatu zidaten hurrengo pisura jaistea; alegia, mini euli-pisura. Horrek esan nahi zuen 48 kilo baino gutxiago pisatu behar nuela.

**Zelan moldatu zinen pisu horretara iristeko?**

Gogoan dut Seulera joateko hegaldia hartu aurretik oraindik ez nuela pisurik ematen. Hegazkinera igo behar nuen unean pisatu egin nintzen, eta 48 kilo eta 300 gramo nituen. Seulen gorriak eta bi ikusi nituen. Hamabost egunez itxaron behar izan nuen han nire borrokaldia iritsi aurretik. Ia jan gabe, deshidratatuta, gauetan lo egiten nuen bitartean izerdia botatzeko plastikoak jartzen nituen gorputzaren bueltan, eta egunean birritan entrenatzen ginen. Ez nuen gozatu, ez.


Antonio Caballero, joan den zapatuan, Uarkapen egin zioten omenaldian. PERU ATXA


Caballero, gaztetan. ARTXIBOKO IRUDIA

**Ez zenituen beste kirolariak ikusi?**

Boxeo kanporaketa batzuk ikusi nituen, eta onena izan zen atletismoan 100 metroko lasterketa ikusi ahal izan nuela. Ben Johnson eta Carl Lewis aurrez aurre ikusi nituen; ondoren, Johnsonek positibo eman zuen eta urrea Lewisi eman zioten... Gogoan dut euren abiadurarekin txundituta geratu nintzela. Gainontzean, entrenatu eta hotelean atseden hartu, ez nuen besterik egin.

**Ez dira borrokaldi batera joateko kondizio onenak...**

Ez; oso makal joan nintzen. Lehenengo borrokaldian Vietnamgo Dang Hieu boxeolariak kanporatu egin ninduen. Esango nuke borrokaldia kontrolpean izan nuela une oro, baina pare bat esku sartu zizkidan eta une baten lurrera joan nintzen. Ez nuen borrokan jarraitzeko arazorik, baina epaileak borrokaldia geratzea erabaki zuen. Egia esan, momentuan ez nuen erabaki hura ondo ulertu. Baina tira, ez nuen egun ona izan; kirola halakoa da.

**"OLINPIAR JOKOETARA JOATEKO PISUA GALDU BEHARRA NEUKAN; GOGORRA IZAN ZEN"**

**"JOSE GRILLEK IRAKATSI ZIGUN BOXEOAREN BUELTAN JAKIN BEHAR GENUEN GUZTIA"**

**"BOXEOAK OINARRI ONAK EMATEN DITU BIZITZARAKO: ERRESPETUA, DIZIPLINA..."**

**Eliteko kirola eta osasuna batzuetan ze urrun dauden...**

Gaur egun pentsatzen dudanean garai hartan zelakoak egiten genituen... Anaia guztien artean ni naiz txikiena, eta garbi daukat gaztetan pisua zaintzeko egiten genituen gauzen ondorioa ere badela; ez nintzen behar den moduan hazi. Boxeolariak bi etsai izaten ditu: aurrean izan behar duen kontrarioa eta pisua. Borrokaldi baten aurrean pisua eman behar duzunean, eta pisu hori 48 kilo azpikoa bada... Gaur egun nire ikasleei ez diet elikadura mugarik jartzen; egon daiteke gazteren bat ikusten duzuna gizen samar dagoela, eta horrekin egin daiteke bestelako lanketa bat, baina entrenatze hutsarekin joango dira pisua galtzen eta gorputza egiten. Izan ere, gazteek hazi egin behar dute ondo; aurrerago etorriko dira pisua galtzeko saiakerak, eta horiek ere ondo egin behar dira. Baina ez, ez dute osasunarekin zerikusirik.

**Pisaketaren ostean ordu gutxian kiloak errekuperatzen dituztelako.**

Nik ikusi dut borrokaldi baterako 10 kilo galdu dituena eta pisaketaren ondoren ordu gutxian 8 kilo errekuperatu dituena. Hori ez da ona, ez.

**Seulgo Joko Olinpiarren ondoren eskularruak zintzilikatzea erabaki zenuen; zergatik?**

Nik ere neure buruari egin izan diot galdera hori. Arrasatera bueltatu nintzenean, Udaletik lanposturen bat izango nuela agindu zidaten, baina ezerezean geratu zen promes hura. Garbi neukan hurrengo Joko Olinpiarretara joateko ez neukala beste lau urtez boxeoan horren zorrotz jarduteko gogorik. Seulgo hitzordua prestatzeko familiatik urrunduta ibili nintzen, gogor entrenatzen... Nekatu egin nintzen bizimodu harekin. Eta Sevillan Expoa egin behar zutenez, han bazegoen lana. Baina bai, boxeo jaialdietan parte hartzen jarrai nezakeen, eta ez nuen egin, boxeoa utzi nuen. Seulen ondoren beherakada izan nuen; nik uste dut motibazioa galdu nuela. Eta gaztea ere banintzen.



# "Ildo beretik doa, baina ez da bigarren zatia"

**JOSU ARTEAGA** IDAZLEA

'Memorias de la mar ciega' liburua idatzi du; otsailaren 9an aurkeztuko du, Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan, Patxi Irurzun idazlearekin

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Irakurle amorratua da, eta hala ikusten du bere burua; idazlea baino gehiago irakurzalea dela dio, nahiz eta dagoeneko badituen hark sinatutako bi eleberri. Arrasateko Bibliotekak antolatuta, *Memorias de la mar* argitaratu berria aurkeztuko du jaioterrian datorren asteko egubakoitzean.

**Pozik zaude bigarren liburua eskuetan duzula?**

Bai, oso gustura emaitzarekin, baina ondoren dakarren aurkezpen eta bestelako promozio-lanetan ez naiz horren eroso sentitzen; hala ere, liburu baten atzean jende askoren lana dago: itzultzailea, diseinatzailea, zuzentzailea, editorea, zabalpenarekin arduratzen dena.... Beraz, haien guztien lanari balioa emateko esfortzu txiki bat egin behar dudala uste dut.

**Orain dela hamahiru urte, *Historia universal de los hombres gato* arrakastatsua idatzi zenuen; berria haren bidetik doa?**

Ez nuke esango haren bigarren zatia denik bete-betean, baina ildo beretik doa. Berria ulertzeko ez da ezinbestekoa aurrekoa irakurrita izatea.

**Istorio gordinak kontatu dituzu oraingoan ere.**


Josu Arteaga. 'TXALAPARTA.EUS'




**MEMORIAS DE LA MAR CIEGA**

- **Idazlea:** Josu Arteaga.
- **Generoa:** Eleberria.
- **Orri kopurua:** 200.
- **Argitaletxea:** Desacorde.

Bai, istorio batzuk oso gogorrak dira. Euskal Herrian bizi izan ditugun gertaera asko gogora ekarrita: biolentzia, herri txikietan bereziki izan ohi diren bizilagunen arteko tira-birak…. Baina oinarrian, mezu baikorra dagoela uste dut.

**Olariz herrian kokatuta dago.**

Bai; aurreko liburuan asmatu nuen herria da, herri txiki batek dituen ezaugarri propioekin.

**Umore beltza; hala definituko dugu?**

[Barre] Umore beltza etxeko marka da.

**Maitagarriak besteko gorrotagarriak dira zure pertsonaiak.**

Hala da liburu honetako protagonista ere; maitagarria da batzuetan eta pertsona eskasa beste hainbat egoeratan; bizitzan gertatzen den moduan, ezta? Kontraesanak dituen pertsonaiak gustatzen zaizkit, alde iluna eta gozoa dutenak. Haurtzaroan edo gaztaroan ezagutu nuen landa eremuko pertsonaren batek inspiratuta sortuko nuen, seguruenez. Nik, idazleak, beharrean, hark berba egiten duela dirudi, hark kontatzen du istorioa.

**Kokatuko gaituzu istorioan?**

Istorio nagusi bat kontatzen dut, eta, hori kontatzeko, horren bueltan istorio pila bat agertzen dira, eta, gainera, istorio horiek gezur moduan kontatzen ditut hasieratik. Bukaeran egia handi bat gorpuztuko da; jolas moduko bat da. Asko irakurtzen dut, eta, seguruenez, askotariko eraginak islatuko dira nire idazkeran.

**Dagoeneko jaso dituzu irakurle batzuen iritziak; zer diote?**

Harrera oso polita ari da izaten; politegia, akaso.

**Patxi Irurzun idazle eta zure laguna izango duzu alboan aurkezpenean; eredu duzu Irurzun?**

Zalantza barik, idazlea da-eta hura; egunero idazten du, prentsan zein askotariko agerkarietan, haren ogibidea da, eta ez da hori nire kasua. Arreta handia jartzen dut haren idazlanetan, oso barrura sartzen zaizkit.

**Zer dio zure bigarren lanari buruz?**

Sekulako lore-sortak bota ditu!

**Gazteleraz idatzi duzu, baina frantsesez irakurtzeko aukera ere izango da laster, ezta?**

Hala da; kasualitate askoren batura izan zen aurreko liburua frantsesera itzultzea; ni horren bila joan barik jaso nuen proposamena, eta, nola ez, baiezkoa eman nion. Harrera oso ona izan zuen, eta bigarrenarekin ere hala egingo dugu. Dagoeneko itzulita dago eta argitaletxera bidaltzeko prest; hortaz, badirudi frantsesezko bertsioa aterako dela.

**Non eskuratu daiteke liburua?**

Kulturateko aurkezpenean ale batzuk izango dira, Desacorde argitaletxearen atarian ere eros daiteke eta liburu denda askotan ere badago.

**"ISTORIO BATZUK OSO GOGORRAK DIRA, BAINA LIBURUAK, OINARRIAN, MEZU BAIKORRA DU"**

# AEDk sortutako 'Ni ta nitarrak' bakarrizketa Antixenean

Etzi, domeka, egingo du Iholdi Beristainek ikuskizuna, 19:00etan, Oñatiko gaztetxean

**A. Aranburuzabala** OÑATI

*Buah txabal!* eta *Erdaldun berrien kluba* bakarrizketa "arrakastatsuak" sortu ostean, iazko urrian estreinatu zuen AED euskara elkarteak hirugarrena. Harrezkero, herri askotan eskaini dute –Atxondon, Lizarran, Barakaldon, Portugaleten, Zizur Nagusian eta Garesen–, eta etzi Oñatin izango da ikusgai.

Maria Osesek idatzitako gidoia du eta Iholdi Beristain aktoreak antzezten du. "Maria Isabel naiz ni eta dramak kontatzera nator; betiere, umoretik. Izan ere, umorea tresna oso potentea iruditzen zait nahi duguna esateko. Ez ditut gauza arraroak edo ezohikoak kontatzen, egunerokotasuneko kontuak baizik. Umoretik eta mediokridadearen apologia garbia eginez", dio Beristainek.

**"Dibertigarria"**

AEDk aurrez sortutako bakarrizketak bezala, ez da *stand up* formatuko saioa, antzerkiko osagaiak ere badituelako. "Dibertigarria da, eta ondo pasatuta hausnartzera bultzatzen du. 15 urtetik gorakoentzako gomendatzen dugu; gazteek hurbilago sentituko dute kontakizuna, baina helduentzako ere aproposa da, gure paperean sartzeko".

JULIO SOTO
BERTSOLARIA
GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'
OTSAILAREN 7AN, EGUAZTENA, 19:30, 21:30 ETA 23:30
JUAN KRUZ LAKASTA KAZETARIAK EGINDAKO ELKARRIZKETA
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.


# Euskararen aurkako zauriak, filmean jasota

Josu Martinez zinemagileak egin duen 'Bizkarsoro' filma Oñatiko zinema-aretoan eskainiko dute gaur hasi eta astelehena bitartean; martxoaren 12an Arrasaten izango da ikusgai, eta ari dira eskualdeko beste herri batzuetatik eskaera gehiago jasotzen

**A. Aranburuzabala** OÑATI



Josu Martinez zuzendaria taldekide batekin *Bizkarsoro* filma errodatzen. 'BIZKARSORO'

Euskara jomugan duen oldarraldia aspalditik datorren auzia da, eta hala erakutsi nahi izan du Josu Martinez zuzendariak. "Bizkarsoro herria ez da existitzen, baina, era berean, Euskal Herriko edozein herri izan daiteke. Bizkarsorotarrak fikziozko pertsonaiak dira, eta, era berean, euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztiak dira bizkarsorotarrak. 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istoriok osatzen dute *Bizkarsoro*. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost testigantza, XX. mendeari errepaso soziopolitiko, ekonomiko, kultural eta linguistikoa emateko asmoz", azaldu dute filmaren egileek.

Dokumentalgintzan trebatuta dagoen Martinezek sortutako fikziozko lehen film luzea da, su txikian gozo-gozo egosi duena, bost urtean egindako grabaketak biltzen ditu eta. Iazko Donostia Zinemaldian aurkeztu zuten eta urtarrilaren 12an estreinatu zuten zinema-aretoetan. Harrera ona izan du filmak ikusleen zein kritikarien aldetik. "Oso pozik nago, eta harrituta; ez nuen uste horrenbesteko harrerarik izango zuenik. Esango nuke horrek adierazten duela seguruenez badela jende askoren barruan euskaraz bizitzeko trabak sortutako zauri hori, nahiz eta askotan euskararen normalizazioa konpondutako auzia dela adierazten duten batzuek. Trauma asko daudela sumatzen nuen, eta hala ikusi dugu filma egiterakoan; mahaiaren gainean jartzea garrantzitsua da, bizitzako edo gizarteko beste gai batzuekin egiten diren zapalkuntzak salatzen edo erakusten diren moduan", kontatu du filmeko zuzendari Josu Martinezek.

### Oñatin asteburuan

Korrika Kulturalaren egitarauaren baitan eskainiko dute gaur, Oñatiko kultura etxean dagoen zinema-aretoan, 22:00etan; baina astelehena bitartean beste hiru emanaldi gehiago izango dira (Ordutegia ikusgai 39. orrian).

Martxoaren 12an Arrasateko Amaia antzokian izango du filmak hurrengo geltokia, eta han izango da Josu Martinez zuzendaria. Filmaren gaineko informazio gehiago *Bizkarsoro.eus* atarian dago eskuragarri; adibidez, agenda eguneratua.

## 'Popperra, afterra eta utopia' ikuskizuna kartzela zaharrean

Danele Sarriugarte idazleak eta Miren Narbaiza musikariak eskainiko dute, otsailaren 8an, 20:00etan

**A.A.J.** BERGARA

Iazko Bilboko Loraldia jaialdian estreinatu zuten hitzak eta musika osagai nagusi dituen *Popperra, afterra eta utopia* izeneko ikuskizuna; Danele Sarriugarteren idatzi batetik abiatuta sortutakoa da. Eskarmentu handia duten bi sortzaile izango dira Bergarako gaztetxeko taularen gainean: Danele Sarriugarte Elgoibarko idazlea eta alboan izango duen Miren Narbaiza *Mice* musikari eibartarra. Askotariko gaiei erreferentzia egingo diete ikuskizunean zehar: doluari, dantzari, irudimenari eta etorkizunari, besteak beste. Idazlearen kontakizunak, baina, Miceren zuzeneko musika izango du lagun; estilo eta garai askotariko doinuak eskainiko ditu Sarriugarteren hitzak apaintzeko; boleroa, reggaetona eta elektronika, esaterako.

Otsailaren 8an izango da estreinakoz Debagoienean ikusteko aukera: Bergarako kartzela zaharrean, 20:00etan hasita.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO IRABAZLEAK

SPC LIBURU-IRAKURGAILUA
Maria Milagros Kortabarria Guridi (Oñati)
HARREMAN DENDAKO OTARREA
Imanol de la Varga Urzelai (Oñati)
ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Enrike Txurruka Larrañaga (Bergara)
Amaia Balda Etxarte (Bergara)
Miren Segura Arkauz (Eskoriatza)
HILARION JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Iñaki Olalde Altzelai (Oñati)
MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ainhoa Zeziaga Elexpuru (Arrasate)
ARANTZ JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Marijo Kortabarria Guridi (Oñati)
'ANDEREÑO' HAUR ANTZERKIRAKO SARRERAK
Anartz Agirre Madariaga (Elgeta)
'KORTXOAREN DILEMA' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Mikel Sarasola Astiagarraga (Arrasate)
'ANTOLOGIA DE LA ZARZUELA' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Juan Luis Isasmendi (Eskoriatza)
Olhana Solupe Amozarrain (Aramaio)
Aitor Ezkurra Uribeetxeberria (Arrasate)
REALAREN ETA RAYO VALLECANOREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Mirari Arando Ilardula (Arrasate)
REALAREN ETA Alavesen ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Amaia Billar Inza (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:
**Arrikrutzeko sarrerak.** ... ARRIKRUTZ KOBAK. ... **Otarrea** ... **Liburu-irakurgailua,** ... GOIENA Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. ... 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Esnearen kolorekoa' antzerkirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia antzokia | Otsailak 11 | 19:30
PARTE HARTZEKO:
**E-postaz:** goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "Esnearen kolorekoa" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
SIRIMIRI JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: otsailak 6.
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### 1. ETXEBIZITZAK

#### 102. EROSI

**Etxea erosiko nuke Arrasaten.** 3 logeladun etxea erosiko nuke Arrasaten. 653 70 84 09

#### 104. ERRENTAN HARTU

**Pisu bila Arrasaten.** Alokairuan hartzeko 3 logela dituen pisu bila nabil Arrasaten. Lan kontratu finkoa dut eta pertsona oso arduratsua naiz. 633 05 22 60

### 2. GARAJEAK

#### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasaten garajea errentan eman.** Arrasateko Olarte kalean garajea itxia errentan ematen da. Interesatuak deitu zenbaki hauetara.660 80 09 62 Ana edo 658 75 94 31 Josetxu

### 4. LANA

#### 401. ESKAINTZAK

**Oñatin zerbitzaria behar da.** Zerbitzaria behar da Oñatiko taberna batean. 699 24 56 19

#### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Astelehenetik ostiralera, 9:30etatik aurrera pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 689 50 70 54

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Astean zehar zein asteburuetan orduka lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 695 12 06 79

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu, konpainia egin edo pasiatzera ateratzeko gertu. Garbiketa lanak egingo nituzke etxe zein bulegoetan. Esperientzia asko duen emakumea naiz. Goizetan lan egiteko prest. Telefonoa: 651 02 03 14

**Debagoiena.** Persona nagusiak zaintzen, gabiketa lanetan edota sukaldari lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 602 87 65 07

**Debagoiena.** Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, orduka, pertsona nagusien zaintzan eta garbiketa lanetan. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak ditut. 666 16 95 62

**Debagoiena.** Astelehenetik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehenetik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezinhobeak ditut. Telefonoa: 641 10 95 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Legezko agiriak ditut. Soziosanitario tituluduna. 677 00 90 26

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaindu eta ospitalean zaintzak egiteko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Malgutasuna, astelehenetik ostiralera zein asteburuetan. Interesa duzuenok, deitu zenbaki honetara. Telefonoa: 666 07 42 98

**Debagoiena.** Emakumezkoa etxeen garbiketa egin eta nagusiak zaintzeko prest. Egunean zehar edo gauez lan egingo nuke. 691 28 53 25

**Debagoiena.** Emakumezkoa pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 658 92 43 73

**Debagoiena.** Emakumezkoa prest nagusiak zaindu, garbiketa lanak, etab egiteko. Astelehenetik ostiralera, goiz zein gauez (arratsaldeak okupatuta). 647 314 817

**Debagoiena.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 86 49 00

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edo konpainiak egiteko gertu, baita garbiketa lanak eta margolari lanak egiteko ere. Garbiketak egiteko kurtsoa egina dut. 631 60 13 62

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar eta asteburuetan, egunez zein gauez lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut. 626 91 49 04

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. 631 96 46 33

**Debagoiena.** Etxeen, hotelen, tabernen. . garbiketak egin, nagusiak zaindu eta ostalaritzan lan egingo nuke. Esperientzia dut, baita malgutasuna ere. 631 91 71 69

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko prest nago. 688 65 32 00

**Debagoiena.** Goiz, arratsalde eta gauetan, orduka, lan egingo nuke. Ume zein nagusiak zaindu eta etxeen garbiketa lanak egiteko prest. Neska gazte eta arduratsua naiz, esperientzia askoduna. Telefonoa: 672 78 04 30

**Debagoiena.** Goizetan, zaintzan edo garbiketan lan egiteko prest nago. 651 96 78 69

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke arratsaldetan. Legezko agiriak eta soziosanitario ikasketak eginak ditut. 634 02 11 87

**Debagoiena.** Neska atsegina, umeak eta nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Malgutasun osoa. 687 45 91 76

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zainduko nituzke. Garbiketa lanak egiteko gertu, etxe zein enpresetan. Azalera handiko garbiketak egiteko titulua dut. Malgutasuna. Telefonoa: 602 44 48 98

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke orduka. Soziosanitario titulua ateratzen ari naiz. Telefonoa: 612 56 12 39

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Telefonoa: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Telefonoa: 602 82 64 84

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Soziosanitario titulua dut. Deitu 632 19 08 26 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu , pasiatzera atera edo konpainia egiteko gertu. Astelehenetik ostiralera edozin ordetegitan lan egingo nuke. 624 69 88 81

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke. 604 23 85 31

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxe zein ospitaletan. Orduka lan egiteko prest nago. Soziosanitario titulua dut eta behar izanez gero, gomendiozko gutuna. 647 31 48 17

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka, astean zehar edo asteburuetan, egunez zein gauez. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua dut. 602 01 32 58

### 5. IRAKASKUNTZA

#### 501. JASO

**Eskola partikularrak jaso Oñatin.** Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak behar ditu Oñatin, ahalik eta azkarren. 656 75 38 26

Bergarako Udala

**Lan eskaintza**

Bergarako Udalak erabaki du lehiaketa-oposizio irekiaren bidez aldi baterako izendapen premiei erantzungo dien **ARKITEKTOEN** lan-poltsa osagarria osatzeko presazko deialdia egitea eta hori arautzen duten oinarriak onartzea (Espediente zenbakia: 2024LAAU0001).

Oinarriak eta deialdiaren informazioa Bergarako Udaleko webgunean argitaratu dira www.bergara.eus, *Udal lan eskaintza* atalean.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 9an bukatuko da.

Bergara, 2024ko urtarrilaren 31
IDAZKARIA

Korosti inmobiliaria

**Bergara: Zubiaurre, 61m²** erabilgarri, 2 logela, balkoia eta argi natural askorekin.
**120.000€**



**Antzuola: Irimo Barrena,** 425m² erabilgarri, herrigunetik gertu eta bista garbi ikusgarriekin. Bizitzeko aproposa.
**190.000€**



**Bergara: Iriburu,** 73m² erabilgarri, oso eguzkitsua eta kanpoaldekoa. Igogailua duen eraikinean kokatua.
**165.000€**



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
Informazio gehiago:

**IRAGARKIA JARTZEKO:**

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Nora González Nebreda**
Otsailaren 8an, 5 urte. Zorionak, Nora, familiaren partetik. Asko Maite zaitugu.



ANTZUOLA
**Aitzol Gabilondo Olaortua**
8an, 8 urte. Zorionak! Eun ederra pasa ta muxu haundi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Agate Etxebarria Zabala**
6an, 9 urte. Zorionak! Jarraitu alai eta jatorra izaten. Asko maitxe zaitxugun zure familixia! Bereziki Kerman!



OÑATI
**Ekhi Erretolatza Agirre**
3an, 6 urte. Zorionak! Ondo pasa zure eguna! Maitte zaitugu! Etxekoak.



BERGARA
**Markel Gallastegi Sanchez**
2an, 3 urte. Zorionak! Asko maitxe zaitugu. Aitatxo, amatxo ta familiaren partetik.



ARRASATE
**Oxel Brasa Alonso**
2an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasau eguna! Patxo bat bereziki amatxo ta aitatxon partetik.



BERGARA
**Maren Fernandez Lopez**
2an, 10 urte. Zorionak! Oso ondo ospatuko dogu! Muxu bat familian partetik.



OTXANDIXO
**Ane Arejolaleiba Carrasco**
1an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo bat Atxabaltatik.



ARRASATE
**Ibai Alonso Tena**
31n, 4 urte. Zorionak! Primeran pasa eguna. Asko maite zaitugu etxeko danok!



BERGARA
**Irati Larrea Perez**
31n, 9 urte. Zorionak! Ondo pasau urtebetetze eguna eta patxo bat familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Unax Zuazo Oianguren**
Urtarrilaren 31n, 12 urte. Zorionak, Uni! Ederto ospatu zure eguna eta ez ahaztu iñoiz asko maite zaittugula!



ARRASATE
**Ilargi Martin Arias**
29an, 14 urte. Zorionak! Primeran pasa dugu zure eguna! Laztan bat etxekoen partetik!



BERGARA
**Naroa Manso Beistegi**
28an, 6 urte. Zorionak! Asko maite zaitxugu. Patxo bat etxekoen eta bereziki Unaien partetik.



BERGARA
**Markel Gimber Garcia**
28an, 7 urte. Zorionak! Patxo haundi bat danon partetik ta bereziki Malenen partetik.



OÑATI
**Beñat Urkia Goenaga**
24an, 7 urte. Zorionak, bihotza! Muxu eta besarkada handi etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Izar Zubizarreta Velasco**
4an, 7 urte. Zorionak! Egun earra pasaukou! Besarkada eta patxo erraldoiak!



ARETXABALETA
**Intza Eraña Larrea**
6an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Egun ederra izan eta muxu haundi bat denon partetik!



ARETXABALETA
**Ibai Urkia Berezibar**
1ean, 12 urte. Zorionak! Ondo pasau eguna txapeldun! Patxo handi bat danon partetik.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**ANTZUOLAKO ALKATEARI ELKARRIZKETA**
Olatz Lezeta elkarrizketatuko du Goiatz Aranak, agintea hartu eta zazpi hilabetera.
*'Harira'* *Egubakoitza, 18:20, 20:20 eta 22:20*



**HARAT TALDEAREN ZUZENEKOA**
Ibai Gogortzaren taldeak Kooltur Ostegunetan egindako emanaldia osorik ikusteko aukera.
*'Kooltur ostegunak'* *Egubakoitza, 19:30, 21:30 eta 23:30*



**LANDAKETA GARAIA**
Tantaiko kide Aitor Kortabarria Iparragirrerekin egingo du berba Julen Muruak.
*'Landara'* *Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**SASKIBALOIAREN LABURPENA**
Mondragon Unibertsitateak eta Araskik jokatuko duten partiduaren laburpena ikusteko aukera.
*'Harmailatik'* *Astelehena, 19:30, 20:30 eta 22:30*



**JULIO SOTORI ELKARRIZKETA**
Juan Kruz Lakastak egingo dio elkarrizketa, Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen leku berean.
*'Elkarrizkettap'* *Eguaztena, 19:30, 21:30 eta 23:30*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

URTEURRENA

### Antonio Bragado Villarejo



2023ko otsailaren 6an hil zen, 76 urte zituela.

*Gure artean egunero.*
*Maite zaitugu.*

Etxekoak.
Arrasaten, 2024ko otsailaren 2an.

URTEURRENA

### Maria Isabel Altube Goenaga



2023ko otsailaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da,
otsailaren 3an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2024ko otsailaren 2an.

ESKER ONA

### Maria Dolores Pujana Maiztegi



2024ko urtarrilaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

*Hainbeste urte zure aulkitxoan,*
*beti pozik eta irribarretsu.*
*Ez ditugu ahaztuko zure abestiak,*
*zure esaerak*
*eta oztopo guztien gainetik*
*bizitza emozioz bizitzeko kemena.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko otsailaren 2an.




## HILDAKOAK

**Amaia Mondragon Leanizbarrutia.** Aramaion, urtarrilaren 27an. 89 urte.
**Elena Muñoz Muñoz.** Antzuolan, urtarrilaren 27an. 85 urte.
**Fermin Galdos Ajuria.** Arrasaten, urtarrilaren 26an. 94 urte.
**Asensio Ezpeleta Urkia.** Arrasaten, urtarrilaren 28an. 84 urte.
**Jesus de la Maza Aranguren.** Zarautzen, urtarrilaren 25ean. 86 urte.
**Milagros Murguzur Yarza.** Arrasaten, urtarrilaren 28an. 95 urte.
**Mariano Losa del Peso.** Arrasaten, urtarrilaren 29an. 87 urte.
**Maria Dolores Pujana Maiztegi.** Bergaran, urtarrilaren 27an. 89 urte.
**Javier Aguirre San Vicente.** Oñatin, urtarrilaren 27an. 81 urte.
**Maritxu Arkauz Urzelai.** Oñatin, urtarrilaren 27an. 90 urte.
**Ricardo Fernandez Dominguez.** Aretxabaletan, urtarrilaren 31n. 58 urte.
**Carmelo Hermosa Castañeda.** Aretxabaletan, urtarrilaren 31n. 97 urte.



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## BERRI-ZAKUA



**1956ko kintoak**
1956an jaiotako bergararrak mahaiaren bueltan batu ziren aurreko zapatuan. Zumelaga jatetxean elkartu ziren 31 lagun. Bazkalostea Julen Narbaiza DJak girotu zuen.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 2

**ARRASATE Ate irekiak Okendoko ludotekan**
Sukaldaritza tailerra egingo dute.
*Ludotekan, 17:00etan.*

**BERGARA 'Hona bostekoa!' erakusketa**
Kote Camachoren lanak ikusteko aukera, hilaren 16ra arte. Gaur zabalduko dute.
*Aroztegi aretoan, 18:00etan.*

**OÑATI Txistorra eta San Blas opilak**
Lokarriak ere egongo dira Lagun Leku erretiratuen elkarteko lokalean.
*Eltzian, 18:30ean.*

**OÑATI 'Bizkarsoro' filma**
Josu Martinezek zuzendutako fikziozko pelikula, Korrika Kulturalaren baitan, euskarazko azpitituluekin. Sarrerak, bost euro.
*Zinema-aretoan, 22:00etan.*

**BERGARA Danger eta John Dealer And The Coconuts taldeak**
Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

**BERGARA Laino Beltzak taldea**
Arranotik Sortuz ekimenaren baitan. Debalde.
*Arrano tabernan, 22:30ean.*

## ZAPATUA 3

**BERGARA San Blas eguna**
08:00etan, etxafuegoak; 11:00etan, meza nagusia eta opilen bedeinkapena, eta ostean, auzo elkartean, salda eta txorizoa; 12:00etan, Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia eta haurrendako kukainak; eta 16:00etan, mus txapelketa.
*Buruñao auzoan.*

**ELGETA Koko-batzea**
Baserriz baserriko eskea, hirugarrenez, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta.
*Elgetan, 09:00etan.*

**BERGARA Gimnasia erritmikoa: Gipuzkoako amateur txapelketa**
Egun osoan.
*Labegaraietan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA San Blas eguna**
Salluente ermitan meza esango dute, eta, ostean, etxetik eroandako jakiak bedeinkatuko dituzte.
*Apotzagaetxebarri auzoan, 10:30ean.*

**ARRASATE Palestinar Erresistentziaren Eguna**
11:00etan, Taher Alirekin solasaldia; 12:30ean, murala margotzea; 14:30ean, bazkaria; eta 23:00etan, DJ Tasaund System.
*Gaztetxean.*

**OÑATI 'Gazteok zuekin' elkartasun eguna**
Ernaik antolatuta. Goizean, murala margotzea; eguerdian, bazkaria, eta, ostean, presoen aferaren inguruko hainbat proiekzio; arratsaldean, bafle-poteoa; eta 21:00etan, Zinez eta Belako taldeen kontzertuak. Azken horretarako sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru euro murriztuak.
*Antixenean, 11:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Ordutegia: 11:30-13:30.
*Musakolako gazte txokoan.*

**ARETXABALETA Korrikaren arropa salmenta**
Korrika batzordearen eskutik.
*Durana kalean, 11:30ean.*

**ESKORIATZA Kintaden Eguna**
Iaz moduan, zenbait kintadak kiroldegian egingo dute elkarrekin, herri bazkari eran.
*Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA San Blas eguna**
Meza eta hamaiketakoa egingo dute.
*San Blas baselizan, 12:00etan.*

**ARETXABALETA Txapel Txin Eguna**
12:00etan, erraldoi eta gaiteroekin kalejira; 13:00etan, kalejira Txapel Txinekin; 16:00etan, bola-txapelketa gazte eta infantil mailakoendako; 17:00etan, Piratak kale-animazioa; 18:45ean, kalejira eta pregoia; 19:00etan, DJ Matraka; 21:00etan, Kaparrak taldea; eta 22:30ean, bola-txapelketa.
*Aretxabaletan.*

**ARRASATE San Blas opila prestatzeko saioa**
Gaztetxoendako.
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Bizkarsoro' filma**
Josu Martinezek zuzendutako fikziozko pelikula, Korrika Kulturalaren baitan, euskarazko azpitituluekin. Sarrera bost euro kostako da.
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**BERGARA Ikasfest**
Hankaz Gora, Laino Beltzak eta Iltze taldeak. Ostean, DJ Ezteuste eta Zatekeen erromeria taldea. Sarrerak: ikasleak lau euro eta langileak bost.
*Kartzela zaharrean, 20:00etan.*

## DOMEKA 4

**ARETXABALETA Kintoen Santa Ageda eskea**
2005ean jaiotakoak ibiliko dira kantuan eta eskean, auzoetan eta kaleetan.
*Herriko auzoetan, 07:00etan.*

**ANTZUOLA Zuhaitz Eguna**
Bertako zuhaitzak landatuko dituzte Azaldegietan.
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

**ARAMAIO Patinaje ikastaroa**
Gaur, lehenengo saioa. 10:30ean, Haur Hezkuntzako 3. eta 5. mailetakoak eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetakoak; 11:15ean, Lehen Hezkuntzako 4., 5., eta 6. mailetakoak; eta 11:30ean, gurasoak.
*Kiroldegian.*

**OÑATI Santa eskea**
Txinparta bertso eskolakoen eskutik. 09:30ean gosalduko dute, gaztetxean, eta Urrexolara abiatuko dira 10:30ean. Deialdi irekia da.
*Oñatin.*



YLLANA

**OÑATI 'Passport' antzezlana**
Yllana taldearen ikuskizuna. Komedistan izeneko herrialde batera bidaiatzen duten lau komikoren istorioa kontatzen du. Taldeak berak egindako bidaietan bizi izandakoak batu dituzte. Sarrerak, hamar euro.
*Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.*

**BERGARA Santa Ageda bezpera**
12:00etan, San Joxepe elkarteko koruaren emanaldia; 12:30ean, Kantu Jira herrikoia; eta 18:00etan, Alai Berri taldearen kantu emanaldia.
*Bergaran.*

**ANTZUOLA Santa Ageda bezpera eguna**
06:00etan, kintoak kantuan; 12:00etan, Anelkarren, abesbatzaren eta txistularien Santa Ageda eskea.
*Antzuolan.*

**ANTZUOLA EHko mus txapelketako finala**
Irabazleak aukeratzeko unea.
*Koxkor okindegian, 16:00etan.*

**ARRASATE Familia Jolasean**
0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako.
*Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

**OÑATI 'Passport' antzezlana**
Ylana antzerki konpainiaren eskutik. Sarrerak, hamar euro.
*Santa Anan, 19:00etan*

**OÑATI 'Ni eta nitarrak' antzezlana**
AEDren ekoizpena, Iholdi Beristain aktorearekin. Sarrerak, zortzi euro arrunta eta hiru murriztua.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Bizkarsoro' filma**
Josu Martinezen fikziozko pelikula. Sarrerak, bost euro.
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

**ARRASATE 'Shine' dantza emanaldia**
Lasalaren ikuskizunak. Sarrerak, hamar euro.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 5

**ARETXABALETA Kintoen Santa Ageda eskea**
2005ean jaiotako kintoa.
*Herriko kaleetan, 09:00etan.*

**ARRASATE 'Euskaraz antzeztutako antzerki musikalaren historia' hitzaldia**
Valen Moñuxek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten.
*Herri horietan, 12:00etan.*

**OÑATI Auzoko jaiak antolatzeko bilera**
Auzoetako jai batzordeetako kideendako. Egutegia zehaztu eta auzo bakoitzak behar duen materiala adosteko batzarra.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak**
2006an jaiotako gaztetxoek egingo dute saioa.
*Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Bizkarsoro' filma**
Josu Martinezek zuzendutako fikziozko pelikula, Korrika Kulturalaren baitan.
*Zinema-aretoan, 19:30ean.*

## MARTITZENA 6

**OÑATI Bingo jokoa**
Lagun Leku erretiratuen elkartean.
*Eltzian,17:00etan.*

**BERGARA 'Kulturartekotasuna Hezkuntzan' zikloa**
Jeanne Rolande Dacougnak eta Marta Quintasek parte hartuko dute.
*Seminarixoan, 17:30ean.*

**ARRASATE 'Substantzien kontsumoa. Zer egin dezake familiak?' hitzaldia**
Nerabeen gurasoendako.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ELGETA Korrika batzordea**
Aurrera begirakoak zehazteko.
*Udaletxean, 18:30ean.*

**ELGETA Hitzez Pitz irakurketa taldea**
Euskarazko liburu baten gaineko saio irekia.
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Torradak eta pellak egiten ikasteko ikastaroa**
Gorka Lobato izango da irakaslea. Izena emateko: *Bergara.eus.*
*Gure Ametsa elkartean, 18:30ean.*

**ARRASATE Itsaspeko Nazioarteko Zinema Zikloa**
Hainbat dokumental ikusteko aukera. Debalde.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 7

**BERGARA 'Francisco Javier Landaburu: euskal abertzale baten ibilbidea' hitzaldia**
Leyre Arrietak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ELGETA Ipuin-kontalari tailerra**
Maite Francoren eskutik. Gaur lehenengo eguna.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI 'Cultura forestal. Desde dónde venimos y hacia dónde vamos' hitzaldia**
Julio Castañedak egingo du berba.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Yo, capitan' pelikula**
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 8

**ARRASATE Sasoibide**
Oñatira joango dira.
*Kontzeziñoko geralekuan, 09:50ean.*

**ESKORIATZA Urdelardero Eguna**
10:30ean, umeen kalejira; 11:30ean, txistor-jana; 18:00etan, DJ Mikeltxi; eta 18:30ean, txokolate-jana.
*Fernando Eskoriatza plazan.*

**ESKORIATZA Korrikako arropa salgai**
23. Korrikako materiala erosteko.
*Huhezin, 13:00etan.*

**OÑATI Oñatiko Inauteri Txikia**
Hiru ikastetxeen partaidetzarekin. Olaiturri-Kale Zaharra-Kale Barria-Atzeko kalea-Foruen plaza ibilbidea egingo dute.
*Olaiturrin, 15:00etan.*

**ARETXABALETA Odola emateko deia**
Autobusa egongo da.
*Durana kalean, 16:45ean.*

**ESKORIATZA Korrikako arropa salgai**
23. Korrikako materiala erosteko.
*Fernando Eskoriatza plazan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Literatura solasaldia**
Nerea Baldaren *Azpimarrak* eleberriaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
*Liburutegian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Herri akordiotik Hezkuntza Legera' hitzaldia**
Sortuko herrigintzako idazkari Olatz Egigurenek eta EH Bilduko hezkuntza idazkari Ikoitz Arresek egingo dute berba.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Muare bikotea**
Eli Beraza eta Maddi Gerriko dira kideak. Sarrerak, zazpi euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUBAKOITZA 9

**ELGETA Aratusteetako barikua**
Eskolako umeen kalejira.
*Elgetan, 15:30ean.*

**ANTZUOLA 'Azken festa' ikuskizuna**
Tomaxen Abenturak pailazo taldearen saioa.
*Torresoroan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Egubakoitz Argal jaia**
Leizarra musika eskolakoak.
*Ibarra kiroldegian, 18:00etan.*

**ARRASATE Aratusteetako kontzertua**
Arrasate Musikaleko ikasleak.
*Amaia antzokian, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Memorias de la mar ciega' liburuaren aurkezpena**
Josu Arteaga egilea egongo da ekitaldian, Patxi Irurzunek lagunduta.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE Elkartasun kontzertua**
Goikobalu, Goikobalu Txiki eta Arrasate Gazte Abesbatza.
*Parrokian, 20:00etan.*

**ESKORIATZA 'Zinemaren festa' kontzertua**
Beheko Errota musika eskolako bandaren eskutik
*Zaldibar antzokian, 20:00etan.*

**BERGARA 'Bixamona erdi aroan' kontzertua**
Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoa. Sarrerak, zortzi euro.
*Pilotalekuan, 22:30ean.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Los que se quedan**
Zapatua eta astelehena: 19:30.

**Kin y Yuk**
Zapatua: 17:00

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**Los que se quedan**
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Thabo y el caso del rinoceronte**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Bizkarsoro**
Egubakoitza: 22:00 (jatorrizko bertsioan).
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Thabo y el caso del rinoceronte**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**Los que se quedan**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Wish: el poder de los deseos**
Domeka: 17:00.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**Anatomia de una caida**
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Robot dreams**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Wish: el poder de los deseos**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Concrete utopia**
Egubakoitzetik domekara: 19:15, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**El correo**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**La zona de interes**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Los que se quedan**
Egubakoitzetik eguenera: 19:00.

**Migración. Un viaje patas arriba**
Egubakoitza: 16.30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Perfect days**
Egubakoitzetik domekara: 16.30, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

**Valle de sombras**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:00.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

**Sala de profesores**
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

**Miller`s girl**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Misantropo**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 16:30.

**Patrick (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Pobres criaturas**
Egubakoitza: 16:30, 19:15, 21.30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:15, 21:30.
Astelehena, martitzena eta eguena: 17:00, 19:15.
Martitzena: 17:00, 19:15.

## KRITIKA

### Pobres criaturas

★★★☆☆

**Zuz.:** Poor Things. **Herr.:** Irlanda (2023). **Aktoreak:** Emma Stone, Mark Ruffalo, Willem Dafoe. **Iraupena:** 141 minutu.

## Sarerik gabeko jauzia

**ANTONIO ZABALA**

*Pobres criaturas* filmaren hasieran, emakume bat amildegi batetik salto egiten ikusten dugu. Film honetan antzeko jauzia, sarerik gabeko jauzia, egiten dute Yorgos Lanthimosek eta Emma Stonek. Film hasieratik bukaerara arte ikuslea harrituta geratzen da kontatzen zaion istorioarekin eta istorio hori kontatzeko moduarekin. Zuri-beltzeko irudiekin batera badira kolore biziko eszenak eta fantasiaz beteriko dekoratu izugarriak. Zuzendaria kameraren lenteekin jolasten da eta oso irudi desberdinak eta bitxiak sortzen ditu. Eta Emma Stoneren interpretazioa liluragarria da. Egiten duen pertsonaia, Bella Baxter, haurtxo baten garuna ezarri dioten emakumearena da. Filmaren hasieratik bukaerara arte, automata antzeko bat izatetik emakume menderatzailea izatera pasatzen da. Berba egiteko moduak eta mugitzeko moduak ondo adierazten dute pertsonaian gertatzen den bilakaera.

Istorioari dagokionez, zientzia fikzioa *(Frankenstein: La parada de los monstruos),* bidaiak eta abenturak, fartsa, sexua eta emakumearen emantzipazioa elkartzen dira. *Pobres criaturas* film arriskutsua, originala eta lotsagabea da. Ez da erraza gehiegikeriarekin jolastea eta istorio eroari zentzua ematea, baina, zatiren bat kenduta, ederki gainditzen du erronka zuzendariak.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI ASKASIBAR

## Terrorismoa

Urteak aurrera joanda ere, zaharrak berri Espainia aldean. Hamarkada luzeetan zehar disidentzia politikoa zigortzeko estrategiak eman dizkien etekinengatik edo, azken asteotan terrorismoa akusazio gisa berreskuratu duten epaileek zeresana eman dute.

Garcia Castellon Auzitegi Nazionaleko epaileak, esaterako, terrorismoa ikusi du 2019an Kataluniako Procesaren bueltan izan ziren protestetan. Terrorismoa "ikusi"-edo, egun haietan Bartzelonako El Prat aireportuan izandako istiluetan gizonezko bat bihotzekoak jota hil izana aipatu baitu magistratuak froga nagusitzat.

Epaile horren imajinazioak, baina, bere helburua bete du, terrorismoa eztabaida politikoaren erdigunean jarri baitu, PPk bere neurrira egindako kontakizuna lortuta. "Katalunian gertatutakoa terrore hutsa izan zen", bota du Feijook, independentismoaren kontra guztiak balio dezakeela irudikatzeko.

Euskal Herrian ezagunak zaizkigu trikimailu horiek. *18/98* edo *Egunkaria* kasuetan bezala, denborak akusazio horien faltsukeria erakutsiko du, bai, baina orduko berandu izango da, mugimendu politiko-juridiko-mediatikoek eztabaida publikoa haien eskuetan izango dutelako. Eragindako mina, baina, beste kontu bat izango da.

BUKATZEKO



2024ko *Goiena 0km gida*-k; atera dituzten hiru bertsioak. GOIENA

# 'Goiena 0km gida' etxerik etxe datorren astean

Leintzeko gida, Bergara aldeko gida eta Oñatiko gida argitaratu ditu Goienak, eta bakoitza dagokion lurraldean banatuko da. Horrez gain, gidaren bertsio digitala eskuragarri dago 'Goiena.eus'-en eta Goienaren eskuko telefonorako aplikazioan

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA

Beste urte batez, debagoiendarrek *Goiena 0km gida* jasoko dute euren etxebizitzetan, eta 2024koak ere bailarako negozio guztien gaineko informazio eguneratuena eta osatuena jasoko du. Aurtengo berrikuntza gisa, paper diseinu berria izango du gidak. Guztira, 18.100 gida banatuko dituzte bailara osoan, eta hiru liburuxka ezberdin izango dira, lurraldearen arabera banatuta: Leintzeko gida Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aramaion banatuko da; guztira, 9.000 ale. Bergara aldeko gida Bergaran, Antzuolan eta Elgetan banatuko da; guztira, 5.800 ale. Eta, azkenik, Oñatiko gida herrian bertan banatuko da; guztira, 3.300 ale.

**Zero kilometrokoari garrantzia**

Urtero legez, *Goiena 0km gida*-k *zero kilometro* kontzeptuari garrantzi berezia emango dio, tokiko negozioak sustatu nahi dituelako eta erabiltzaileei bertako informazioa eskura eman nahi dielako. Gidan ia 3.000 negozioren telefono-zenbakiak agertzen dira, eta, horrez gain, erabiltzaileek negozio horien eskaintzak, zerbitzuak eta ordutegiak ezagutzeko aukera izango dute. Erabiltzaileentzat ez ezik, saltokientzat ere oso baliagarria izango da gida, era horretara, haien zerbitzu eta produktu guztiak ezagutzera emateko aukera izango dutelako.

*Goiena 0km gida* eskuragarri egongo da GOIENA aldizkaria jasotzen duten guztientzat eta gidan publizitatea egiten duten bezeroentzat. Otsailaren 6an, martitzena, hasiko da gidaren banaketa, eta aurreikusten da astebetean gida guztiak banatuko direla. Norbaitek gida jaso nahi badu Goienara deitu (943-25 05 05) edo *publi@goiena.eus* helbide elektronikora idatzi beharko du.

**Datorrena, 25. urtea**

Dagoeneko 24 gida argitaratu ditu Goienak, eta datorren urtekoa 25. urtea izango da gida argitaratuko duena. Urte hauetan guztietan gidaren erabilera oso handia izan da, eta, gaur egun ere izaten jarraitzen duenez, horren aldeko apustua egiten jarraitu nahi du Goienak. Hala ere, gida digitalak indarra hartu duela ere badakite, eta haren eguneratzean ere lanean jardungo dute.

**Digitalean eskuragarri**

Bailarako etxebizitzetara gida paperean iritsiko bada ere, *Goiena 0km gida*-k badu bertsio digitala; izan ere, *Goiena.eus* webgunean eta Goienaren eskuko telefonoko aplikazioan ere kontsulta daiteke gida komertziala. Beraz, behar duenak eskuragarri izango du etengabe eguneratzen eta osatzen ari den *Goiena 0km gida* bertsio digitalean.

OLATZ LEZETA
ANTZUOLAKO ALKATEA
GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'
OTSAILAREN 2AN, EGUBAKOITZA, 18:20, 20:20 ETA 22:20
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena Zu hemen zaude.

